



Ane PETRIRENA  
Nafarroako errekor  
berria 200 metroan  
→ 48

2013ko uztailaren 11 | XXXIII. urtea | 594. zenbakia

## Herrietako Bestak

Arano, Elgorriaga,  
Elizondo eta Ituren

## BORTZIRIAK → 26

Ekonomia solidarioa  
hizpide Bidaziren eskutik

## LEITZA → 38

Parlamentua Maxurrenea  
herriari ematearen alde

## BAZTAN → 41

Baztandarren Biltzarra  
uztailaren 21ean

## SARA → 44

Pottokaren Eguna  
uztailaren 20an

**TURISMOA** → «Urumea arnastuz» natura arnasteko proposamena


## Arano, Goizueta, Ereñotzu eta Hernanik eskaintza turistikoa bateratua prestatu dute

Natura eta turismo aktiboa hartu dituzte ardatz, herrietako kultura eta ohiturak ezagutzera emateko asmoarekin.

ERREPORTAJEA → 4-5



Patxi URRUTIA | Kontuz! elkarteko kidea




«CANen egindako  
astakeriak ikertzen  
segituko dugu  
eta informazio gehiago  
izanen dugu»

ELKARRIZKETA → 3



## Lizasok igandean jokatu du azken partida profesionaletan

Iñaki Lizaso doneztebarrak 21 urte eman ditu erremonte profesionalean eta orain, 40 urterekin, uztea erabaki du. San Fermin Torneoaren aurkezpean Uharteko Euskal Jai Berrin eman zuen despedidaren berri bere lagunez inguratua. → 30



## Beñat Txoperena txapeldun Mungian

Sasoi onean hasi du denboraldia txirrindulari ingantziarrak. → 49

benta berri



## BERAKO BESTAK

. MENU BEREZIA .

- Sarrerak
- Bigarren platera aukeran
- Postrea
- Kafea

Aurtengo bestetan  
zatoz gurekin ospatzera

30€

. MENU BEREZIA .



# benta berri

Ibardingo gaina • BERA • Nafarroa

Tel. 948 63 07 08

## MENDIKO

. SAGARDOTEGIA . ERRETEGIA . JATETXEA .



## BERAKO BESTAK

. SAGARDOTEGI MENUA .

Berako bestak direla eta, MENDIKO jatetxeak  
Sagardotegi Menu berezia hau eskaintzen dizue

- Frijituak
- Bakailu tortilla
- Txuleta
- Gazta intxaurrekin...



25€

. SAGARDOTEGI MENUA .



Ibardingo gaina • BERA • Nafarroa  
[www.mendikoibardin.com](http://www.mendikoibardin.com)

Tel. 948 63 03 02





Kontuz elkarteak urteak daramatza ustelkeriaren kontra Nafarroan lanean, eta azken aldian, Nafarroako Kutzarekin gertatutakoa ikertzen ari da. Bi urtez CANetik mila milioi euro desa-

gertu direla jakinarazi du eta egindako lanaren ondorioz, kutxaren desagerpenaren hainbat kontu agerian gelditu dira. Dieten auzian, Miguel Sanz Gobernuako presidente ohia,

Enrique Maia Iruñeko alkatea, Alvaro Miranda kontseilari ohia eta Enrique Goñi CANeko zuzendari ohia inputatuak daude eta Yolanda Barcina presidentea hurrengo izan daiteke.

Patxi URRUTIA | Kontuz! elkarteko kide amaiurtarra

# «Gure politikari nagusiak dira CANen gertatu denaren arduradun nagusiak»

G. PIKABEA | AMAIUR

## Zer gertatu da CANen?

Nafarroako Kutzaren auziak adar aunitz ditu baina bere desagerpenean hiru lagun dira erantzukizun haundia dutenak: Nafarroako Kutzako presidentea, kudeatzaile nagusia eta kontrol taldeko burua, hau da, Enrique Goñi, Miguel Sanz eta Yolanda Barcina. Gure politikari nagusiak dira gertatu denaren arduradun nagusiak. Dietak kobratzen hasi ziren deusezen truke eta nolabaiteko forma eman diote Batzorde Iraunkorra sortuta. Milla milioi euro desagertu dira bi urtez eta kopuru horretatik dietetan joan dena ez da aunitz, baina jendearen aitzinean argi gelditu da nola jokatu duten. Aunitzez ere diru gehiago suposatu duten bertze gertakizunak badira eta horiek ikertzen hasi berriak edo hastekoak gara. Nafarroakoan, estatuko bertze kutxetan ez bezala, Nafarroako Gobernuak zuen kontrol lana egiteko obligazioa, Foruak direla eta, baina ez zuten ia inoiz hori bete.

## Nora joan da dirua?

Ikusiko dugu. Baldintza berezietan egindako maileguak daude. Diario de Navarrari egindako 16 milioi euroko mailegu bat dago legez kanpokoan izan daitekeena. Kontabilitatek 200 milioi euro ere desagertu dira, 2009an CANen Hiscan Patrimo-



UTZITAKO ARGAZKIA

Patxi Urrutia burubelarri dabil Kontuz elkartean lanean, CANen gertatutakoa ikertzen.

nioaren ondarea 500 milioi eurotik gorakoa zen eta 2010ean 200 milioi guttiago ziren. Badira hainbat inbertsio ere eginak, galera haundiak izan dituztenak, eta batzuetan CANeko arduradunak dira enpresa horien buru. Antonio Catalan hotelen burua ere tartean dago mailegu arraroekin. Azala bakarrik ukitu dugu, epaileak oraindik animaleko lana egin behar du. **Epaileak Barcina inputatu ala ez erabakitze-ko eskaera Auzitegi Gorenari bidali dio...**

Dieten inguruan, Barcina bakarrik gelditzen da inputatzeko. Epaileak inputatu gisa deklaratzeko zantzuak ikusi ditu baina foruduna izanda ezin dio

## DIETEN AUZIA

**2010eko CANen estatutuetan ez zen ondorioztatzen Batzorde Iraunkorra izena hartu zuen bertze organo bat osatuko zela. 10 hilabetera, CANen araudi batean jaso zen batzorde hori. Epailearen arabera, Batzorde Iraunkorraren izateak ez du lege zilegitasunik eta bilerak dirua kobratzeko aitzakia hutsa izan ziren. Batzordekide zirela, ordu erdiko 16 bileretara joateagatik Sanzek 30.000 euro kobratu zituen, Barcina eta Mirandak 19.200 euro eta Maiak 4.400 euro.**

hemen galdeketa egin eta Madrilera pasatu du. Lotsagarria da Nafarroako presidentek Nafarroan egindako delituren bat baldin badago eta hori pairatu dutenak nafarrak izanda, gaia Madrilera eraman nahi izatea. Hemen egin beharko lioke aurre justiziarri, edozein nafarrek bezala.

## Auzia Nafarroan ikertzen segituko dute?

Nafarroan ere badira zenbait gauza ikertzeko. Dieten auzian, gure lehentasuna Batzorde Iraunkorreko bileretan aktak egiten ziren ala ez jakitea da. Dirudienez, ez ziren egin eta geroztik akta batzuk antolatu dituzte epailearengana eramateko, baina faltsuak dira ez direla-


ko momentuan eginak. Guardia Zibila ikertzen ari da. Hori jakitea garrantzitsua da aktek Sanz eta Barcinaren sinadurak baituzte eta horrek adieraziko luke Nafarroako arduradun nagusiek akta faltsuak sinatu dituztela. Enpresei egindako maileguak ere ikertu behar dira.

## Haserrearen nabari da Nafarroan. Horren lekuko azken manifestazioa.

Gu ere harritu ginen bilduren jendetzarekin. Egun hartan argi uzten saiatu ginen arazoa ez dela epailetaren ondorioz zer gertatuko den. Kontua da dirua desagertu dela eta horrekin Barcinak dimisioa aurkeztu beharko luke, are gehiago arrazoia dugula erakutsi digularik dirua itzuli baitu. Epaileak edozein gauza erranda ere, politikoki dimititu beharko luke instituzioak garbiak direla erakutsiz. **Egiakiz zer gertatu den jakinen dugu?**

Diru guztia nola galdu den ez, baina zer gertatu den jakitea lortuko dugu. Gizarteak gure salaketa ulertu du eta hori da gure lorpenik haundiena. Horren ondorioz aldaketak etorriko dira. Egindako astakeriak ikertzen segituko dugu eta informazio gehiago izanen dugu. Halako saltsetan ibili direnek kudeaketa erremue-tatik alde egin behar dute eta hori dugu helburua.

**Elkarrizketa osoa**  
[www.ttipi.net-en](http://www.ttipi.net-en)



ARGAZKIA: BIZI-BIZIKI

TURISMOA → ELKARLANEAN OINARRITUTA

# Urumea arnastu, lau herri bat eginda turismoari hatsa emateko asmoz

Hernani, Ereñotzu, Arano eta Goizuetak eskaintza turistiko bateratua jarri dute bisitarien eskura

Urumeako goi-bailarari bizia eman eta beste eskaintza turistikoetatik bereizteko elkartu dira. Natura eta turismo aktiboa dira ardatz nagusiak eta herrietako kultura eta ohiturak

ere ezagutarazi nahi dituzte. Lehenengo pausoak dira orain arte eman dituztenak eta zabaltzen segi nahi dute. «Urumea arnastuz, natura arnasteko» proposamena eginez.

## Eneritz IRAOLA

Bisitariari atea bakarka ireki beharrean, bailara osoa ezagutzeko zubia eraiki dute. Ereñotzu, Hernani, Goizuetza eta Aranoko udal ordezkariak ekainaren 15ean

aurkeztu zuten *Urumea arnastu* proiektua. Bizi-biziki enpresak izan du proiektua kudeatzeko ardura eta bertako kide den Ekaitz Zubelzuk azaldu digu nondik norra sortu zen ideia, «2010.

urtean Goizuetako natur turismoaren inguruko ikerketa batzuk egin genituen. Emaitzek agerian utzi zuten turismoa erakartzeko zerbait egin behar zela». Orduan kasualitatez, Ereñotzu he-

rrri auzotik deia jaso zuten, «natur turismoaren inguruan zerbait egin nahi zutela esanez». Elkarlanean aritzeko proposamena egitea otu zitzaion orduan Bizi-biziki enpresako ei «proiektu bateratuak indar gehiago izango zuela uste genuelako» azaldu digu. Hernani eta Arano ere bat egin zuten egitasmoarekin. Hasteko, hainbat euskarri jarri dituzte martxan «Urumea arnastu marka sortu dugu, eskuorriak prestatu ditugu informazio orokorrek, sare sozialetan gure tokia egin eta [www.urumeaarnastu.com](http://www.urumeaarnastu.com) webgunea sortu dugu».

## WEBGUNEA

Sei atal nagusitan banatu dute interneteko orrialdea. Turismo aktiboarekin lotutakoak ikus daitezke lehenengo: mendi ibilbideak, piraguismoa, BTT ibilaldiak, arrantza, eskadala... Familia, zein lagun artean egiteko ekintza ugari proposatzen dira.

Inguruak eskaintzen dituen baliabide naturalek ere badute lekua: Artikutza, Aiako harria, monumentu megalitikoak... Horretaz gain, turismo kulturala egiteko eta herrien inguruko informazio orokorra jasotzeko aukera ere bada. Argazkiak ikusi eta bidai prestatzeko birtartekoak ere eskain-

## URUMEAKO GOI-BAILARAN MILAKA AU



Turismo aktiboan oinarritzen dira: piragua ikusgarritasunak, herrietako ondarea ezagutzeko bi-



**ESKAINZA**

«Elkarren arrimoan errazagoa da herri ttiekiek pausoa ematea. Gainera, lortutako emaitzak indar gehiago izango du, eskaintza hobea emateko aukera izango dugulako»

**Pili APEZETXEA**

Goizuetako zinegotzia

**ATERABIDEA**

«Turismoa erakartzeko beharrari erantzun eta herri hauek eskaintzeko dituzten baliabideei aterabidea ematen zaie modu jasangarri batean»

**Ekaitz ZUBELTZU**

Bizi-biziki elkarteko kidea

**ESKAINZA ZABALA**

«Bata bisitatu, bestean lo egin edo bazkaldu... Lau herriak batera aurkeztuz, bisitariari mila aukera sortzen zaizkio, bestela bururatuko ez litzaizkiokeenak».

**Maider ANSA**

Aranoko zinegotzia

**KA AUKERA**



ARGAZKIAK: ARRIGAIN


gua ikastaroak, mendi ibilaldiak, herrietako bisita gidatuak... jarri dituzte aukeran.

**MAIDER ANSA, ARANOKO UDALEKO ZINEGOTZIA**

*«Bultzada txiki batez gauza haundiak lor ditzakegula uste dugu»*

«Gure herriak zeharkatzen dituen erreka aitzakiaztat harturik, lau herriok dugun lotura aprobetxatu dugu» azaldu digu, «beti ere konpainian gauza ederragoak eta baliotsuagoak egiten dira». Gaineratzen du, Gipuzkoa eta Nafarroa arteko mugak «ez digu inoiz mugarik jarri, baina uste dugu puntu horrek ere indarra» ematen diola proiektuari. Aranori «ikuspegi turistikoa ematea» izan dela lehenengo helburua aitortu digu, «ez dugu behin ere turismo aldetik saiakerarik egin jendea erakartzeko eta ikusi dugunez jendeak badu Arano-rako joera». Dio proiektuan parte hartu duten herri guztiek dutela «zer irabazia». Izan ere, «Hernanira bisita egiten duen familia batek, beharbada nahiago du Arano edo Goizuetako lasaitasunean pasa gaua. Edo Ereñotzun piraguan ibili goiz partean eta Aranon bazkaldu eta arratsaldean Goi-

zueta ezagutu». Aurrerantzean «inguruan bizitzeko esperientziak proposatu eta antolatzen ari gara» esan digu. Etorbizunaz baikor hitz egiten du «inguruko herriei harreman onak bultzatuz eta elkarrekintzan gauzak ongi baino ezin dira joan».



**PILI APEZETXEA, GOIZUETAKO UDALEKO ZINEGOTZIA**

*«Elkarlanean arituta bestela ezkutuan gelditzen ziren baliabide natural eta kulturalak jendaurrera atera ditugu»*

«Proposamena gustatu zitzaigunez, aurrera egitea erabaki genuen» aipatu digu Pili Apezetxea Goizuetako udaleko zinegotziak. «Jendea erakari eta bertan bizi garenok ere gure txokoak ezagutzeko bidea» gisa honetako ekimenekin zabalitzen dela uste du, «ez baita urrutira joan beharrik, txoko ederrak ikusi eta ongi pasatzeko». Bailarak zuen «hutsune bat betetzeko» modua dela dio, «orain arte jendeak galdetzen zuen urumea aldean zer zegoen ikusteko ez zuten erantzunik jasotzen». Horretaz gain, «Nafarroa eta Gipuzkoa arteko muga instituzional hori ere puskatzen» dela gaineratzen du, «bidea zabalitzen da alde horretatik, instituzionalki deus ez dagoen arren, betidanik izan baitugu harreman hurbila inguruko herriei». «Naturarekin harreman zuzena duen bailara»

dela azpimarratu behar dela iruditzen zaio «mendia, erreka... egun pasak egiteko aukera ederra ematen dute». Duten guztia jarri dute bisitarien eskura eta orain, «jendeak erantzuten duen» ikusi beharko da «turismo arloan aurrera egiteko».



tzen dituzte (non lo egin, non jan...). Beste bi atal ere badaude, bisitarien eskaintza berezia egiteko asmoz: Esperientziak eta kirol probak.

**ESPERIENTZIAK**

Eztigileen lana gertutik ezagutu, Goizuetako eraikin historikoetatik barna bisita gidatuak egin, Urumea errekan piraguan ibili, mendi irtee-

ra gidatuak egin edo Hernaniko kaleak ezagutu. Horiexek dira, eskaintzen diren esperientzia bereziak. Urte guztian zehar eskuragarri daude eta prezioa, ordutegiak... kontsultatu litezke. Horieta gain, urtaroen urtaroko esperientziak ere antolatzen dituzte, esate baterako Aranon baserriarekin lotura dutenak.

**KIROL PROBAK**

Asko dira aspalditik ingurune honetan egiten diren lasterketa eta ibilaldiak. Etorbizunean gehiago ere, bultzatu beharko lirakeela uste du Ekaitz Zubelzuk, «halako jarduerak herri ttiekiei onurak ekartzen dizkietelako, munduko plaza horretara atera eta herria ezagutarazteko bide egokia dira».

**ETORKIZUNA**

Aurrera begira, pakete moduko eskaintzak egingo dituzte elkarrekin eta pixkanaka itaso alderagoko eta Nafarroa barruragoko herrietara zabaltzea ez dute baztertzen, «behin eta berriz sortuz, bidea egiten segi behar dugu. Herri ttiekien eta bailaren mesedetan delako egiten den guztia».



**Nire txanda**  
Beñardo GOIETXE

## Uda on!

**B**i sasoi urtsuen ondotik ailegatu da uda lehorpea bilaka. Batzuek, merezita edo ez, pausa hartuko dute oporrez gozatzeko. Bertze batzuek, betiko beharretan, edo langabe, edo egunero lana agortzen ari den honetan udako jorنالtxoa lortuko dute, zerbitzu eta ostalaritza lanetan gehienbat. Lan munduan ikusten ez den eguzkia eta berotasuna ikusiko ote dugu zerutik beheiti? Denboraz, gure inguruko baserrietan hondartza eta bestarako giroa ez zen orain bezain hedatua. Goizean argia hasi orduko eguzki eta bero galda lagun, belar pikatze, higitze, idortze, biltze eta altxatze eskulan nekezak izaten ziren bertako nahitaezko eginbeharrak. Egun, laborantzan ari diren etxe pixar gehienetan traktorea nagusi eta lehen metak edo zamak zirenak pakete edo bolatzar bihurtu dira orain. Eta aziendek, aise gehiago izaki, larre garbitze fina egiten zuten; orain, ordea, mendi bazter gehienak sasiak janak, horretan ere lan ederra norbaitek pagatu nahiko balu. Bitartean, zorritzarrez, xoko politen bat edo bertze sutan kiskaliko da sasoi honetan. Lanean, langabe edo bakanzetan, baina ahal bada ez sutan, uda on!

**Ezpala**  
Aitor AROTZENA

## Peajea Endarlatsan

**B**elateko bihurgunetan lehenik goiti eta gero beheiti ibili naiz, behelaino artean kamioiak laztanduz, Sunbilla ondoan eltzetzuen kontrolean ordu erdi kontu naute, Berako harrobi parean harritzar bat eskibatu dut doi-doi, Alkaigako tunel aitzineko *txikanean* kasik gurpila utzi dut eta Endarlatsako zubia pasatu orduko ordainlekuarekin topo egin. Zerbitzuak ordaindu behar dira! (...)

## Nabarmentzekoak



**Beñat TXOPERENA**  
Denboraldiko lehen garaipena

Txirindulari igantziarra sasoiko dago. Espainiako errepideko txapelketan bigarren izan zen 23 urtez beheitiko mailan eta astebete berandua go Mungiako Sari Nagusia irabazi zuen.



**Mikel IRIARTE**  
Lesakako Musika Banda

15 urte bete ditu Musika Banda zuzentzen eta hori eskertuz, taldekitan ezusteko omenaldia jaso zuen hunkiturik ekainaren 28an, Lesakantuz kontzertu bikainen hondarrean.



**Iñaki LIZASO**  
Erremontelariaren agurra

Sanfermin egunean eskegi du erremontea Doneztebeko atzelari handiak, 20 urte baino gehiago profesional izan ondotik. Koteto Ezkurra laguna besarkatuz iragarri zuen agurra.

**Atzera begira → 2003.07.17 / TTIPI-TTAPA 354 zbk.**



## Baztandarren Biltzarrak 40. urteurreneko diska

50. urteurrenerako hainbat ospakizun antolatu ditu aurrean Baztandarren Biltzarrak. Duela hamar urte ere, 40 urteak ospatzeko diska atera zuten. Abestiaren letra Jon Barberenak idatzi zuen eta M-n Ezten taldeak grabatu zuen, eskualdeko hainbat jenderen kolaborazioarekin. «Kantuaren letran, denaren gainetik gure hizkuntza euskara dela eta horixe dela Baztango hamabortz herriak bat egiten dituen nabarmendu nahi izan dugu» aipatu ziguten Barberenak berak eta Jexux Bailonek. Diska salgai paratu zuten, «ez negozioa egiteko asmoz, oroigarri modura baizik, hiru euroko prezio sinbolikoan».



**Argitaratzailea** Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA  
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • [info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net)

**Zuzendaria** Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Erredakzioa** Eneitz Iraola **Publizitatea** Usoa Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itzaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guereniain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Martin Larralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega.

**Fundazioaren Presidentea** Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia  
**Lege Gordailua** NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

**Erakunde laguntzaileak** Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

### 2013ko harpidetza sariak

|                    |             |                       |             |                                |          |
|--------------------|-------------|-----------------------|-------------|--------------------------------|----------|
| Hego Euskal Herria | .....40€    | Europa                | .....59,50€ | Baztan, Urdazubi eta Malerreka | .....34€ |
| Ipar Euskal Herria | .....59,50€ | Amerika eta Australia | .....124€   | Leitza                         | .....17€ |



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Bortziritako Euskara Mankomunitateak diruz lagundua

## Kolaborazioak

### Burua maingu?

Andoni ITURRIOZ (Lapurdi 1609 Elkarten kidea)

**E**uskal herrian 1813ko Urdazuriko batailaren urte betetzea ospatuko da erakusketak, desfileak, gudukaren alegiazkoak burutuko direlarik. Senpere, Sara, Azkaine, Biriatu eta beste zenbait herriri galde egin zaie ospakizun hauen diruztatzeko. Nere buruari honako galdea egiten diot: Zein da ekitaldi hauen helburua? Zein arazoren konpontzeko ote? Duda izpirik ez dugu gudukaren alegiazkoei buruz, xehetasun bakar bat ez da ahantziko, uniforme guziak azken botoineraino egiazkoen pare izango ditugu. Batailak gertatu diren tokiak zehazki markatuak, garbituak eta argiki azalduak. Frantziarentzat galdu bataila hauen ospatzea ez ote da alde hauetako oraingo biztanleak garenok frantses herritartzeko bidea? Komemorazioek, pentsatzen nuenez, gertakizun zoriotsuen oroigarri izan behar lukete, Armistizioa ala Aberri Eguna bezalako tokian tokiko eta eremu zabalgoko gertakizun aipagarrien ospatzeko. Azken denbora hauetan, ohitura politikoa aldatzen ari zaigula dirudi: besta giroko komemorazioen ordez, zorigaitzeko gertakizun ez aginduz eta legez oroitu beharra nagusitu zaigula.

Zer pentsatu Urdazuriko batailaz? Frantziarentzat, antza denez gertakizun dolugarriak bataila galduak zaizkiolakoan. Beharrezkoa ote zen horien ospatzea. Gehienetan, porrotak baino garaipenak dira oroitarazten. Dakidanez Austerlitzeko geltokia Parisen dugu Waterloo geltokia Londresen dugularik. Neu, espainoletik pasaporte baizik ez dudana, ez naiteke pozatu tropa espainolak Lapurdiko laborarien kontra mendekatzeagatik. Neu, euskalduna naizena, harrিতa nago, komemorazio hauek zer helburu duten nahi nuke jakin. Zein mezu eman nahi zaie gertakari hauek bizi izan dituzten arbasoen ondoko Senpeter eta inguruko herritarrei? Egia xedetzat duen mezua?

Ez zait iduritzen komemorazio hauek herritarrei azaltzen dietela nolaz etxeak erreak, lurak txundituak, abere, jaki eta jantziak ebatsi izan zitzaizkien, ez tropa Ingelesen hobenarengandik, baizik eta tropa Frantsesenarengandik. Honenbesteraino non eta batzuetan tropa Ingelesak salbatzaile gisa, babesle gisa hartu baitzituzten herritarrek tropa frantsesen gehiegikeriez joak zirelakoan. (tropa espainol eta portugesen gehiegikeriak ahantzi gabe). Honen jakinean, berriz ere galde egiten dut, zer ospatu behar guke?

Gure historia, erran nahi baita gure arbasoek bizi izan dutena ezagutarazten ez duten desfile eder musikak eder, uniforme ederren ikustera joateko ordez, liburuen iturritik irakurtzea aholkagarriago, hala nola Dominique Haltyren *Episode des guerres Napoléoniennes au Pays Basque*.

**«Gure arbasoek bizi izan dutena ezagutarazten ez duten desfile eder musikak eder, uniforme ederren ikustera joateko ordez, liburuen iturritik irakurtzea aholkagarriago»**

### Aukeran, ez dut alardetik nahi

Ainara MAIA URROZ

**U**rte zahar hau San Joan sutan erreko dugu eta bere ginetik jauzi egingo dugu urte berri zoriotsu baterantz, urteko gaurik motzenez, ilargi beteko gauean. Santu batez mozorrotu dugu berezkoa eta naturala den tradizio bat, naturarekin bat egiteko edo naturarekin armonian bizitzeko aukera, gure aitzindarien eta arbasoen ohiturari jarraiki.

San Martzialak nire herriko besta sailduak dira, Irungoak, baina bi alarde txapelgorridun horiek nekaturik naukate. Jadanik tradiziozko bilakatu da bi alarde egotea Irunen, eta hirugarren aukeraren aldekorik ez ote dago?

Izan ere, hirugarren aukera litzateke antimilitaristena eta euskaldunona. Hirugarren aukera litzateke mendetako etengabeko gerrak eta galerak gibelan uztea eta martxa militarrei garrantzia kendurik, bestaz gozatzea, bizitzea.

Alardearekin (edo alardeekin) Nafarroako Erresumaren galera ospatzen ari gara eta galera horrekin batera Euskal Estatu Independente bat eratzearen aukera historiko bakarra galdu genuen. 1522tik aitzina euskaldunon eskubideen etengabeko galera bat besterik ez da egon, eta beraz, ez dugu ezer ospatzekorik. Frantses-gudarostearen porrotarekin, Nafarroako erregeak ere bere koroa galdu zuen eta errege gaztelarra jarri zen euskaldun guztion ginetik.

Horregatik, San Martzialeko tradizio saildua seriooki hartzen badugu, ez dut alardetik nahi. Hirugarren aukerarekin bat egin nahi dut, feminista banaiz ere, lehenago euskalduna naiz eta historiarri begiratuta, euskaldunok ez dugu ezer ospatzekorik, eta San Martzialeko guda hartan euskaldunok galdu genuela oroitu behar da.

Bada, hirugarren aukera horri heldu nahiko nioke: tradizioa seriooki eta estuki hartu gabe, alardea irundar guztion besta baten gisa har dezakegu, eta ez "frantsesen aurkako garaipen" gisa, hori ez baita horrela, ez zen garaipen bat izan euskaldunontzat. Hauxe da udaren hasierako berri freskoa: ainara baten antzera hegan joango naiz, hegoalderantz iparralde berotik. Ainara honen hegaldiaren berria zueganantz doakizue, eta badirudi ainara bakar bategu uda badakarrela, eta maiatza ekainean goxo sartu den bezala, maitemindurik dut bihotza berriro ere. Gora San Pedro eta San Martzial!

**«Alardearekin (edo alardeekin) Nafarroako Erresumaren galera ospatzen ari gara eta galera horrekin batera Euskal Estatu Independente bat eratzearen aukera historiko bakarra galdu genuen»**



## Irakurleak mintzo

Bi kexa  
AsegarceriXanti BEGIRISTAIN  
MADOTZ (AURITZ)

Uztailaren batean deitu nuen telefonoz, Asegarceren webgunean agertzen zen telefono mugikorraren zenbakira, jakiteko zenbat balio zuten Lau eta Erdiko San Fermin Torneoko sarrerek. Erantzun zidan gizonetzako oso informazio txukun eta zuzena eman zidan, baina gaztelaniaz; nik galdetuta esan zidan ez zekiela euskaraz, edo nik behintzat hala ulertu nion, eta handik aurrerako elkarrizketa erdaraz izan zen halabarrez.

Euskal pilotaren munduan gauza batzuek harritzen naute, bat da goraxeago kontatu dudana, alegia, telefonoz ez jartzea pertsona euskalduna, inor ez baztertzeko hizkuntza arrazoiengatik. Beste bat, apustu artekariak beti-beti gaztelaraz aritzea; berdin-berdin da partidua Euskal Herriko herririk euskaldunenean jokatzeko bada ere, antza denez, bost axola zaie eta soil-soilik erdaraz kantatzen dituzte

apustuak. Dirudienez, euskarak ez du balio diru kontuetarako. Bide batez, eta bukatzeko, zur eta lur uzten nauen beste kontu bat da, ikus-tea, batzuetan, pilota enpresek jartzen dituztela botilero erdaldu-nak pilotari euskaldunei (euskara dunei) eta euskaldunak pilotari erdal-dunei. Pentsatzen dut, hor arduradunek sentiberatasun handiagoa erakutsi beharko luketela euskararekiko.

Hitz gutxitan, esanen nuke, *Euskal Pilotaren* mundu honi dezente falta zaiola, benetan Euskal Pilota izateko.

Hitzarmen  
lotsagarriaJoxe MARI TELLETXEA  
MITXELENA (LABeko  
ordezkari ohia eta  
Funveratik kaleratua)

Hiru urte eta erdi pasa dira jadanik Funvera S.A.an kontratu finkoa genuen 47 langile kaleratu zituztenetik (behin behineko kontratua zaukaten bertze hainbat langileek zorte berdina jasana zuten aurretik), ia bi hilabetez greban egon ginen kale-

ratzeak saihesteko baina, orain azalduko ez dudan gertakizunengatik, greba bertan behera geratu zen eta aipatutako 47 langileok kale gorrian geratu ginen, gainontzeko 95ak lanean jarraitu ahal izateko. Jarraian lantegi barrutik egingo zutela borroka entzun behar izan genuen ere, agurra moduan, langileen ordezkariaren gehiengo osoa zuten zutenen ahotik.

Enpresak, bere alde-tik, agindu zuen hurrengo lau urtetan (2010-2013) langileak kontratatzeko beharra sortzen bazitzaion kaleratutako enpresen arteko osatuko zuela beharra hori, baina ezkeretik agindutakoa behin eta berriro hautsi du, berak nahi duena kontratatuz, "lantegi barrutik" borroka egiten zutela agindu zituztenekin inolako lan sindikalarik burutu ez dutelarik lantegi barruan enpresari bere agindua betearazteko; eta ondorioz bertze hainbertze alditan, hamarkadetan lantegi horretan lanean aritutakoak, kale gorrian geratu gara; bateri (enpresa), eta bertze-ari ("barrutik borroka egileak") esker.

Puntu honetara iritsirik langileen ordezkari-

riek zioten ez zegoela ezer egiterik, ez zeukela indarririk, jendea (langileria) ez zegoela prest lantegi barruan inongo aldarrikapenarik gauzatzeko; eta modu honetan pasa dira egunak, asteak eta hilabeteak Funveran, duela egun gutxi berriro ere bertze hitzarmen bat sinatu den arte. Bi urtetarako (2013-2014) sinatu den hitzarmen berri honetan, aurrekotan bezala, ez da aipamen soil bat ere agertzen kaleratutako izan ginenei buruz; hamarkadetan lantegi horretan lan egin duten pertsonak ez dute, ageri denez, aipamen bat ere merezi. Horretarako ere ez al zegoen indarririk?

Baina enpresak, berriki, jornalaren jaitziera aipatu dioenean langileen ordezkariari, honen, enpresaren asmoari aurre egiteko, batzalerria deitu du bertako langileria eta bertan lan-eteteak eta greba egiteko ezin besteko beharra aurkeztu dio langileei, babes zabala jasoz langileen aldetik egindako bozketan. Hau dena ikusirik enpresak azkenean atzera egin behar izan du bere asmotan. Beraz, begi bistan dago, Funverako

langile batzordeak helburu batzuek lortzeko badakiela, nahi duenean, nola bereganatu langileria babesa eta languntza.

Zerbait egin nahi izatea edo ezer ez egin nahi izatea da hemen gaikoa. Baina eztabaidarik ametitzen ez duena eta inolaz ere onartu ez daitekeena da, langileen batzordeko osotasunak, hainbertze denboraz lankide izan diren/garen pertsonaz atzentea. Horrelako jarrera ikusirik; lotsagarria, tamalgarria, penagarria..., eta hagitz lodiagoak diren hitz pila bat iristen zaizkit behatzen lerro hauek idazterakoan.

Sinesgaitza baita, hura izan zen langileentzat Funverako historian gertatutako kasurik larriena eta ez da ezer gertatu ez balitz bezala, kaleratuak izan ginenak ez gara existitzen, denak atzendu dira guretaz, DE-NAK. Eta nik hemendik galdetzen dizuet, ELA eta LABeko jaunoi: ZERGATIK? Eta ez, jada ez du balio indar-eza berriro ere aitaki moduan erabiltzeko; ez, ez da indarra zuek falta duzuen baizik... tsa" kin bukatzen den bertze gauza bat.

**IRAKURLEAK MINTZO** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.net

Posta: Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA

Tel.: 948 63 54 58

Faxa: 948 63 54 57

ttipi-ttapa

aldizkaria etxera bidaltzea nahi baduzu,  
deitu telefono honetara:

(0034) 948 63 54 58 · www.ttipi.net

- Hego Euskal Herria 40€
- Europa 59,50€
- Baztan, Urdaizubi eta Malerriak 34€
- Amerika eta Australa 124€
- Iparr Euskal Herria 59,50€
- Leitza 17€





**Prentsatik bildutakoak**



«Mitologiak ematen digu aukera beste mundu bat imajinatze-ko (...). Gaur egun zientzia da gure mundua ulertzeko erantzunak ematen dizkiguna: norbait gaixotzen denean, eta arrazoa aurkitzen ez dutenean, birus bat izan dela esaten digute adibidez, eta lehen, euskal munduan, Inguma zela esaten zuten. Inguma behintzat, izen politagoa zen».

**Ixabel MILLET**  
Etxalarko historialaria  
ARGIA 2013.06.23

«Hogei urte baino gehiago daramazkigu bata bertzearen kontra jokatzeko eta Euskaleko azken partida ere elkarren kontra ariko gara [Ezkurrari]». «Hogeita bat urte arras politak izan dira neretako, arras ongi pasatu dut eta momentu ahaztezinak bizi izan ditut, lagun handiekin, baina erremontea uzteko tenorea ailegatu zait».

**Iñaki LIZASO**  
Doneztebeko erremontelaria  
D. NOTICIAS 2013.07.04

**11 galdera labur**

**Baserrria, lana edo bizitzeko era bat?**

Bizitzeko era bat.  
**Zer da zure egunerokoan gauzarik hobereena?**

Nere alabarekin pasatzen dudako denbora.

**Eta txarrena?**

Gauzez azidaren batekin bueltaka ibiltzea tokatzen zaidanean.

**Emakumea izanda zailagoa da baserriko bizimodua?**

Zailagoa ez dakit baina badire zenbait lan bakarrik ezin ditudanekin egin, orduan senarra eta attaren laguntzaz baliatzen naiz.

**Zer iruditzen zaizu gaur egungo krisia?**

Oso txarra eta ea lehenbailehen dena bere onera etortzen den.

**Krisiak eraginik badu zure arloan?**

Zerbait seguru baietz, baina gure arloa beti gaizki egon denez ohiuak gaude.

**Zer aldatu behar da nekazaritzan?**

Pentsuaren prezioa jeistea eta harragiak balio duena ordaintzea.

**Noizbait urrikitu zara etxean gelditu izanaz?**

Ezta pentsatu ere.  
**Duela urte bat ama izan zara,**

**aldatu zaizu pentsatzeko manera?**

Bai gure etxea aunitz bete du eta ikusten dut guk egindakoa berezako hor egongo dela.

**Zeri diozu beldurra?**

Eritasunei.

**Betetzeko amets bat?**

Nere gurasoak nerekin disfrutatu ez dutena gure alabarekin egitea eta haunditzen ikustea.



**Lurdes ARGAIN → Narbarteko nekazaria**

**sarobe**  
guztegia ohidagia

pr de estegara 25 bajo 31780 bera (navarra) 1.948 63 06 99 www.sarobe.net

**Karsuk**  
Muebles de cocina  
Meubles de cuisine  
Sukaldeko altzariak

**K**  
Karlos Pombar Sainz

C/Sara 1 bajo local C  
31780 Bera (Na)  
T/F +34 948 625 430  
M +34 699 884 084  
info@karsuk.eu  
www.karsuk.eu

**EDARIK**

**MANUEL TABERNA S.L.**

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)  
Tel. Fax: 948 63 10 27

**José I. Gonzalez Enguita**  
pinturak

barrikook eta fatxadak  
tel. 666 235 466

**Alberto RETEGI**  
abokatuak  
abokatuak

948 630 763 - Altzate, 17 - BERA

**okaNe**

HARATEGIA / URDAITEGIA  
guztegia ohidagia

Tel/Fax: 948 630 018 Kanitonberri 12 • BERA

## KULTURA

EUSKARA → EUSKOKULTUR FUNDAZIOAREN ESKUTIK

# Eskualdeko neska- mutikoak CD eta DVD baten grabaketan ari dira

Aralar Musika  
Eskolakoak,  
Elizondoko  
Abesbatza  
Ttikikoak eta  
Bortzirietako  
Bertso  
Eskolakoak

## TTIPI-TTAPA

Euskokultur Fundazioak haur txikiak dituzten familientzako proposa izanzen den materiala argitaratuko du. Euskarri multimediako materiala izanzen da, liburuaz, CDaz eta DVDaz osatua eta lan horien grabaketa lanetan ari dira eskualdeko neska-mutikoak ere.

Azken urteotan Nafarroako ondare ez materiala biltzen aritu da fundazioa, eta gure herrietan hainbat grabazio egin dituzte. Bildu duten materialaren artean hurrekin erabil-

tzeko kantuak, ipuinak, jolasak eta formulak daude, eta horrekin guztiarekin argitalpen hau prestatzea erabaki dute.

Hain zuzen ere CDaren grabaketan parte hartzen aritu dira eskualdeko hainbat neska-mutiko, Leitzakoak (Aralar Musika Eskola), Baztangoak (Elizondoko Abesbatza Ttikia) eta Bortzirietakoak (Bortzirietako Bertso Eskola). Irudietan ageri dira, estudioan, kantuak grabatzen. Uda pasa ondotik DVDaren grabaketan parte hartzeko elkartuko dira berriz ere.

Argitalpena urte akaberarako prest izanzen da eta salgai izanzen da ohiko tokietan.

## UTZITAKO ARGAZKIAK

Goitik beheiti, Bortzirietako bertso eskolako, Elizondoko Abesbatza Ttikiko eta Aralar Musika Eskolako leitzarrak, diskaren grabaketan.



  
**GASOLINDEGIA**  
 DENDA | OGIA | PRENTSA  
 Ordutegia: 06:00-22:00 egunero  
**URTE OSOAN IREKIA**  
 Zalain Industrialdea | BERA  
 948 630 249



**ETORRI eta ezagutu gure ESKAINTZA BEREZIAK**



# ELIZONDOKO

## BESTAK 2013

Uztailak 24, asteazkena  
BEZPERA

12:00 Txupinazoa eta Baztan-zopak Herriko plazan. Aukeratua izan den marrazkiaren egileak botako du txupinazoa: Maitane Goñik.

**Ondotik** Konpartsarekin itzulia herrian barna.

16:00 Haurrendako margoaldia eta merendua Plazan.

17:00 Haurren Herri Krosa.

18:00 Helduen Herri Krosa. Antolatzailea: Baztango Lasterketa Taldea.

19:30 Karrikadantza konpartsa, txistulariak, gaiteroak, txaranga...

20:00 Salbea Elizan.

**Ondotik** Karrikadantza.

20:30 Arratsaldeko txupinazoa eta txistorrada Plazan.

20:30 Munduko plateren dastaketa Plazan, jatorri aunitzetako jakiak, jatorri aunitzetako herritarrek eginak.

20:30 Dantza latinoak Plazan.

23:30 Dantzaldia Joxe Anjelekin Ziga Plazan.

23:30 Kontzertuak plazan:  
WilliDrumons + JuantxoSkalar +  
Tirri&Tery + Dj Piek.




**BAZTAN**  
Ferreteria  
Pintura | Kristalak | Tresneria  
Aroztegiko gauzak | Opariak  
Santiago, 79 - Industrialdea  
ELIZONDO • T. 948 580 423

ONGI PASA BESTAK

*Belzunegui*  
DESDE 1901

Jaime Urrutia 44 • ELIZONDO • Tel.: 948 580 056



**BICLAM**  
ileapaindegia  
ongi pasa bestak!  
Braulio Iriarte, 58 • ELIZONDO • T. 948 581 874

ongi pasa bestak



**BIDEGAIN**  
ARRAINDEGIA  
ELIZONDO • T. 948 580 496  
DONEZTEBE • T. 948 456 188



**ESKISAROI**  
JATETXEA  
ongi pasa bestak!  
T. 948 580 013  
Jaime Urrutia • ELIZONDO

Šuteia-zaldaij



instalazioak

IGOGAILUEN INSTALAZIOA  
AROTEGI METALIKOA

ONGI PASA BESTAK!

Santiago, 71  
31700 ELIZONDO | NAFARROA  
T. 948 580 166 | F. 948 452 557  
M. 619 424 999 | 649 699 820



**SALDIASKO**  
*olindegia*  
*egurrezko labea*



Olasoa etxea  
T. 948615046  
SALDIAS

**Malkorra**

Txokolata urrakin egina  
Tartak eta pastelak | Etxean egindako izozkia



Santiago, 15 | T. 948 580 061 | ELIZONDO  
www.malkorra.com

HARATEGIA • URDAITEGIA • ARRAINDEGIA

**Galarregi** 

Supermerkatua

Zerbitzu atsegina  
Aukera zabala edari eta likoreetan



Santiago, 12 • ELIZONDO • Tfnoa: 948 580 005

**MAÑONEA**  
**AGENTZIA**

aseguruak

ONGI PASA BESTAK!



Braulio Iriarte, 9  
ELIZONDO  
T. 948 581 132

**GENERALI**  
GROUP

**GOÑI**

harategia

ONGI PASA BESTAK

Mendinueta, 3 • ELIZONDO • T. 948 580 164

**Idoia ordea**  
KLOAPINDOIA

leopoldo | Mailaje zerbitzu | Kerdin tratamendu  
Buru garbitzeko aukak shatsu masaje saunarekin

T. 948 580 390 | Pozaburu, 9 beheko | ELIZONDO  
info@idoiaordea.com | www.idoiaordea.com



**ZER GALAN**   
aholkularitza

ONGI PASA BESTAK!

Baztanberri plaza, 6 - 31700 Elizondo - T. 948 581 300 - F. 948 580648  
Eliza kalea, 22 - 31740 Doneztebe - T. 948 450 395 - F. 948 451 304  
info@zergalan.es - www.zergalan.es

|   |   |  |
|---|---|--|
| <b>ZERBITZU FISKALAK</b>  | <b>KONTABILITATE ZERBITZUAK</b>   | <b>BERTZE ZERBITZUAK</b>   |
| <ul style="list-style-type: none"> <li>Aholkularitza fiskala</li> <li>Zerga agiriak</li> <li>Ereuta aitortpenak</li> <li>BEZ aitortpenak</li> <li>Sozietate zergak</li> <li>Zure negozioaren zergen kontrola</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>Kontabilitatean aholkularitza</li> <li>Enpresen erakitzea</li> <li>Kontabilitatearen eramatea</li> <li>Administrari zerbitzuak</li> <li>Merkataritza-erregistroan urteko kontuen aurkezpena</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>Jubilazioen eramatea</li> <li>Ezgarritasunen eramatea</li> <li>Lan eta erresidentzi baimenen eramatea</li> <li>Aita eta amatasun bajak</li> <li>Langabezi kapitalizazioak</li> <li>Diru - laguntzak</li> <li>Negozioen bideragarritasunen eramatea</li> </ul> |

ongi pasa bestak!

**Maite**  
**Petirena**

Aseguru agentzia - Agencia de seguros **Allianz** 

Tel. 948 452 394  
Saskaitz Plaza - 31700 Elizondo



**Baztango** 

FRUTAK eta BARAZKIAK  
FRUTAS y VERDURAS

Santiago, 47 (Ikastola parean)  
948 580 859  
ELIZONDO

ONGI PASA BESTAK!





# ELIZONDOKO BESTAK 2013

## Uztailak 25, ortzeguna SANTIAGO EGUNA

09:30 Argi soinuak 10:30 Karrikadantza 11:30 Meza Nagusia Elizan.  
12:30 Karrikadantza plazarat elizako ataritik. 12:30 Mutildantzak Plazan. 13:00 Luntx herrikoia Plazan. 13:30 Karrikadantza. 18:00 Haurrendako jokoak Baztanberrin. Antolatzailea: Herriko Gazteak. 19:00 Bonba japoniarrak Baztanberrin. 19:30 Bertso saioa Plazan. Bertsolariak: Julio Soto, Igor Elorza, Amets Artzallus, Agin Rezola eta Jone Uria. Ondotik Dantzaldia: Jalisko Band plazan. 21:00 Dantza herrikoiak Ziga Plazan 22:00 Mutildantzak 23:00 Su artifizialak. Jatandi pirotekniaren eskutik. 23:30 Migel Anjel y el Mariatxi de la Cantina Plazan 01:00 Dantzaldia: Jalisko Band plazan.



## Uztailak 26, ortzirela GAZTE EGUNA

09:30 Argi soinuak 10:00 Bizikleta martxa plazatik Beartzunera. 11:00 Erraldoi eta buruhaundien ibilaldia. 11:00-14:00 Puzgarriak igerilekuan 14:00 Kuadrillen bazkaria Baztandarreneko gorapetan 16:00 Haurrendako malabare tailerrak Ikastolako parkean Mal@abar-en eskutik. 17:00 Elizondoko IV. Mus Txapelketa Xalbador karrikan. Antolatzailea: Falfarak Elkarte. 18:00 Erreka jaitziera. Parte hartzaileek beren itsasontzia egin dezatela. 19:30 Baztan Zopak Txokoton. Pirrinek eskainiak. Ondotik Txaranga-poteoa elkarte elkarte. 20:30 Dantzaldia: Trikidantz plazan 21:00 Dantza herrikoiak Ziga Plazan 22:00 Mutildantzak 00:00 Dantzaldia: Trikidantz plazan.



**JAIMERENA PELUQUEROS**  
ongi pasa bestaki  
T. 948 581 273  
Santiago, 19 • ELIZONDO

**LA BAZTANESA S.A**  
ELIZONDO  
Teli/Faxa: 948 580 129  
IRUÑEA  
Tel: 948 222 223  
autobuses@labaztanesa.com

**Oskariz anaiak**  
ongi pasa bestaki!  
mota guzietako argin lanak  
Telefonoak: 948 452 255 - 619 406 388  
Maiderrereko etxea • ELIZONDO

**SOBRINO ostatua**  
ongi pasa bestaki!  
pintxoak bokotak plater konbinatuak  
Santiago • ELIZONDO  
948580823

**Gonzalez anaiak**  
aroztegi metalikoa  
Burdina eta aluminioa F. Joakin Inarte, 5  
Tfnoa: 948 580 337  
ELIZONDO

ongi pasa bestaki!  
**libreria nafarpress**  
liburudenda  
ESKATU ZURE TESTU LIBURUAK  
Jaime Urrutia, 43 • 948 580 902 • ELIZONDO

Santiago, 93 ELIZONDO  
T. 948 452 126  
info@honestolopez.com  
www.honestolopez.com

**H. LOPEZ**  
Erosketen finantzaketa

Ereforma integralak eta gremioen koordinazioa  
Aire girotua  
Gas, gasolio eta biomasazko galdara eta berogailuak  
Zeramika eta bainugelako altzarien salmenta  
Tximiniak  
Igerilekuen salmenta  
**ONGI PASA BESTAKI!**  
DIRULAGUNTZEN KUDEAKETA



# ALMACO BAZTAN GRUP GATTIA

besta  
ederrak  
pasatu!



Errepide nagusia, Elizondo

Tel: 948 580 104  
[www.almacobaztan.com](http://www.almacobaztan.com)

**POTTOKI**



Haurrendako  
behar duzun guztia



Baztanberri Plaza, 3 - behea | ELIZONDO  
T. 948 581 983 | [info@pottoki.com](mailto:info@pottoki.com) | [www.pottoki.com](http://www.pottoki.com)

**Zein polita den haurra izatea!!**



Pottoki Haurrendako behar duzun guztia



# ELIZONDOKO BESTAK 2013

## Uztailak 27, larunbata

### HAUR, AITATXI-AMATXI ETA PILOTAREN EGUNA

09:30 Argi soinuak Beartzunen 11:00 Erraldoi eta buruhandiekin ibilaldia.  
11:00 Tatxin ta Tatxan haurrendako antzerkia plazan 12:30 Recreo de Elizondo musika bandaren emanaldia Mariano Izeta plazan. Euria ari badu Arizkunean. 13:00 Aitaxi eta Amatxi guziendako bazkaria Francisco Joakin Iriarte adinekoen egoitzan. 14:00 Bazkaria Gaztetxean eta ondotik Kantautorea. 17:00 Erraldoialdia. 17:00 BEHIKK.COM. 17:00 Pilota partidak. Elizondoko III. Pilota Torneoko finala. Esku pilotan: OTXANDORENA- LINZOAIN / YOLDI- TABAR. Erremontean: URTASUN- OLAZAR / ENDIKA- ETXEBERRIA. 19:30 Txokolatada eta bonba japoniarrak plazan. 19:30 Bertso-poteoa Gaztetxetik hasita. Unai Muñoa, Iñigo Manzisidor *Mantxi* eta Kotte Plaza. 20:30 Haurrendako euskaraokea plazan. 21:00 Dantza herrikoiak Ziga Plazan. 22:00 Mutildantzak 04:00 Dantzaldia Gaubela taldearekin.



## Uztailak 28, igandea

### HERRIAREN EGUNA

09:30 Argi soinuak 11:00 Erraldoi eta buruhandien konpartsa. 11:00 Munduko XIV. Kanika Txapelketa eliza atarian 12:00 Puzgarriak eta Kars Laxoako Pilotalekuan 14:30 Zikiro jatea 16:00 Puzgarriak eta Kars Laxoako pilotalekuan 17:00-19:00 Zetreteria: Erakusketa eta ondotik ikuskizuna plazan. 19:00 Herri kirolak: Nafarroako III. Mailako Aizkora Txapelketako Finala. Iriarte Pilotalekuan Euskal Herriko Emakumezkoen Arpana Txapelketa. Euskal Herriko Gizonezkoen Arpana Txapelketa. Nafarroako Koxkor Biltze Txapelketa. Euria eginez gero Baztan pilotalekuan 21:00 Dantza herrikoiak Foruen Plazan 22:00 Mutildantzak 00:00 Gizajua Ni eta Kalejira 02:00 Kontzertua Ziga Plazan.



ONGI PASA BESTAK  
MENU BEREZIAK

Elizondo  
T. 948 58 18 20  
M. 626 53 24 52  
info@kortariXar.es  
www.kortariXar.es

Elizondo  
sagaridategia - sidreria  
kortariXar

## DATUCELAY

Ordenagailu bidezko direkzio zuzenketa  
Mekanika • Elektrizitatea  
Gasen aztertzailea • ITVrako prestakuntza

### IBILGAILU KLASE GUZTIEN KONPONKETA

ONGI PASA BESTAK

Santiago, 90 - ELIZONDO - Tel. 948 580 225

ONGI PASA  
BESTAK!

Gas, gasolio, egurra  
eta pellet galdaren  
zerbitzu teknikoa  
Marka guztiak

S.A.T. OFIZIALA:  
Euzkadi Barrio

**MG**  
mantenimientos  
**GORRITI**

Martxan jartzea  
Mantentze-kontratuak  
Konponketak | Ordezko piezak

M. 620 97 82 97  
Santiago, 93 - ELIZONDO

**BC** BALLARENA CONSTRUCCIONES, S.L.

ETXERIZITZEN ERABUNTZA ETA ERREFORMAK  
ITURBUNTZA, ELEKTRIZITATEA, KALEFAKZIOA, AIRE-EGONKITA

Santiago, 60 behea • ELIZONDO  
ballarenaconstrucciones@gmail.com  
Tel./Faxa: 948 452 395  
Mug.: 647 688 988 • 647 688 982



*Natura Elxea*  
OSASUN ZENTRO NATURALA

SENDABELARRAK  
PRODUKTU NATURALAK  
JANARI EKOLOGIKOA  
KOSMETIKA NATURALA  
MEDIKU KONSULTA  
PISU TERAPIA

Natura Elxea  
zuekin 1994a  
ezkerretik  
Elizondon

Santiago 47 | Elizondo | T. 948 580 203

**MARIA  
MILAGROS  
ELGEZUA**  
ABOHATUA

ONZI PASA BESTAKI

LANTEGIAN  
PARTHULARRAN

Jaime Urretia 29 - 1  
31700 ELIZONDO  
Tel eta Faxa: 948 452 570  
Mugikorra: 442 435 839  
melga@nema.com

**EMILIHENAIZ**  
URREGINE ORFEBRE  
ELIZONDO

Festak onzi pasat  
**M. BEREKOETXEA, 4**

**CITROËN** ONZI PASA BESTAKI

**SANSIÑENA** garajea

TAILER MEKANIKOA  
KOTXEEN SALMENTA ETA KONPONKETA  
ENGRASEAK  
ERABILITAKO NEKAZAL TRESNERIA  
AGRIA, NEW HOLLAND TRAKTOREAK  
ZERBITZU OFIZIALA:

**NEW HOLLAND** AGRICULTURE **AGRIA**

Santiago, 37 | ELIZONDO | 948 580 406

**ANZABAL**  
INMOBILIARIA

Santiago, 15 • ELIZONDO • T./F. 948 580 804  
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

- Zurich Aseguruak  
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza  
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala  
Errenta Deklarazioa, BEZA...
- Inmobiliaria  
Baserrri, berrak, pisu, etab... salmenta eta alokairua
- Gestoria

**ARKUPE**  
Gozotegia • Txokolategia

Elizondo - Tel. 948 452 393  
Iruña  
Tel. 948 452 021 - 948 580 059

ONZI PASA BESTAKI  
info@arkupegozotegia.com  
www.arkupegozotegia.com

**Albaitaritzza** Materiala Botika Hazia

www.albaitaritzza.com Tfnno.: 948 580 980

Osagarri mineralak  
Bildots eta aratxeendako esnea  
Xaboi eta desinfektatzaileak

**Albaitack** Zaldi eta zaldi-zaleentzako produktuak

www.albaitack.com Tfnno.: 948 506 169

**ALBAIKIDE** Tfnno.: 902 169 169  
www.albaikide.com  
Albaitari zerbitzua

**ferreteria**  
**Quevedo**

Babesa eta edertasuna guziaren gainetik

- Elektrizitatea
- Zerraildegia
- Erremintak
- Joareak
- Haziak...

**BONDEX**

Santiago 31 • ELIZONDO  
Tfnnoa: 948 580 234  
Faxa: 948 581 210

**J B Iturria**  
CONSTRUCCIONES

BESTA ZORIONTSUAK  
OPA DIZKIZUEGU

Gure bulego berrietan harrera  
egingo dizuegu  
Baztan Berri plaza, 2

Tfnno: 948 580 304  
info@jbiturria.com • www.jbiturria.com



# ELIZONDOKO

## BESTAK 2013

Miguel IPARRAGIRRE | Akordeoilaria

## «Musika Eskolako lana baino gehiago gustuko gauza bat bezala hartzen dut»

Sortez aranztarra da Miguel Iparragirre, baina aspaldiko urteotan Elizondon bizi da, 34 urtez zehazki. Elizondon, Baztanen eta kanpoan ere, zerbaitegatik ezaguna baldin bada, akordeoilari gisa edo akordeoi irakasle urte saila daramatzalako da. Izan ere, Miguel izan zen 1980an Elizondon akademia sortu eta solfeoa eta akordeoia erakusten hasi zena, eta handik zazpi urtera, Baztango Musika Eskola sortu zenean, Musika Eskolan segitu zuen irakasle. Han dabil oraindik ere. Urte hauetan 300 ikasle inguru edukiko zituela erran digu. Aurten, gainera, Musika Eskolak 25 urte bete ditu eta horren harira, maiatzaren 25ean akordeoi taldeak kontzertua eskaini zuen Elizondon. Miguelek zuzendu zuen saioa, 60 ikasle eta ikasle ohi baino gehiago aitzinean zituela. Eta ikasle horiek izan ziren kontzertu ondotik omenaldia eskaini ziotenak, ordu batzuk lehenago ateratako argazkia opari emanez: «**Ez nekien deus ere eta hagitz ezusteko polita izandu zen**», kontatu digu.



ARGAZKIA: ONDIKOL

Miguel Iparragirre akordeoilaria.

Musikarako afizioa aspaldikoa du Miguelek: «**gure ama zenaren aldetik etorriko zitzaidan. Gure osaba batek afizio handia zuen, txistu bat berak egin eta hura jotzen ibiltzen zen. Gure amak, berriz, ahoko soinua jotzen zuen**». Aitortu digunez, «**amaren despiste aldietan bere ahoko soinua hartu eta hura jotzen aritzen nintzen**». Gerora, berea erosi omen zioten. Akordeoia ere ttikitatik ezagutu zuen: «**Arantzan akordeoilari aunitz baziren eta igande arratsaldetan jotzen zuten. Beti akordeoilarien ondoan egoten nintzen haiei begira**». Laster hasi zen bera ere akordeoia jotzen: «**13 urterekin solfeoa ikasten hasi nintzen Arantzan, Martin Ibarrolarekin. Gero Irunera joan nintzen eta Joxe Mari Irazoki lesakarrarekin akordeoia eta solfeoa ikasten aritu nintzen. Handik Donostiara joan nintzen eta Pepe Andoainekin akordeoia ikasten ibili nintzen**». Ikasketak bukatu eta titulua ateratzeko, berriz, Donostiako kontserbatorioan sartu zen.

Herriz-herriz akordeoia jotzen ere gazterik hasi zen: «**gauza izandu nintzen bezain abudo**», dio. «**8-10 kanta plantatu nituenerako hasi nintzen Arantzan tarteka plazan jotzen eta herriatik kanpora 16-17 urterekin**». Hala, 20 bat urtez besta, ezkontza, komunio, inauteri eta gisako ospakizunetan ibili zen, 1990. urtean uztea erabaki zuen arte. Gerora, urte batzuz Lesakako Beti Jai orkestran ere ibili omen zen, baina taldea desegin zenean utzi zuen. Bistakoa da akordeoia zerbaite berezia dela Migueleentzat eta halaxe onartu digu: «**niretzat bizia da. Akordeoirik edo musikarik gabe, ez dut ikusten nire burua**». Gustuko akordeoilari baduen galdetuta, berriz, «**onak aunitz badirela**» uste du, baina bat erratekotan Enrique Ze-laia aipatu digu: «**gure denboran gure idoloa zen**».

Musika alde batera utzita, bertzelako afiziorik baduen ere jakin nahi izan dugu. «**Ehiza, arrantzaz, ondoetan ibili, mendian ibili...**». Baina erran digunez, goizeko lana dela, eta arratsaldetan Musika Eskolan irakasle ibilita, ez du denbora libre aunitzik izaten. Hala ere, gustuko tokian maldarik ez: «**Musika Eskolako lana baino gehiago gustuko gauza bat bezala hartzen dut. Orduak konturatu gabe pasatzen zaizkit**».

Udan oporrak ditu Musika Eskolan, baina aspaldiko urteetan bezala, aurtengo Baztandarren Biltzarrean ez du hutsik egiten Miguelek, akordeoi taldearekin desfilean parte hartuko baitu. Elizondoko bestetan ere joko du. «**Normalean bestetan ez dugu jotzen, baina aurten Musika Eskolak 25 urte bete dituenaz, Elizondoko Bandak emanen duen kontzertuan Musika Eskolako irakasleoi parte hartzeko aukera eman digute, eta han joko dut**». Bertzela ere, urtero santioetan hutsik egiten ez duen ekitaldia omen da Bandaren emanaldia, baina aurtengoan badakigu entzule ez ezik, hain maite duen musika-tresna jotzeko aukera ere izanen duela.

**elicetxe**  
suministros electricos

material elektrikoak

ongi pasa bestak!

Tel: 948 581 261 - Faxa: 948 452 387  
Santiago, 83 (Industrialdea) - ELIZONDO

**hiru**  
ostatua — betikua  
baino ezberdina

ETXERA ERAMATEKO ERE!

Kaxulak, plater konbinatuak, bokatak, pizzak, hamburgesak, ensalada desberdinak, fritoak...  
Etorri eta gure bereitasunak dastatu  
Bastidatik ekarritako ardoak: Montebuena, Solagilen, Ardo beltz ondua eta Solagilen biura  
Zapore ezberdineko infusioak  
Eskoziar eta Irlandar kafeak

ONGI PASA BESTAK

T 948 581 219 | Baztan Berri 78 | ELIZONDO

**AXULAR**

Fotokopiak, faxa, enkuadernazioak, plastifikazioak, aldizkariak, prentsa, tabakoak eta testu liburuak ekartzen dira enkarguz

Santiago • ELIZONDO • T: 948 581 507

Santiago, 43 - ELIZONDO  
Tel. 948 581 442

**EGUZKI-ALDE**

EGUNEKO MENUA

ONGI PASA BESTAK!

**GOIZALDE**  
ostatua

Jaime Urrutia, 8 - ELIZONDO  
Tel. 948 581334



**Beatriz**  
ongizale zentrua  
centro de bienestar

- PRODUKTU NATURALAK
- PRODUKTU BIOLOGIKOAK
- GORPUTZ AZTERKETA
- ALERGIEN AZTERKETA
- TERAPIA ALTERNATIBOAK
- NATUROPATIA
- SHIATSU
- REFLEXOLOGIA
- BACH LOREAK
- ELIKAGAIEN AZTERKETA
- LARRU-AZAL AZTERKETA

T 948 580 283  
Santiago 53 - 31700 Elizondo  
info@beatrizbienestar.com  
www.beatrizbienestar.com



**PROMOZIO BEREZIAK**

**23 URTEKO ESPERIENTZIA**



**esarte**

Santiago 83 B bajo  
31700 Elizondo  
T 948 581 907  
www.precocinadosesarte.com



**ttipi-ttapa**

- Hego Euskal Herria 2€
- Europa 59,50€
- Baztan, Urdazubi eta Maierreka 34€
- Amerika eta Australia 124€
- Ipar Euskal Herria 59,50€
- Leitza 17€



Koskontako bidea, 7 - 1 | 31770 LESAKA | 948 635 458 | www.ttipi.net | info@ttipi.net



**GABRIEL LABORRA**  
arkitektoa  
www.laborra.com  
923900 - Santiago, 14 - 1. | 94.948.300.132

**arteka**  
arkitekturen enpresakidea  
Tel. 948 581 907  
Fax 948 581 908  
info@artekabestak.com  
www.artekabestak.com

**ONGI PASA BESTAKI!**

TTIPI-TTAPA  
ALDIZKARIA  
SARE SOZIALEAN

**facebook**

www.facebook.com/ttipi.ttapa

**EGIN ZAITEZ GURE LAGUN**




**linoplaza arkitektura**

*besta zoriontsuak opa dizkizuegu!*

lino plaza y asociados, s.l.p. | jaimo urutia 36 - 31700 elizondo (nafarroa) | tel. 948 58 18 02 | fax. 948 58 14 12 | e-mail. info@linoplaza.com | web. www.linoplaza.com



# ELIZONDOKO BESTAK 2013

Iñaki Atxa | Programaren azal lehiaketako irabazlea

## «Kaleak bizitzaz beterik ikustea da Santioek uzten diguten argazkirik ederrena»

Elkar hartutako bi zapi, bestaren iragarle eta aldarrikapen ttiki bihurtu ditu Iñaki Atxa elizondarrak, azaldu nahian **«bestak herritarren artean ongi pasteko direla eta ez ika-mikaka aritzeko»**. Loturak estutuz izenburua eman dio lanari eta azpimarratu nahi izan du **«bakoitzak bertzeekiko dituen pentsamentu ezberdinak alde batera utzi eta urteko bortz egun hauetan behinik behin, herri bat garela erakustea beharrezkoa dela, gero izango dugu lana gainontzeko 360 egunetan bide hone-tatik segitzen»**.

Santiotan **«lanpetuta»** ibiliko da, Xaloa telebistako kamera sorbaldan hartuta, ekitaldiz ekitaldi ibili beharko baitu grabaketa lanetan. Makina bat une berexi harrapatu izan ditu eta bere ustez orokorrean, kameraren gibebeko aldetik begiratuta

**«kaleak bizitzaz beterik ikustea da Santioek uzten duten argazkirik ederrena»**. Herriko Etxeko kargodun ere badenez, **«antolakuntzan ere burubelarri»** aritu beharko du, bai besten aurretik eta baita bestetan ere. Hori bai, lanaz gain **«besta pittet egiteko denbora»** ere hartuko omen du **«kontzerturen bat ikusi eta aitzakia horrekin parranda eginen dut»**. Bestetako egunik gustokoenaz galdetuta, **«gazte egunaz»** hitz egiten du **«goizetik goizaldera arte besta ederra izaten baita»**.

Besten ondotik **«bestondoak»** ez duela hutsik egiten aitortu digu. Gero, irailera arte lana egin beharko du eta bukatutakoan **«furgoneta hartu eta azkenaldian ageri ez den eguzkiaren bila oporretara»** ihes egingen omen du. Berarekin eramanen du argazki kamera, duela urte pare bat hasitako afizioari segika. Kliik bakoitzarekin **«natura argazkietan isladatzen saiatzen naiz»** dio. Gustoko dituen bi afizio elkartu ditu horrela, bata berria eta bertzea berriz **«ttikitatik»** datorkiona. **«Gurasoek erakutsi didate umetatik natura maitatu eta errespetatzen»** azaldu digu. **«Familiarekin, batez ere udan, mendira egun pasa joateko ohitura izan dugu eta interes berezi hau horren ondorio izango ote den»** uste du. Argazkigintzarako afizioa berriz berria dela azaldu digu **«Ander Olaizolak Arizkunenean zuen erakusketa batera joan nintzen erreportaje bat egitera. Naturako paisaia eta animalia basatien argazkiak zeuden ikusgai. Argazki haiek liluraturata utzi ninduten»**. Geroztik, burutan ibili omen zuen argazki kamera bat erosteko ideia eta azkenean, **«nahiz eta urte batzuk pasa erakusketa hartatik, duela urte pare bat amets hori betetzea erabaki nuen. Erraten ahal dut berak inspiratu ninduela»**. Geroztik hain gustoko duen Aritzakun ingurua makinatan ikusi du kamerako objektotik eta xori eta animalia berexie ere hamaika argazki ateratakoa da. Baina, basa animaletaz ari garenez, ez dela horren erraza gaineratzen du **«argazki guztiek dute lana atzetik»** esan digu, baina **«beharbada gehien kostatzen zaidan hegaztia Okil haundia izan da»**. Pazientzia ere behar omen da **«aunitz gainera, une zehatza harrapatzeko orduak eraman ditzakezu esperoan»**. Azken aldian, **«zoritarrez denbora libre gehiago dut Nafar Gobernuari esker»** aipatu digu. **«Azken urteetan, darabilen euskararen aurkako politika dela eta diru laguntzarik gabe utzi gaituztenez, Xaloa telebistako langileak lanaldi erdiko ERE batean baikaude»**. Aspaldian burutan duen argazki bat lortzeko probestuko du agian denbora libre hori, **«Pirinioetako hartz bati argazki bat ateratzea gustatuko litzaidake»**. Ez dakigu oporretan topatuko ote duen bila dabilen argazkia. Ziur ez zaiola hainbeste kostako, Elizondoko bestetan Xaloko kameratik espezie bitxiren bat aurrez aurre ikustea.



ARGAZKIA: IÑAKI ATXA  
Iñaki Atxa, lehiaketan saritutako irudiarekin.

ONEZ PASA BESTAK

# Kris

*ilepaindegia*

Giltzarri, 14 • ELIZONDO • 948 580 025

ONGI PASA BESTAK

Instalazio  
elektrikoak

Konponketak

**ANGEL TRANTXE**  
ELEKTRIZISTA

T. 948 452 246 | M. 679 454 113 | ELIZONDO

HARATEGIA URDAITEGIA

ETXeko ARATZEAK

# ZAMAiL

GANADERIA PROPIA

ONEZ PASA BESTAK

Santiago, 56B - behea • ELIZONDO • T. 948 452 486

homeopatía

KONTSULTA BERRIA ELIZONDO

JUAN MARTIN-BALLESTERO  
Mediku Homeopata

Tfnoa: 633 767 609 • Santiago, 58 behea • Elizondo

HOMEOPATIA 200 urte baino gehiago dituen medikuntza naturala da.

Bere tratamendua pertsonaren indibidualtasunean oinarritzen da, bakoitzari dagokion botika emanez.

Organismoari osasuna berreskuratzen laguntzen da. Haurtzaroen, adinari dagokion gaixotasunak tratatzeaz gain, berri ere ez eritzeko mekanismo naturalak ematen ditu.

Helduen kasuan, homeopatiak hainbat gaixotasun senda ditzake, medikuntza tradizionalak sintomak hobetzea lortzen duen lekuan, eta era berean, luze ematen duten gaixotasun kronikoak arintzen ditu.



# ELGORRIAGAKO

## BESTAK 2013

Uztailak 24, asteazkena

- 17:00 Estitxu ipuin kontalaria
- 18:00 Herri Lasterketa Elgorriagako haurrentzat
- 20:00 Txupinazoa eta kalejira trikitalariek
- 21:00 Zopak
- 00:00/03:30 Dantzaldia Santxotenarekin

Uztailak 25, ortzeguna SANTIAGO EGUNA

- 10:00 Argi soinuak
- 11:00 Meza Santiago apostoluaren omenez
- 12:00 Dantzari ttikien saioa
- 13:00 Bazkal aurreko aperitiboa
- 18:00 Tor magoaren saioa
- 20:00 Patata tortilla lehiaketa
- Arratsaldez - Gaez dantzaldia Vicenterekin

Uztailak 26, ortziralra HAURREN EGUNA

- 10:00 Argi soinuak
- 10:15 Haurrentzat puzgarriak eta jokoak
- 14:00 Haurrentzat bazkaria
- 16:00 Mus txapelketa (Bikote bakoitzetik batek bederen Elgorriagakoa behar du izan)
- 16:00 Haurrentzat jokoak
- 20:00 Merendu-afaria herritar guztientzat
- Arratsaldez - Gaez dantzaldia Agerralderekin

Uztailak 27, larunbata HERRITARREN EGUNA

- 10:00 Argi soinuak
- 12:00 Toka txapelketa
- 14:00 Bazkaria, zikiro jatea, Santxotena akordeoilariak alaitua
- 21:00 Afarria
- Gaez dantzaldia Aierrik taldearekin
- 04:00 Gaixoa ni!





UDALA → EKAINAREN 18KO BATZARREAN

## Hildakoen oroigarriak mendietan paratzeko araudia onartu dute

Zuhaitzak bakarrik landa daitezke hemendik aitzinera

Honela, lehenik Herriko Etxeari idatziz eskaria igorri beharko zaio eta Udalak baimena eman ahal izanen du zehaztutako kokapen batean bertako zuhaitza landatzeko, beti ere, paisaian eragin kaltegarriarik sortu gabe. Ezin izanen dira gurutze, xaflak oroitarrak edo gisako elementuak erabili, hauek hilerrira mugatuko baitira.

Aralar, PNV eta UPNren aldeko botuekin onartu zen araudi berria eta Bildu abstentitu egin zen.

### TTIPI-TTAPA

Azkeneko urteotan hildakoen oroimenez mendietan zabaltzen ari diren oroitarrak, xaflak eta gisakoak nonahi agertzen ari direla ikusita, Udalak gaia arautzeko beharra ikusi du, mendia zaintzeko lehen-tasuna paratuz.

BESTAK → BEDERATZI LAN AURKEZTU DITUZTE

## Argi Agarak irabazi du kartel lehiaketa

171 lagunek parte hartu dute bozketan



baletaren Bera: Plazako giro erraldoia izanen da (bozen %18). 9 lan aurkeztu dituzte eta 171 lagunek parte hartu dute bozketan. Irabazleak 400 euroko saria jasoko du.

### TTIPI-TTAPA

Herri bozketaren ondotik, bestak iragarriki dituen kartela eta programako azala eta kontrazala aukeratu dituzte. Kartel irabazlea (programaren azalean ere agertuko da) Argi Agara Salaberriren *Besta girua* da, bozen %26 jaso ondotik. Kontrazaleko irudia, berriz, Mikel Telletxea Za-



UTZITAKO ARGAZKIA

### Puntoaren Nazioarteko Eguna ospatu dute

Puntoaren Nazioarteko Eguna ospatzeko trikota eta punta egitera karrakara atera ziren ekainaren 27an. Beralandeta inguruan bildu zen emakume taldea punto eta trikota eskulanak erakustera eta horretaz gain, Beralandeta aitzineko zuhaitzak eta bankua puntotz egindako estalkiekin goxatzera. Azkeneko lau urteotan trikota eta punta egitera bildu den talde honetan 25 emakume izatera ere ailegatu dira eta bufandak, haurrendako arropak, koltzak eta bertzelako eskulanak egin dituzte. Hasiera batean Lixoia ostatuan biltzen ziren, baina azken aldian Beralandetan hartu dute aterpe. Ikasturte bukaera ospatzeko, Beralandeta aitzineko zuhaitzak eta bankua bere artelanekin estali zituzten, puntoaren "patchword" antzeko bat eginez. Polita eta hagitz originala.



UTZITAKO ARGAZKIA

### San Jose Zahar Etxekoak Martiko bisitatzen

Ez dira ez medikuntzan lizentziatuak! San Jose Zahar etxeko bizilagunak udako irteeren gosez zeuden, baina eguraldiak ez zuen gehiagi laguntzen. Halere, ekainaren 26an, nora eta Martikoko instalazioak ikustera egin dute irteera. Irri ederrak egin zituzten traje, xapel eta patukoak jartzen... bakoitza non jarri behar zen jakitearekin nahiko lan. Bertan ikusi, ikasi eta emandako guztiagatik Martiko familiari bihotzez eskertu nahi diete lerro hauen bidez, «ohartzen bait-kara esfurtzua handia dela».

**JAKITZE - GOZOTEKIA**  
948 630 786  
Altzale. 19 - BERA

**BAR BOTXO OSTATUA**  
Zelai - BERA - 948 630 052

**LABEZAR**  
Tel: 948 631 076 - BERA

**MARITX**  
Legia, 23-BERA  
T. (0034) 636 617 450  
Erakusketa, Proiektu eta Instalazio Elektrikoak

# LESAKA

KONTZERTUAK → 15 URTE ZUZENDARITZAN

## Mikel Iriarte zuzendaria omendu du Musika Bandak

2007an hildako mendizaleen omenez Biribilketa konposatu du Egoitz Telletxea musikariak

**Aitor AROTZENA**

LesakAntuz kontzertu hunkigarria eskaini zuten ekainaren 28an Musika Bandak. Guzira 75 lagun igo ziren oholtzara eta Eskol Ttikiko aparkalekura hurbildu zen jendetzak ere izan zuen abesteko aukera.

Berez hunkigarria izan zen emanaldiak goia jo zuen bukaera aldera. Lehenik, Egoitz Telletxea bandakideak, 2007an mendian hildako Unai Etxepare eta Xabier Saralegi lesakarren eta Loro Pikabea eta Xabier Zubieta beratarren omenez konposatutako "Mendian gora" Biribilketa jo zuen bandak eta gero, Mikel Iriarte zuzendariari eskainitako pieza jo. Izan ere, 15 urte bete ditu zuzendari lanean eta hori eskertzeko, musikaz gain, espreski prestatutako bertsoak kantatu zizkieten Tomas Rekondok eta Marisol Perezek. Gainera, zu-

zendari makila ere oparitu zioten Iriarteri, azken pieza zuzentzeko.

### Trikitixa txapelketa

Hogei bikote aritu ziren ekainaren 30ean Trikitixa taldeak, udalaren laguntzaz antolatutako Baztan-Bidasoaldeko XVI. Trikitixa txapelketan.

12 urte artekoen kategorian bederatz bi-kote lehiatu ziren. Lesakako Mattin Lopez eta Ane Renaud izan ziren irabazleak, Lesakako Amaia Taberna eta Olaia Urdangarin bigarren eta Igantziko Aiala Mitxeko eta Maren Etxenike hirugarren.

13-16 urte artekoen mailan, sei bikote aritu ziren. Igantziko Maria Yanci eta Lesakako Olaia Otxotekok irabazi zuten lehen saria, Lesakako Amaia Lasaga eta Josune Ramirezek bigarrena eta Etxalarko Ainhoa Telletxea eta Berako Katti Irastortzak hirugarrena.

16 urtetik goitikoen gazteen kategorian borts bikote lehiatu ziren. Lehen saria Orioko Julen Alonso eta Zarausko Eneritz Aulestiarrentzat izan zen eta bigarrena, Etxalarko Itsaso eta Irune Elizagoiari ahizpentzat.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

### 100 urteko Cristina Maiak piztu du San Juan bezperako sua

San Juan bezperarako ekitaldia burutu du aurten ere Euskara Batzordeak, *Lesaka euskararen arnagune* goiburupean. Hainbat ekitaldi izan ziren egun osoan, baina azpimarratzekoa da San Juan bezperako sua, joan den abenduaren 15ean 100 urte bete zituen Cristina Maia Bergarak piztu zuela. *Lesakako mairu eta kristauen besta* bisita gidatua egin zen Rafael Eneterrearekin, txistulariek lagunduta. Ondotik, haurrentzako jolasak izan ziren eta ekitaldi nagusian, txalaparta, bertsoak, kantuak eta dantzak izan ziren.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

### La Macarena auzoarekin senidetu dira Zarandiako bestetan

Urteko besta egitarauan, San Ferminen aitzineko asteburuan lekua egiten ari dira Zarandia auzoko bestak. Zarandionen jautsieraz edo auzoetako *alkateei* egindako harreraz gain, aurten La Macarena auzoarekin senidetu dira eta hortaz, Andaluziako jantziak, kantuak eta dantzak, Intzara peregrinazioa, Sevillana autogestionatuak, patio andaluzaren inaugurazioa, entzierroa edo *El Encendido* bezalako ekitaldiak izan dira umorez osatutako programan.

**XATURETXEA**  
JATETXEA  
T: 948 637 260 · LESAKA

**IRU BIDE**  
Erelogia - Auzoak  
Biltegia 3 - Lesaka  
Tel: 948 637 127

Lentzena  
Bamuntzak  
Mertzena  
Jantzi tipikoak  
Petan blazak  
**kaltogorria**  
Behoko plaza 10 31770 Lesaka  
T. 948 627 514

**BIDASOA**  
TERLOAR - PERTSEANAK  
ESTORBEAK - ALTUMAYETSEANAK  
MOGUTTERAK - BERNINPELUTA  
T.F. 659 971 442  
BERA

**ANANDORREA, s.l.**  
BILTEGIA 948 630 102  
FAUSTINO 647 810 152  
Bidasoa, 76 - etea 21-22  
31780 BERA



GIZARTEA → EKAINEAN EGIN DIRA EKITALDIAK

## Hamargarren urteurrena ospatu du Kultur Etxeak

### Lau egunez ospatu dute

#### Irune eta Itsaso

Ekain erdialdean Kultur Etxeko X. urteurrena ospatzeko antolatutako ekitaldiak arrakastatsuak izan ziren. Lau egunetan banatu ziren eta denetara jende franko hurbildu zen. Ekitaldiz osatuena zegoen azken egunera hurbildu zen jende gehiena. Ospakizun ekitaldi hauek antolatzerakoan planteatu ziren bi helburuak bete ziren. Kultur

etxeko hamargarren urteurrena ospatu eta herritarrek ekitaldietara hurbiltzea lortu baitzen. Hori lortu ahal izateko, oinarritzkoa izan da herritarren laguntza. Horregatik eskerrak eman dizkiete Landagain eskolako maisu eta ikasleei bere saioarengatik, Itziar Mendikoa eta haur taldeari egindako muralarengatik, Juan Luis Garikano eta Ainhoa Berruetari eskainitako proiektioarengatik eta Elizagoien ahizpei luntxa bere musikarekin alaitzearengatik.



ARGAZKIAK: JABIER IRIARTE

Murala egin zuen taldea eta eskolako ikasle eta irakasleak kantari, urteurreneko saioan.

#### Santxin txapeldun

Ekainaren 30ean Uhartan jokatu zen Nafarroako Herri Kirol Federazioak antolaturiko Herri Kirol Torneoaren azken jardunaldia. Xabier Ariztegi izan zen

harri jasotzen txapeldu-na 3.375 kilo altxatuta. Zilindroari 11, kubikoari 8 eta bolari 11 altxaldi eman zizkion. Xabier Igoa gelditu zen bigarren postuan, 2.600 kilo altxatuta.

#### Mintzaldia Larraburuan


Uztailaren 13an, 18:30ean Mirentxu Goienetxeren eskutik Zaintzailearen Ardurak mintzaldi irekia izanen da Larraburuan.



ARGAZKIAK: MARI JOSE IRAZOKI ETA IZARO IRIBARREN

#### Trikitixa eskolakoak Zubirin eta Lesakan

Herriko 13 trikitilari eta panderista joan ziren ekainaren 22an Lesakako trikitixa eskolakoekin Zubirin ospatu zen lehenengo trikitixa topaketara. Goiza Esteribarko karrikak alaitzen pasa zuten eta Zubirin bazkaldu ondotik arratsaldean musikarekin gozatzeko aukera izan zuten. Ekainaren 30ean, berriz, Baztan, Mallerreka, Bidasoako XVI. Trikitixa txapelketa ospatu zen Lesakan. Etxalarko 7 bikotek parte hartu zuten. Igone Arozena eta Janire Telletxea, Uxue Iturria eta Leire Iribarren eta Olaia Iturria eta Maria Martin ttikien kategorian; Martxel Larraza eta Aimar Iparragirre, Ainhoa Telletxea eta Katti Irastorza eta Eduarda Gomes eta Raphaela Gomes ertainen kategorian eta Itsaso eta Irune Elizagoien gazteen kategorian. Denek garaikurra eta dieta jaso bazuten ere, Ainhoa Telletxea eta Katti Irastorzak hirugarren postua lortu zuten beraien kategorian eta Itsaso eta Irune Elizagoienek bigarren postua gazteen kategorian.



ARGAZKIA: KARMELE INDABURU  
Ekainaren 22an Altxatak antolatutako San Juan suaren inguruko besta hagitx arrakastatsua izan zen. 100 lagun inguru hurbildu ziren frontoian afaltzera eta ondotik trikitilariak girotuta 2 ordu inguruz suaren gainetik saltoka ibiltzeko aukera izan zen.

**zalain**  
JATETxea, RESTAURANTE

Zalain auzoa z/g  
31780 Bera  
t. 948 631 106  
w. www.zalain.com

**zalain**

948 631 218  
Kanttonberrri 1, BERA  
BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA

## KATEA-BIKE

**ZUBIONDO**  
Jatetxea

agardotegia jatetxea

Alasta karrika  
BERA NAFARROA

Tel. 948 625 474

**IMANOL ITURRIA**  
ZURGINA

Enpresa eta partikular

T. 661 577 137  
E-posta: imaiturria@hotmail.com

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

# ARANTZA

GIZARTEA → BESTA UGARI ANTOLATU DITUZTE

## Ospakizunez blai heldu da uda

Uztailaren 27an Ballekasko bestak, Amabirjinak eta abuztuaren 24ko Arantza Rock

### Nerea ALTZURI

Udan sartu berriak gara. Udaberria, aroaren aldetik ez da sobera luzitu... ikusiko dugu urte sasoi honek nola jarraitzen duen. Ea, kanpoko giroa gailentzen den eta eguraldi ederrean hornituriko hilabeteak izaten ditugun! Momentua bizi behar denez... eta heldu dena hartu, besta giroak ez du hutsik egiten gure herrian.

Behoko Pisutako bizilagunek uztailaren 27rako besta eguna iragarri dute. Egitarauan izanen direnak oraingoan ezin eman, ez dirrelako zehaztuak. Hurrengo alean, ordea, egunean zehar izanen dena kontatuko dugu.

Bertzetik, herriko besten osteko hitzordua, Arantza Rock 2013rekin izanen da. Datorren abuztuaren 24an jarri dute data. Zein musika taldek parte hartuko duten oraindik ez da segurua... beraz, ea hurrengoan ematen diguten berri hori. Jakin duguna da, Gazte Asanbladako hamabortz lagun gogotsu antolaketa lanetan ari direla.

### Ezusteia oporraldian

Berria mundu osora hedatu zen eta tira, herrian ere solasak eragin zituen. Ez da guttigorako. Aurtengo San Juan inguruak ikara ederra sortarazi die herriko nahiz inguruko hirurogei gizaseme eta emakumei.

Ekainaren 23an, igande arratsean, itsas bidaia edo kruzero bat egitera joanak ziren eta Rávena eta Venecia arteko uretan, oporraldia abiatu eta ordu guttitarra, bederatzik egunetako egonaldia eten be-



UTZITAKO ARGAZKIA

### Hemen da AEKko barnetegiko ikasleen lehen txanda

AEK-k aspaldiko urteetan barnetegiak antolatzen ditu herrian. Aterpean, udako bi hilabeteetan lau barnetegi izanen dira. Eskolan, goiz arratsaldez klaseak izaten dituzte eta lo eta otorduak berriz aterpean egiten dituzte. Goizeko eskolak akautu aitzinetik argazkitxo bat eskatu eta fin fin atera digu lehendabizko hamabortzaldiko taldeak. Uztailaren 1az geroztik 24 lagun daude barnetegian, hogeii ikasle eta lau irakasle. Udaro bezala, herrian ere bizitasuna nabari da.



ARGAZKIA: NEREA ALTZURI

### Hamabi haur udalekuetan

Bederatzik izena eman bazuten ere, azkenean, hamabi haur ari dira udaleku irekietan parte hartzen. Itxaro Etxague eta Ana Isabel Telletxea bertako begiraleekin uztaileko goizak pasatuko dituzte.

har izan zuten. Itsasontziko makinaren gelan sute bat izan zen. Momentu ilunak pasatu arren,

zorionez, bertan zihozten bi milatik gora bidaiari eta langileak onik atera ziren.

Eskualdeko bidaiari taldean, hamar aranztar zeuden. Zorionez dena susto batean gelditu da.

**NET2**

**EZ ZAITEZ DESKONEKTATUA SENTITU!**  
INTERNETA PREZIO MERKEAN! 20MBko abiadura konexio guztietan!

**Lizardi**  
TELEKOMUNIKAZIOAK

kontratatu gure konexioa  
**51€ ordainduz!**  
eta nabigatu **33,95€**tik hasita

Galdetu ere,  
**Internetet bidezko telefoniaz**  
Bisitatu [www.net2.es](http://www.net2.es)

BERA | tel.: 670 415 720  
lizarditeleko@gmail.com

**RENAULT**

**BERAUTO**  
tailerra

ttipi txartela

**%5eko**  
DESKONTUA  
errekabioetan



OSPAKIZUNAK → HERRIKO BESTAK PRESTATZEN

## San Migeletako programarako azal lehiaketa deitu du Udalak

Uztailaren 18an bukatuko da lanak aurkezteko epea

### TTIPI-TTAPA

San Migel bestak prestatzen hasia da udala eta hori iragarriko duen programaren azal lehiaketa deitu du, Igantzin jaio edota bizi direnentzat. Marraskiz edo argazkiz eginak aurkezten ahal dira, 27x19 cm.ko formatuan. Lanak aurkezteko epea uztailaren 18an bukatuko da eta saritutako azalaren egileak 150 euroko saria eskuratuko du.

### Etxeen errotuluak eskatzeko epea luzatu dute

Ekainean etxe guztietara bidalitako eskutitzean, herritarrei adierazi zieten ekainaren 28ra arteko epeazutela etxerako errotulua eskatzeko. Tarte horretan 100 eskaera inguru bildu dira herriko etxean. Halere, tartean uda delako eta zenbait kontu luzatuko direlako, udalak eta euskara batzordeak erabaki dute epe hori zabaltea. Beraz, oraindik errotulua eskatu ez dutenek aukera dute abuztuaren 31ra arte eskaerak egiteko.



UTZITAKO ARGAZKIAK

### Beñat Txoperenaren denboraldiko lehen garaipena

Ekainaren 30ean, Mungia Sari Nagusian, Agustin Sagasti Memorialean irabazi zuen Eki Sport taldean ari den Beñat Txoperena txirrindulariak, denboraldiko lehen garaipena lortuz. Mendiko sailkapena ere beretzat izan zen. Bakarrik helmugaratu zen Beñat. Hamar segundora ailegatu zen tropelaren buru Sergey Vdovi (Banesto) eta Loic Chetout-ek (Naturgas Energia) osatu zuen podiuma. Ekain bikaina osatu du Beñat Txoperenak. Mungiako garaipenaz gain, Espainiako errepideko txapelketan azpitxapelkun izan zen eta Euskadiko erlojuaren kontrako txapelketan hirugarren. Nafarroako Itzuliko podiumera ere igo zen.

expert BORTZIRIAK

**%20**  
DESKONTUA  
SUKALDE  
ALTZARIETAN

**KONPONKETAK**  
ere egiten ditugu

Bidasoa, 45 · 31780 Bera · 948 630377 · 948 631091 · info@bortziriak.com · www.bortziriak.com

**kulki**  
zure herriko  
jailetan  
Tel. 948 552 171  
www.kulki.org

**A**

**aterpe**  
albergue jaietara onak  
T. 948 634 179  
ARANTZA  
www.arantza.net

# BORTZIRIAK

GIZARTEA → LORPENAK NEURTZEKO 20 ZIURTAGIRIDUNEN AZTERKETA EGIN DUTE

## 81 entitatek berritu dute Bai Euskarari ziurtagiria aurten


Ziurtagiria eskuratu duten eragileek Euskara Mankomunitatean dirulaguntza eskatzeko epea irailaren 30a arte zabalik dago

### TTIPI-TTAPA

Bai Euskarari Ziurtagiriarekin 2005ean hasi ziren Bortzirietan. Harez geroztik, makina bat entitatek euskararen aldeko konpromisoak hartu dituzte. Udaberri partean ziurtagiridunek hartutako konpromisoak ebaluatzen aritu da Bai Euskarari Ziurtagiriaren elkarteak. Guztira, 81 entitatek berritu dute ziurtagiria, eta badira bi ziurtagiridun berri: Ireki Leihoak eta Usi Garbiketak.

Urteen joanean ziurtagiridunen kopurua gutxitu egin da. Azkeneko hiru urte hauetan Bortzirietan badira 90 inguru ziurtagiridun. Herri txikietan ziurtagiridun kopurua mantendu egin da egitasmoa abian jarri zenetik. Edozein gisatara, Bortzirietan ziurtagiridun kopuru handia da, eta neurri bereko Euskal Herriko eskualdeak konparatuz gero, gutxi izanen dira Bai Euskarari Ziurtagiriaren egitasmoak haibertzeko eragina izan duten tokiak.

Azken 8 urte haue-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

2005ean, lehen ziurtagiri banaketako irudia. Goitian, 9 urte hauetako bilakaera.

tan, Bai Euskarari Ziurtagiridunek mota guztietako konpromisoak hartu dituzte. Lorpenak aunitz izan dira, eta horiek agerian paratzeko 20 ziurtagiridunen azterketa egin dute. Arlo ezberdinak eta herri guztiak ordezkatuak dira. Guztira, 66 neurri edo ekintza mota aztertu dituzte. Langileen kontratazioetik eta auto eskoletako irakaskuntza materialek hasi, eta dendetako diru kutxetako tiketetara. Aipagarrienak, irudi korporatiboa eta errotulazioa, fakturak eta ordainagiriak, lehen hitza, publizitatea, webgunea, administrazioarekiko harremana, programa informatikoak, lan bilerak, lan kontratuak eta nominak edo argitalpenak izan dira.

Guztira 226 konpromiso edo lorpen neurtu dituzte (gogoan izan 20 ziurtagiridunei dago-

kiela egindako azterketak).

Bortzirietan euskarari buruzko gogoeta prozesua ere egin berri dute. Aldez aurretik egindako elkarrizketetan bazen kezka bat; Bai Euskarari egitasmoaren emaitzak ez direla behar bezala neurtzen eta ikusarazten.

Gogoetaren emaitzetan, merkataritza, osatlaritza eta zerbitzu mundua euskalduntzeko helburu edo ildo estrategikoaren baitan, Bai Euskarari Ziurtagiriaren gaia kokatu da. Orokorrean, ziurtagiria dutenen lidergoa landu beharra azpimarratu da. Eta, zehazki, beharrezkoa dela gaur egungo planteamendua berrikustea, eta ziurtagiriaren gaineko gogoea egitea eta berraktibatzea. Orain urtean behin egiten den segimenduz harago, urtean ze-

harreko lan iraunkorra egin beharko litzateke. Horrez gain, Bai Euskarari Ziurtagiria indartu eta jendarterera zabaltzea premia zotzat jo da.

### DIRU LAGUNTZAK

Euskara mankomunitateak diru laguntza ematen die Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratu duten entitate eta eragileei. Egunotan, gutunak jasoko dute argibideak ematen. Eskaera egiteko epea uztailaren 1etik irailaren 30a arte egonen da zabalik. Eskaera orriarekin batera faktura, ordaindu izanaren agiria eta IFZ aurkeztu beharko dira. Aurten kopurua honako hau izanen da: 42,50 euro (ziurtagiriaren oinarritzko prezioaren % 50). Informazio guztia ikusgai dago mankomunitatearen webgunean, [www.bortzirriak.org](http://www.bortzirriak.org) helbidean.

### BIDAZI ELKARTEAK

Ekonomia solidarioarako proposamenak aurkeztuko ditu

### TTIPI-TTAPA

Egun bizi dugun krisi ekonomikoaren eta puntu honetarako ekarri gaituzten egoeren aurrean hainbat proposamen plazaratzen ari dira bai Euskal Herrian baita gure eskualdean ere. Honen inguruan, Bidazi elkarteak Ekonomia solidario eta alternatiborako proposamenen aurkezpenak egingen ditu. Horrela, uztailaren 11n Coop57 eta Trukeados-en aurkezpena egingen da 19:00etan Berako Beralandetan. Uztailaren 16an *Con tu dinero* dokumentalaren emanaldia eta "Fiare" banka etikoaren aurkezpena egingen da Lesakan, Koskontako Bideko erabilera antzeko aretoan. Coop57 banka etikoaren printzipioetan oinarritzen da, eta proiektu sozial eta etikoak finantzatzeko kooperatiba da. Katalunian sortu zen, bai-na Aragoi, Madril, Andaluzia eta Galizan ere presente dago, eta egun Euskal Herrian osatzen ari dira. Trukeados-ek denbora trukearen bidez lan egiten duten zenbait talde biltzen ditu, horietako batzuk zonaldekoak. *Con tu dinero* dokumentalaren bankuek gure diruarekin egiten dutenaren berri ematen zaigu eta azkenik, Fiare banka etikorako proposamena aurkezten da, ekonomi eta gizartearen helburu pertsonak dituen.



GIZARTEA → SAHARAZTANEN ESKUTIK

## Gurean dira Sahararik etorritako 20 neska-mutiko

Bi lagunendako otorduen zozketan saritutako 37 zenbakiak jakinarazi dituzte

### TTIPI-TTAPA

Ekainaren 24an ailegatu dira gurera Sahararik uda pasatzera etorritako 20 neska-mutikoak, Saharaztan taldearen bidez. Lesaka, Bera, Ituren, Sunbilla,

Erratzu, Arizkun, Azpilkueta, Elizondo, Elbete, Oronoz, eta Mugairin izanen dira abuztuaren 21a bitarte.

### ZOZKETA

Bidaia eta egonaldia-  
ren gastuetan laguntzeko zozketa ere egin du Saharaztanek. Zenbaki saritu bakoitzak bi pertsonentzako otordua izanen du 37 jatetxe hauetako bakoitzean.

Uxo (Arizkun), 2.579; Ordoki erretegia (Arizkun), 1.142; Bixta-Eder (Arizkun), 4.251;



UTZITAKO ARGAZKIA

San Juan egunaz geroztik gurean dira Sahararik udapasa etorritako 20 neska-mutiko.

Kastonea (Erratzu), 1.544; Elbeteko Posada, 2.900; Galarza (Elizondo), 5.516; Eskisaroi (Elizondo), 5.022; Itzalgirikoborda (Elizondo), 0470; Fransene (Gartzain), 0857; Larraldea sargardotegia (Lekaroz), 5.156; Etxebertzeko-borda (Lekaroz), 4.085; Pierresenea (Oronoz-Mugairi), 3.375; Urgain (Oronoz-Mugairi), 1.849; Beola (Almandoz),

4.831; Donamariako Benta (3.104); Oitzko Ostata (0287); Belarra (Doneztebe), 3.902; Amezitia (Doneztebe), 1.271; Beintzako Ostata, 1.008; Hilarion (Elgorriaga), 2.800; Altxuenea erretegia (Ituren), 0418; Tresanea (Ituren), 3.406; Herriko Ostata (Zubieta), 2.081; Itturburu (Sunbilla), 4.452; Ariztigain kanpina (Sunbilla), 4.192; Bustitz

(Sunbilla), 0831; Elutsa (Etxalar), 5.101; Errekalde (Bera), 5.571; Xuga (Bera), 2.500; Zalain (Bera), 3.588; Burlada (Arantzeta), 4.925; Pabloenea (Arantzeta), 2.222; Aterpe (Arantzeta), 2.302; Alinea (Igantzi), 0617; La Villa (Igantzi), 3.032; Bereau (Lesaka), 0986; Kattalin (Legasa), 1.774.

Bi hilabeteko epea dago saria eskuratzeko.

GIZARTEA → BERTIZKO PARKEAREN ATARIAN

## Pribatizazioaren kontra bildu dira basozainak

GAN enpresa publikoak langileen %55a kaleratzea planteatzen du

### TTIPI-TTAPA

Lan publikoaren alde eta pribatizazioaren kontra elkarretaratzea egin zuten inguru honetako basozainek ekainaren 27an Bertizko Natur Parkearen atarian.

Kontzentrazioan ai-

patu zuten, «ekainaren 7an GAN enpresa publikoan aurkeztutako EREak langileen %55 kaleratzea planteatzen du, hau da 65 langile finko kanporatzea eta hauei gehitu behar zaie lehendik bidaliak izan diren ebentual guztiak».

Enpresa publiko hau lanean ari da 1982etik eta galerarik eta arazorik gabe aritu da orain arte. «Orain badirudi administrazioa mehetu nahi horretan enpresatik



UTZITAKO ARGAZKIA

Ekainaren 27an elkarretaratzea egin zuten basozainek Bertizko Natur Parkearen atarian.

kanpoko zorrak (Los Arcosek zirkuitua, Sanferminetako museoa...) nahi dizkiote sartu gobernutik eta aitzaki moduan erabili». Basozainek eman dituzten datuen arabera, «enpresa publiko guzrien zorraren %2a du GANek, baina kaleratze guzrien %50a

sufritu behar du». Lan publikoa hondatu eta pribatizazioaren alde egiteko bertez pauso bat iruditzen zaie. «Gure kasuan, 13 basozain postu amortizatu dira aurten, postu hauek desagertu dira betirako, eta orain erretiratzeko diren basozainek

postuak ez dute betetzeko inolako asmorik».

Beraien lan arloa, osasuna edo hezkuntza bezain garrantzitsua ez dela onartu arren, «bai uste dugu ingurumenaren zainketa eta gestioa ez dela esku pribatuetan utzi behar inolako kontrolrik gabe».

## GIZARTEA

LANA → EKAINEN DATUAK

# 1.356 lagunek langabezian segitzen dute eskualdean

Maiatzean baino 49 lagun guttiagok eman dute izena Doneztebeko Enplegu Bulegoan

## TTIPI-TTAPA

Azkeneko lau hilabeteetako joera segituz, beheiti egin du langabetu kopuruak eskualdean ekainean. Hilabete honddarrean 1.356 langabetu zeuden Doneztebeko Enplegu Bulegoan izen emanak, maiatzean baino 49 guttiago. Beraz, %3,49 jautsi da langabetu kopurua, Nafarroa osoko bulegoen banaz bertzekoa (%3,32) baino zerbait gehiago.

464 kontratu egin ziren Doneztebeko Enplegu Bulegoaren bitartez ekainean, baina horietatik 27 bakarrik izan ziren mugagabeak.

Adina eta sexuari dagokionez, 25 urtez goitiko gizasemeen artean 612 lagun daude langabezian, maiatzean baino 19 guttiago. Adin tar-

te horretako emakumeen artean 594 langabetu daude, maiatzean baino 18 guttiago. 25 urtez beheitiko gizasemeen artean ere lagun bat guttiago dago langabezian, 108 lagun, eta adin tarte horretako emakumeen artean 42 langabetu daude, maiatzean baino 11 langabetu guttiago.

## ERAIKUNTZAN ETA AITZINETIK LANIK EGIN EZ DUTENEN ARTEAN LANGABEZIA GOITI

Zerbitzuen arloak segitzen du langabe gehien izaten, baina ekainean jautsiera nabarmena izan duen arloa da, 865etik 820ra jautsi baita langabetu kopurua. Industria arloan ere, 272tik 259ra jautsi da langabezian dauden kopurua. Eraikuntzan, aldiz, 178tik 182ra igo da langabetu kopurua. Nekazaritzan 2 lagunetan beheiti egin du langabetu kopurua, 32 lagunekin, eta aitzinetik lanik egin ez dutenen artean 63 lagun daude langabezian, maiatzean baino 7 gehiago.

## LANGABEZIA-DATUAK HERRIKA | 2013ko ekaina

| Herria          | Populazioa 2012 | Lanik gabe guztira | Langabezi-prestaziorik kobratzen dute? |                     |
|-----------------|-----------------|--------------------|--|---------------------|
|                 |                 |                    | EZ                                     | BAI                 |
| ARANO           | 121             | 8                  | 4                                      | 4                   |
| ARANTZA         | 645             | 21                 | 8                                      | 13                  |
| ARESO           | 276             | 10                 | 5                                      | 5                   |
| BAZTAN          | 8.035           | 342                | 164                                    | 178                 |
| BEINTZA-LABAIEN | 242             | 12                 | 7                                      | 5                   |
| BERA            | 3.798           | 167                | 68                                     | 99                  |
| BERTIZARANA     | 628             | 46                 | 22                                     | 24                  |
| DONAMARIA       | 436             | 22                 | 9                                      | 13                  |
| DONEZTEBE       | 1.694           | 131                | 74                                     | 57                  |
| ELGORRIAGA      | 205             | 16                 | 7                                      | 9                   |
| ERATSUN         | 160             | 12                 | 7                                      | 5                   |
| ETXALAR         | 818             | 42                 | 20                                     | 22                  |
| EZKURRA         | 164             | 7                  | 3                                      | 4                   |
| GOIZUETA        | 758             | 42                 | 21                                     | 21                  |
| IGANTZI         | 634             | 21                 | 12                                     | 9                   |
| ITUREN          | 518             | 33                 | 16                                     | 17                  |
| LEITZA          | 2.916           | 162                | 75                                     | 87                  |
| LESAKA          | 2.807           | 161                | 80                                     | 81                  |
| OIZ             | 155             | 8                  | 4                                      | 4                   |
| SALDIAS         | 118             | 9                  | 4                                      | 5                   |
| SUNBILLA        | 665             | 47                 | 16                                     | 31                  |
| URDAZUBI        | 378             | 5                  | 2                                      | 3                   |
| URROZ           | 180             | 6                  | 4                                      | 2                   |
| ZUBIETA         | 295             | 17                 | 7                                      | 10                  |
| ZUGARRAMURDI    | 243             | 9                  | 4                                      | 5                   |
| <b>Denetara</b> | <b>27.189</b>   | <b>1.356</b>       | <b>(%47,42) 643</b>                    | <b>(%52,58) 713</b> |

Baina datu hauek ezin dira baikortasun handiegiarekin hartu. Izan ere, uda partean sasoiko kontratuak eta behin behineko lanak ugaritzen dira. Horretaz aparte, langabetuen artean dagoeneko langabezi-saririk kobratzen ez dutenen kopurua handitzen ari da eta eskualdean kasik langabetuen erdiak dagoeneko ez dute prestaziorik jasotzen, goitiko koadroan ageri denez.

Datu orokorrei erraparatuz gero gainera, langabetu kopuruaren jautsierak ez du eragirik Gizarte Asegurantzaren izena emana duten kopuruaren igoeran. Beraz, langabetu guttiago bai, baina lan gehiagorik ez.

## LANGABEZIA-DATUAK HERRIKA | 2013ko EKAINA

|                 | Populazioa    | Gizon      | Emak.      | Den.         |
|-----------------|---------------|------------|------------|--------------|
| ARANO           | 121           | 4          | 4          | 8            |
| ARANTZA         | 645           | 15         | 6          | 21           |
| ARESO           | 276           | 5          | 5          | 10           |
| BAZTAN          | 8.035         | 199        | 143        | 342          |
| BEINTZA-LAB.    | 242           | 7          | 5          | 12           |
| BERA            | 3.798         | 75         | 92         | 167          |
| BERTIZARANA     | 628           | 27         | 19         | 46           |
| DONAMARIA       | 436           | 12         | 10         | 22           |
| DONEZTEBE       | 1.694         | 63         | 68         | 131          |
| ELGORRIAGA      | 205           | 6          | 10         | 16           |
| ERATSUN         | 160           | 8          | 4          | 12           |
| ETXALAR         | 818           | 23         | 19         | 42           |
| EZKURRA         | 164           | 6          | 1          | 7            |
| GOIZUETA        | 758           | 24         | 18         | 42           |
| IGANTZI         | 634           | 9          | 12         | 21           |
| ITUREN          | 518           | 13         | 20         | 33           |
| LEITZA          | 2.916         | 84         | 78         | 162          |
| LESAKA          | 2.807         | 83         | 78         | 161          |
| OIZ             | 155           | 6          | 2          | 8            |
| SALDIAS         | 118           | 6          | 3          | 9            |
| SUNBILLA        | 665           | 22         | 25         | 47           |
| URDAZUBI        | 378           | 4          | 1          | 5            |
| URROZ           | 180           | 5          | 1          | 6            |
| ZUBIETA         | 295           | 10         | 7          | 17           |
| ZUGARRAMURDI    | 243           | 4          | 5          | 9            |
| <b>Denetara</b> | <b>27.189</b> | <b>720</b> | <b>636</b> | <b>1.356</b> |



948 63 54 58  
kulturkari@ttipi.net

Kartelak, fakturak, kartazalak, bisita txartelak, egutegiak...

# inprimitzen ditugu



# SUNBILLA

GIZARTEA → ABUZTURAKO TALDERIK EZ DA ATERA

## 15 neska-mutiko ari dira ludotekan uztail osoan

Itsaso Arrieta eta Laura Mendibil monitoreekin

**Maider PETRIRENA**

Uztailaren 1ean hasi ziren ludoteka zerbitzuak eskaintzen Sunbillan. Hilabete osoan 15 haurrek parte hartuko dute hezitzaileak izango diren Itsaso Arrieta eta Laura Mendibilekin. Erran beharra dago aurtan bi hezitzaile izanda aukera eman duela hamabostaldi batez edota egunero eraman nahi dituztenak onartu ahal izateko. Bigarren hamabostaldian bi haur joanen dira ludotekara eta egunerokoa ere bertze pare bat izanen dira. Aipatu, abuztuko hilabetean haur gutti apuntatu zirela eta ez dela ludoteka zerbitzurik at-



ARGAZKIA: LAURA MENDIBIL

15 neska-mutiko gustura ari dira udan ere jostetan.

ra baina bai eman da aukera abuztuko lehen-dabiziko astean interesa dutenak apuntatu ahal izateko eta ea behintzat egun horietarako taldea ateratzen den.

### Ba al zenekien...

**Ane Petrirenak 1991an egina zen Nafarroako 200 metroko jubenil mailako errekorra hobetu duela. Durangon jokatu zen Espainiako txapelketan bigarren izan zen.**



### Pertsonaiak

SALMA eta MAIMUNA

Bi sahararren azken urtea gure artean

Ekainaren 24an etorri ziren berriz ere Sunbillara dagoeneko gure etxeokoa diren Salma eta Maimuna sahararrak. Salma Izaskun Alzuriren etxera laugarren urtez etorri da eta Maimunak berriz, bosgarren uda pasako du Aintzane Agirrerren etxean. Pena handiz aipatu beharra dago, aurtan etorriko direla gure artera azkenezko bi saharar sinpatika hauek.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

### Ikasturte bukaerako besta

Ekainaren 19an izan zen ikasturte bukaerako besta. Bertizera joatekoak ziren, baina eguraldiak azkenaldian bezala lagundu ez zuenez guztia frontoian egin behar izan zen. Talde bakoitzak bere irakaslearekin hasiera klasean egin zuen eta gero denak frontoian elkartu ziren bazkari eder bat egiteko. Gurasoak ere gonbidatuak ziren eta hagitz giro ona izan zen. Patata tortilla, txingarra, txistorra, hainbat tarta ezberdin, pastak, fruta, kafea... Ongi pasa oporrak eta pilak kargatu irailaren 6an ikasturte berriari hasiera emateko.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

### San Juan suan saltoka

Ekainaren 23an San Juan suak egin genituen frontoi atzekaldeko plazoletan. Hagitz giro ona izan zen eta haurrek asko disfrutatu zuten.

## DONEZTEBE



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO  
Trapatan dantzako dantzariak eta musikariak.

OSPAKIZUNAK → HERRIKO BESTAK

# Giro ederrean joan dira San Pedro bestak

Itziar Irigoienek bota zuen altxaferoa, txistulari taldearen izenean

### TTIPI-TTAPA

Giro ederrean joan dira Doneztebeko San Pedro bestak. Ekainaren 28an, Itziar Irigoien Perurenak txistulari taldearen izenean botatako txupinazoaren ondotik besta giroan karrikaz karrika ibili ziren gazteak.

San Pedro egun handian, dantzen tradizioak fin bete zituzten. Eduardo Almandozek bandera dantzatu zuen hamekagarren urtez eta dantza taldeak Trapatan dantza luzea eta bertze ohiko dantzak eskaini zituen Meza Nagusiaren ondotik. Arra-

tsaldean, Errekako dantzarietarikuskizun paregabea eskaini zuten, herriko musika talde eta Mendi Abesbatzaren laguntzarekin. Ehundaka lagunek gozatu zuten ikuskizunarekin Bear-Zana pilotalekuan.

Ekainaren 30ean, udal txikia osatu zen eta haurrei eskainitako eguna ospatu zuten. Izaro Aldabe izan zen alkate ttikia, Mikel Atxalanda-baso bake-epaile, Michelle del Villar banderazaina eta Aimar Zestau, Janire Iribarren, Inmaculada Ibarrola, Irati Oiartzabal, Ander Berasategi, Iñaki Gonzalez, Yeray Legazkue eta Joseba Bengoetxea udal ttikiko zinegotziak.

Uztaileko lehen egunean, Intzakardiko parkean egindako herri bazkariarekin eta hondarreko ospakizunekin akitu ziren San Pedro bestak.



### Ba al zenekien...

Erreka udazkenerako nesken laisterka taldea sortzeko aukera aztertzen ari dela. Interresatuak Jokin Apezteareari aipatu.



ARGAZKIA: ERREKA K.E.

### 204 korrikalarik parte hartu zuten Errekaren krosean

Erreka elkarteak antolatutako 35. Herri Krosa burutu zen ekainaren 23an. Par-tehartzeko handia izan zen, dena 204 korrikalari. Ttikienak goizeko 10:30ean hasi ziren lasterka, euriari aurre eginez. Kategoria berezian 30 korrikalari atera ziren, 27 aurrebenjaminetan, 26 benjaminetan, 18 alebinetan eta 10 infantiletan. Proba nagusian, berriz, kadeteetatik hasi eta beteranoak bitarte, 93 korrikalari atera ziren. Lehia handia izan zen gizonezkoen senior mailan eta horren erakusgarri, azken hiru urteetan garaipena lortua zuen Antonio Etxeberria podiumetik kanpo gelditu zela. Abdelhadi Habassa izan da irabazlea (22'55"), bigarren Mouloud Zouinat (23:15) eta David Garcia hirugarren (23:32). Antonio Etxeberria laugarren izan da eta Alberto Barberena elizondarra bosgarren. Emakumezkoetan, Salima Charki erraz nagusitu da (13:12). Ana Reina bigarren izan da (15:17) eta Maite Ares hirugarren (15:21). Herrikoen artean, Iñigo Arregi eta Maria Telletxea izan dira bizkorrenak. Sari banaketan, Errekako zuzendaritza batzordeko kideekin batera, Juana Muñoz eta Eduardo Oiartzabal zinegotziak eta La Caixako Ana Juanenea izan ziren.



**Pertsonaia**  
Iñaki LIZASO

### 21 urteren ondotik San Fermin egunez adio erran dio erremonteari

Iñaki Lizaso doneztebarrak erremontista gisa bere azken partida jokatu du San Fermin Egunean Uharteko Euskal Jai Berri pilotalekuan. 21 urte eman ditu erremonte profesionalen eta orain, 40 urterekin, uztea erabaki du. Malko artean eta hunkituta eman zuen agurraren berri Lizasok eta denendako esker oneko hitzak izan zituen: jarraitzaileentzat, hedabideentzat, enpresarentzat eta batez ere, azken 20 urteotan ondoan izan dituen erremontista lagunentzat. Azken partidari Urriza izan du ondoan doneztebarrak, eta Ezkurra eta Etxeberria III.aren aurka jokatu behar zuen. Biak ere herritarrek eta bieie ere besarkada beroa eman zien Lizasok agurraren berri eman zuten, uztailean 3an.



OSPAKIZUNAK → UZTAILAREN 19TIK 22RA

## Pintxo, tortilla eta postre lehiaketak egingen dituzte bestetako asteburuan

Agin Rezola eta Iban Urdangarin bertsolariak ariko dira hondar eguneko herri bazkarian

### Arkaitz MINDEGIA

Herriko bestak uzta- ilaren 19tik 22ra ospa- tuko dituzte, egitarau zabalarekin.

### ORTZIRALA, UZTAILAK 19

- 17:00: Eriz magoaren "Birziklapen magia" ikuskizuna. Ondotik txokolatada.
- 19:00: Dantzariak.
- 20:00: Txupinazoa. Ondotik, kalejira herriko musikari eta buru- haundiekin.
- 21:30: afaria Altxunea erretegian.
- 23:30: kontzertuak,

Sõadores Natos y la reggae band eta Bide Bakarra taldeekin.

- Berbena GUGAZ taldearekin.

### LARUNBATA, UZTAILAK 20

- 10:00: diana.
- 11:00-13:00: aurpegi margoketa eta haur jo- koak.
- 14:00: Gazte bazka- ria (ondotik gazte jo- koak eta haurrentza- ko puzgarriak).
- 18:00: Zubiriko batu- kada.
- 19:00 pintxo lehiake- ta (bakoitzak etxean prestatu bere bande- ja). Horrekin batera txokolatea, zingar ja- tea eta sagardo kupe- la.
- 20:30-22:00: TRIKI- DANTZ taldea.
- Berbena TRIKIDANTZ taldearekin.

### IGANDEA, UZTAILAK 21

- 10:00: diana.



ARGAZKIA: MIREN SEIN

Dantzariak beraien emanaldia eskainiko dute aurten ere txupinazoaren aitzinetik.

- 11:00: puzgarriak.
- 12:30: aizkora apos- tua.
- 17:00: mus txapelke- ta.
- 18:00: Mikel bere ani- maliekin plazan.
- 19:00: tortilla txapel- keta (bakoitzak bere tresnak ekarri, osaga- iak udalak jarriko di- tu). Segidan, postre le- hiaketa (Bakoitzak etxean prestatu bere bandeja). Horrekin ba- tera, zingar jatea eta sagardo kupela.
- 20:00: AIERRIK tal- dea.
- Berbena AIERRIK tal- dearekin.

### ASTELEHENA, UZTAILAK 22

- 10:00: diana
- 10:30: plater tiraketa.
- 11:00: puzgarriak haurrentzat.
- 12:00: pilota txapel-



ARGAZKIA: MIREN SEIN

Txistulari eta atabalarien lana ezinbertzekoa da bestetan.

- ketako finala eta ber- tso pilota (Agin Rezo- la eta Iban Urdangarin bertsolariekin). Lehe- nik 3. eta 4. postuak erabakitze- ko partida eta gero finala.
- 14:00: herri bazkaria

Agin Rezola eta Iban Urdangarin bertsola- riekin.

- 20:00-21:30 HOLA- KO taldea. Zingar ja- tea plazan.
- Berbena HOLAKO tal- dearekin.

**Tresanea** LASAITASUN EREMUA  
ESPACIOS DE TRANQUILIDAD

PLATER KONBINATUAK  
OGITARTEKOAK

*ongi pasa bestak!*

Kontzeju karrika, 11 | ITUREN | 948 450 287 | info@tresanea.com | www.tresanea.com

leapaindegia  
**EIDEA**  
Estetika

Asteartea eta osteguna: 09:00 - 13:30  
Asteazkena eta ostirala: 15:00 - 19:00  
Larunbatetan: Goizez

Kontzejo, 6 | ITUREN | T. 630 633 445

**ALTXUNEA ERRETEGIA**

IREKITA  
ostiral eguerditik igande eguerdira,  
besta egunetan eta besta bezperetan

ABUZTUAN EGUNERO IREKIA

Kontzejo, 27 - ITUREN  
T. 948 450 410

## ZUBIETA

OSPAKIZUNAK → SAN JUAN BEZPERAKOA AZKENA

# Jaiez ederki hornitua joan zaigu ekaina

40 bat lagun bildu ziren Uritzako bazkarian

**Fermin ETXEKOLONEA**

Bestaberri egunarekin hasi, gazteen festa eta akitzeko Uritzako eta San Juan bezperako ospakizunak: jaiez hornitua joan da ekaina.

Uritzako bazkarian 40 bat lagun bildu ziren ekainaren 22an. Umore ederrean egin zuten ospakizuna. Eguraldiarekin ere suertea izan zuten eta afariarekin lotu zuten batzuk. Zortzi-

garren urtez segidan egin da.

San Juan bezperan afari-berendua egin zen plazan. Bakoitzak bere janaria eramaten du eta jan ondotik, suak piztu eta giro ederrean ospatu zuten San Juan bezpera.



ARGAZKIA: IZASKUN ZUBIALDE

San Juan bezperan neska-mutiko eta gurasoak elkartu ziren plazako afari-berenduan.

### PERTSONAIK

#### Igor Babaze

Quebrantahuesos txirrindularitza lasterketan bikain ibili zen. 9.000 txirrindulari baino gehiago ateratzen dira proba gogorrean eta 200. postu inguruan sartu zen. Zorionak.

#### Julen Santesteban

Nafarroako Herriarteko pilota txapelketan aritu da Doneztebeko taldearekin. Alebintan aritu da Gaizka Agirrerekin eta Labriteko finalean 5-18 galdu zuten.

#### Duba Saadi

Saharara joan da uda pasatzera. Honek bere herrikideek normalean egiten dutenaren alderantzizko bidea egiten du. Ikastartea hemen pasatzen du eta uda sorterrian.

#### Ane Ansó

Estatu Batuetako Connecticut aldera joana da, ingelera ikastera. Joan den urtean hila-bete eman zuen Irlandan eta orain, hizkuntza hori ikasteko beste pauso bat eman du.

## ELGORRIAGA

GIZARTEA → SANTIAGOAK PRESTATZEN

# Bestetarako herria txukuntzeko auzolana uztailaren 20an egingen da

Goizeko 8etan gelditu eta bertan banatuko dituzte lanak

**Mattin LARRALDE**

Urtero bezala, uztaila inguratzen denean besta giroa dator berekin Elgorriagara. Baina besta baino lehen urte-

roko auzolana egin behar izaten da, herria txukuntzeko eta apaintzeko. Uztailaren 20an izanen da aurtengoa eta urtero bezala, goizeko 8etan hasiko da. Bertan banatuko dira lanak jendearen artean.

#### Kontzertua San Pedro egunez

Ekainaren 29an kontzertua izan zen herriko

ostatuan, fusion musika mota egiten zuen *Ombigo de Venus* taldearen eskutik.

Hiru neska eta mutil bat aritu ziren, ikuskitun polita eskainiz. Kontzertu arrakastatsua izan zen berriz ere, jende asko zegoen, giro ederrean. Zorionak berriro antolatzaileari, holako ekintzek herri tiki bat handi egiten dute eta.



ARGAZKIA: MATTIN LARRALDE

Auzolanean egiteko hainbat lan aurrakusiak dituzte.

#### Pelbis-zorua lantzeko ikastaroa

Kultur etxeko goitiko solairuan pelbis-zorua lantzeko ikastaroa hasi da uztailaren 1ean, gehienbat emakumeei zuzendua. Ikastaroa Neus eta Rosanak eman

dute eta nahiz eta jende askorik ez den animatu, bertan izan direnak oso gustura ateri dira. Gorputzeko atal hori indartzeak duen garrantziak jabetu eta zein ariketa egin behar diren ikasi dute.



OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 22AN

## Belar zamak nola jausten zituzten erakutsi zuten Ofizio Zaharren Egunean

Erramun Martikorena ere aritu zen kantari

**Joseba URROTZ**

Ekainaren 22an ospatu zen Ofizio Zaharren Eguna. Eguraldi panggalak tarte bat hartu zuen zorionez eta bazkalondora arte eguzkia izan zuten lagun.

Goizez artisauek beraien postuak paratu zituzten; herriko hiru emakume ere taloak egiten eta saltzen aritu ziren, irina akitu zen arte.

Eguerdian belar meta egin zen plazan, gaur egun leku guttitan egiten dena. Gainera, belar zamak kable batetik zilintzan jautsi zituzten, inguru hontako hainbat leku aldapatsutan erabiltzen zen teknikaz. Egia erran, etzen kanpotar aunitzirik etorri, baina agertu ziren herritarrekin, frontoi zaharreko xokuan giro polita izan zen.

Eta ondotik bazkaria, internazionala erran genezake. Iturenen, Georginaren baserrian ostatu hartzen duten ingeles eta amerikarrak



mahaian izan ziren; Marikatik bi neska etorri ziren eta baita ere Iruñean bizi diren bi mutil: bat argentinarra eta bertzea kataluniarra, biek ere euskaldunak!

Erramun Martikorena abeslaria ere bertan izan zen bere ahots finarekin bazkalondoa goxatzen. Beñat Mitxelena izan zuen lagun akordeonarekin eta ederki moldatu ziren.

Julio Soto eta Iker Zubeldiak ere ez zuten hutsik egin eta bertso saio luze eta animatua



ARGAZKIA: JOSEBA URROTZ

Belar meta egiten plazan eta Erramun Martikorena kantari, Beñat Mitxelena akordeoilaria lagun duela.

eskaini zuten. Hortik aitzinera, dantzak eta so-

lasak, gorputzak iraun zuten arte.

1951tik  
**Casa Cambra**  
lentzeria-etxea  
Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

**2013 UDABERRI- UDAKO KOLEKZIO BERRIA**  
edredoi fundak · albornoak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak



# GIZARTEA

ARKUPEAK → 'ZUK AUKERATU, ZUK ERABAKI'

## 817 pertsonek babestu dute erretiratuen egitasmoa

Ekainaren 26an bildu zen zuzendaritza batzordea Donezteben

**Fernando ETXEBERRIA**

Arkupeak elkarteko zuzendaritza batzordea ekainaren 26an bildu zen, bazkideen interesekoak diren zenbait gai lantzeko. Gauregun defizit txiki bat duten kon-tuen berri eman zuen presidenteak, baina hori moldatu egingen da aportazio ezberdinekin. Esate baterako, "Zuk aukeratu, zuk erabaki" programan 817 pertsonen babestu dute Arkupeak elkartearen egitasmoa eta beraz, 8.170 euro jasoko dira.

Aurten, bazkideen besta urriaren 17an ospatuko da Donezteben eta bertan omenduko dituzte 85 urte betetzen dituzten bazkideak eta Urrezko Ezteiak ospatzen dituzten senar-emazteak. Elikagai Bankuko komisiolari laguntzeko eltzetsua ere egun horretan jarriko da, beharrean dauden pertsonen janaria erosi ahal izateko.

Elkartearen egoitzako bigarren solairuan dagoen bilera aretoaren barnean podologarentzat gelatxo bat ere egoituko da. Ordua eska-

tzeko 629 821039 telefonora deitu behar da.

### BIDAIAK

Bidaietako anbulantziaren erabilera ere interes handiko gaia da. Bi aukera aztertu dituzte batzordean: orain arte bezala segitzea edo profesional bat (mediku, erizaina) bertan izateko aukera. Itxura batean, Arkupeak da bidaietan anbulantzia bat erabiltzen duen elkarte bakarra, diru-laguntzetan ere jeitsiera handia izan da eta gastuak kentzeko aukerak aztertzen ari dira.

Ekainaren 19an mendizale taldetxo bat Saioara igotzen saiatu zen, baina eguraldi txar-raren ondorioz, Txarutara joan ziren egoera onean zeuden bide eta pisten barna, gero Almandozko Beolan bazkaltzeko. Biharamonean, Gesaltza-Añana bisitatu zuten 140 bazkidek. Erromatarren garaitik gaur egunera arte gatz produkzioaren berri eman zien gidari batek. Gasteiz bisitatu zuten gero.

17 mendizale joan ziren uztailearen 1ean Hiru Erregeen Mahaia, Añamendi, Orhi, Txamantxoia, Lakora eta Lakartxela igotzera.

Beste alde batetik, Beste alde batetik, 99 lagunek eman dute izena irailan Carlomag-noren Bidea egiteko. Bi-



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Arkupeak elkarteko bazkideek egindako zenbait ateraldien irudiak. Goian, mendizale taldea Txarutarako bidean, erdian Gasteizko kaleetan eta behean Gesaltza-Añanan.

daia bi taldetan egitea rabaki da. Hilaren 10ean Leitzaldea, Malerreka eta Bortzirietako bazkideak aterako dira eta 11n Zugarramurdi, Urdazubi, Baztan eta Bertizaranako txanda izanen da.

Uztailean, Aralarko santutegira joango dira aitona-amonon eguna ospatzera eta gero Goierriko Gazteluan bazkalduko dute. Abuztuan, berriz, Arantzazun izanen dute hizordua eta irailan Le-

zon eta Benidormen barrena ibiliko dira.

Azkenik, 23 bazkidek eman dute izena Santiago Bidea egiteko. Hasiere batean irailan egitekoa zen, baina beharbada abuztu hondarretan aurreratuko da.



OSPAKIZUNAK → UZTAILAREN 25ETIK 28RA

## Tapia eta Leturiarekin trikiti festa egingo da Santio egunez

Aurreko igandean pala txapelketako finala eta kotxe zaharren igoera izango dira

### TTIPI-TTAPA

Santio festak umorez datoz aurten ere. Uztailaren 25etik 28ra hainbat ekitaldi antolatu dituzte, baina aurreko igandean ere izango da festaren seinalea.

### IGANDEA, UZTAILAK 21

- 11:00: Aranoko pala txapelketako finalak.
- 12:00: Kotxezaharren igoera. Eguerditik aurrera kotxeak herrian ikusteko aukera.

### OSTEGUNA, UZTAILAK 25 SANTIO EGUNA

- 11:00: Meza.
- 12:00: jaiei hasiera emango dien itxaferua botako da udaletxeko balkoitik. Umeentzat bonba japonesak eta buruhaundiak.
- 12:30: Arano-Goizuetako arteko betiko pilota partida. Afizionatuen arteko partida buruz buru.
- 18:00: herri kirolak.
- 20:00 Tapia eta Leturiarekin lagun arteko trikiti festa.
- 22:00: Herri afaria. Norberak etxetik eraman behar du janaria.
- 22:00 ilargipeko zinea umeentzat.

### OSTIRALA, UZTAILAK 26 SAN JOAKIN ETA SANTA ANA

- 11:00: Meza. Ondoren hamaiketakoa.
- 13:00: afizionatuen ar-



- teko pilota partida.
- 14:00: jubilatuen bazkaria, Unai Agirre eta Xabier Legarreta bertsolariekin
- 18:00: artisau azoka karpan.
- 19:00: tortilla txapelketa eta herriko sagardo eta produktuen probaketa.
- 22:00: XXXI. Mus txapelketa San Roke elkartean.

### LARUNBATA, UZTAILAK 27

- Goizean: arkumea erretzen jarriko da plazan. Goiza girotzeko fanfarrea ibiliko da herrian barrena.
- 14:00: arkume jatea. Bazkal ondoren fanfarrearekin kantu saioa.
- 19:00: bertsolariak: Sebastian Lizaso, Iker Zubeldia, Julio Soto eta Aitor Mendiluze.
- Afal ondoan dantzaldia.

### IGANDEA, UZTAILAK 28 UMEEN EGUNA

- 10:00: Meza.
- Umeen pilota partida. Segidan, Aranoko eta



ARTXIBOKO ARGAZKIAK

Dantzatu eta bertsoak aditzeko aukera izango da karpan.

- Goizuetako dantzariak.
- 15:30: Puzgarriak eta umeen jolasak.
- 18:30: txokolatada.
- 19:00: Arno ganadutegiko aziendak umeentzat.

### FLASH

### San Juan inguruko sardinak

Azken urteetako ohiturari jarraiki, herritar kuadrila ederra elkartu zen ekainaren 22an sardinak jatera Kontseju atarira. Eguraldiak ez bazuen ere askorik lagundu, inor ez zen harritu ezta izutu ere. Giro ederrean ospatu zen udako solstizioa. Mahai-ingurua bukatutakoan udaleko kideek *Urumea arnastu* Aranok, Hernani, Ereñotzu eta Goizuetarekin batera sortutako turismo egitasmoa aurkeztu zuten. Azkenik, herrian grabatutako "Gure esku dago" ekimenaren bideoklipa ere ikusi ahal izan zen.

### Festetako egitekoak

Urtero bezala, Santio festetan, herriko artisauen azoka eta bertako jaki-edarien dastaketa antolatuko da. Azokan postua jarri ahal izateko, festa batzordearekin harremanetan jartzeko deia luzatzen dizuegu herrendik aranoar guztiei. Bestalde, arkume-jate egunean, uztailaren 27an eta aurreko pres-taketa guztietan laguntza ezinbestekoa dela gogorarazi dute festa batzordetik.

**Aranoko Udalak**  
jai zoriontsuak opa dizkizue  
herritar eta bisitari guztiei

# ARESO

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN AZKEN ASTEBURUAN

## Aitzinako pilota modalitateak ezagutzeko aukera bikaina izan zen San Pedroetan

Garai bateko pilotarako lekuak, botarriak eta kontatzeko harriak ere ezagutzera eman zituzten

**Juana Mari SAIZAR**

San Pedro jaien barruan, larunbat arratsaldean, pilota jaialdi berezia izan zen. Lehenik pilotaren historiari buruzko hitzaldia eskaini zuten udaletxeko aretoan; nondik heldu den pilota izena, zein garaitakoa den, zer forma zituena hasieran, lehenengo aztarnak, nongo zelaietan jokatzen zen... eta hori entzun eta gero Aresoko plazak zer nolako baliabideak dituen azaldu zuten.

Herriko plazak joku zuzenaren barnean hainbat modalidade jokatzeke aukerak ematen ditu: Plazan (belarrezkoa) eta frontoian laxoa nahiz errebotea egin daitezke, trinketean udaletxe azpian berriz, pasaka. Bote luze modalidadea mendian egiten zela esan zuten eta Areson ere mendi aproposen bat egongo dela horretarako.

Pilota jokuak egiteko, han bertan ikasi genuen hiru botarri dauzela, bata ezker paretaren goiko aldean eta etzanda jarrita, beste biak Sastineko eskailertan: bata, zaharrena, goian, pilotak gordetzeko txuloarekin, eta bigarrena eskailerako barandaren bukaeran. Azkenik bitxiena, askotan zapaldu eta gainean ibiltzen garena, plaza erdiko bi eskailera er-



ARGAZKIAK: JUANA MARI SAIZAR

Garai bateko pilota modalitateei buruzko "teoria" ikasteko aukera izan zen hitzaldian, eta gero pasaka partida "praktikan" ikustekoa.

dian dago lurlean jarrita, losa horretan tantotak kontatzen ziren, eta orain ere garbi ikus litezke zuloak.

Gero pasaka erakustaldia egin zuten, bai eskuz eta baita eskularruarekin ere. Gure ohiturak berreskuratzeko

modua izan zen San Pedroetako jaialdi berezia. Pilotaren historiari ikasi eta entzundakoa ikusteko aukera bikaina.

## ARTEKARI TALDEA

**ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA**

|  |   |
|--|---|
| <ul style="list-style-type: none"> <li>☞ Langile autonomoak</li> <li>☞ Nekazariak eta mendi langileak</li> <li>☞ Nominak eta Aseguro Sozialak</li> <li>☞ Lan-Kontratutarako laguntzak</li> <li>☞ Enpresa berri ezberdinen sortzea</li> </ul> <p style="text-align: center;">amaia@artekari.com</p> | <ul style="list-style-type: none"> <li>☞ Diru-laguntza ezberdinak</li> <li>☞ Kontabilitateak</li> <li>☞ IVA eta IRPF</li> <li>☞ Errenta aitortpenak</li> <li>☞ Elbarritasun eta jubilazio espedienteak</li> <li>☞ Bidegarritasun planak eta aurrekontuak</li> </ul> |
|--|---|

**LESACA:** Bittirio, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050  
**BURLATA:** La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

txinelka

ttipi kartela

%10<sub>eko</sub>  
DESKONTUA



GIZARTEA → UZTAILEAN IGERIKETAN ARI DIRA BATZUK, ESKULANETAN BESTEAK ETA KIROLETAN GAINERAKOAK

# 48 neska-mutiko ari dira Guraso Elkarteak antolatutako udalekuetan

## TTIPI-TTAPA

Guraso Elkarteak antolatutako udalekuetan 48 neska-mutiko ari dira uztailean. 3 eta 9 urte arteko hamazazpi neska-mutiko egunero Hernaniko igerilekura joaten dira, bi taldetan banatuak. Zortzi laguneko beste taldetxo bat astearte eta ostegunetan biltzen da Josunerekin, eskulanak egiten ikastera. Azkenik, beste 23 neska-mutiko kirolean trebatzen ari dira Patxi Salaberria monitoreaekin astelehen eta asteazkenetan. Gainera, uztailaren 15etik 19rako astean egunero joanen dira Ereñozura

piraguismoa ikastera, Hernanitik etorriko diren monitoreaekin. Guraso Elkarteak kontentua daude udalekuen arrakastarekin, baina Maria Apezetxeak aipatu digunez, «informatika eta ingelera ere eskaini genuen, baina ez da jende nahiko apuntatu»

## Karmen bezpera

Uztailaren 15an Karmen bezpera ospatuko dute aurten ere herri afaria eginez. Plazan mahaiak jarriko dira eta banoitza bere jatekoa eta edaria eramango du. Afaria arratseko 8:30ean hasi eta sua 9:30 aldeira piztuko da.



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

## Iker Salaberria txapelkun Iscarren

Espainiako Federazio arteko pilota txapelketan parte hartu zuen Iker Salaberriak ekain hondarrean Iscarren (Valladolid). Finalerdia Gaztela eta Leon taldeari irabazi zion Cordónekina batera (10-1, 10-1). Errioxaren kontrako finalean hiru set behar izan zituen Mariezkurrenarekin batera (10-5, 5-10, 5-2) txapela Nafarroara ekartzeko.



ARGAZKIA: IGOR ELIZEGI

## Goizueta ezagutzen bosgarren ateraldia

Umore Ona Elkarteak antolatutako Goizueta ezagutzen bosgarren mendi buelta egin zen ekainaren 23an. Eguraldi kaxkarra egin arren 21 lagun bildu ziren, giro ederrean. Umeak ere, gero eta gehiago animatzen dira eta inor baino bizkorrago ibiltzen dira gainera! Mendizaleek aipatu digutenez, «udaberri euritsua- ren ondorioz, uda hasiera honetan ere non nahi ur iturriak ikusten dira, ikusgarria». Herriko plazatik abiatuta Martitxena, Alkaso, Aranola, Ibarrolako borda, Tartazuko harria eta Santakruzen barna, berriz ere herrira bueltatu ziren.



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

## Umore Ona abesbatzakoak Hernaniko Aurorak kantari

Ekainaren 22an, Umore Onako abesbatzak, Hernaniko Kantuz eta Ereñotzuko Ozenki abesbatzekin eta parte hartu nahi zuen guztiekin batera, Hernaniko kaletan barna aurorak kantatzen pasa zuten goiza, giro ederrean.

## LEITZA



ARGAZKIA: O. EIZMENDI

Zinegotziak eta gizarte eragileak Parlamentuko atarian.

GIZARTEA → EKAINAREN 26KO ERABAKIA

# Nafarroako Parlamentua Maxurrenea herriari ematearen alde

Alderdi guziek babestu zuten leitzarren eskaria, UPN eta PPNk izan ezik

**JM BARRIOLA**

Ekainaren 26an, Nafarroko parlamentuan egin zen osoko bilkuran, «bere sorrerako mandatu betez, ahalik eta bizkorren, Leitzako Maxurrenea gizarte edota kultur arlo-

ko ekintzak egiteko erabil dadin» eskatzen zuen erresoluzioa onartu zuten.

PSN, Bildu, Aralar-Na Bai, I-E alderdien aldeko botoekin eta UPN, PPN alderdien abstentzioarekin aurrera atera zen. Bildu eta Aralar-Na Baik izan zuten iniziatiba, baina onartutakoa PSNk sartutako

emendakin baten puntua izan zen. Honekin Maxurrenea herriarentzatearen gehiengoaren borondatea nabarmentzen da.

## Gozamenez beteriko gaua

Gizarte zerbitzua eta Andraize erakundearen eskutik, zazpigarren urtez egin dute "Ur pes-

ta, gozamenez" jaia uztailaren 5eko gauean. 12 eta 16 bitarteko gaztetxoei zuzendutako pesta igerilekuan egin zen. Herriko gazteen parte hartzea bultzateko asmoarekin hasi zen pesta sexualitatea naturaltasunez bizi zeko eta festa osasungarriak bultzatzeko alkoholik gabeak.



ARGAZKIA: O. BENGOTXEA

## Gorritarango pestak umore ederrean

Gorritaran auzoko Sanpedroak, umorez joan ziren, auzotarren eta herritar ugariaren parte hartze haundiarekin eta giro ederrean, musika, joko, otordu eta abarrek. Argazkian Gorritarango bi gazte ardiei hilea moztzen. Txintxurrin txapelketan Joseba Otermin *Beltranek* irabazi zuen 2 metro eta 62 zentimetro arte luzatuz.

**EUSKARA**

Bai Euskarari Ziurtagiriak Leitza, Areso, Goizueta eta Aranoko ziurtagiridunak saritu ditu

**TTIPI-TTAPA**

Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteak, ekainaren 28an ekitaldi berezi batetan Durango-ko Plateruena Kafe Antzokian, Bai Euskarari sariak banatu zituen (Anaje Narbaizarentzat, Vusa Eraikuntzak enpresarentzat eta Leitzako, Goizuetako, Aresoko eta Aranoko ziurtagiridunentzat izan dira aurtengo sariak). Gure herritako elkarte, komertzio, eta eragileak, urte luzez euskararen normalkuntzan lana egin dutelako eman zaie sa-

ria. Bertan Leitzatik ALKE kultur taldeko eta Goizuetako Umore Ona elkarteko ordezkariak jaso zuten saria denen izenean. Azken hauek Arritxu Zelaia Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteko lehendakariaren eskutik jaso zuten saria. Kolektibo batek jaso duen lehenengo saria izan da. Zelaia ekitaldian azaldu zuenez, «bertako ostalari, merkatar, elkartek nahiz enpresek Bai Euskarari egitasmoarekin eta lan mundua euskalduntzeko helburuarekin erakutsitako



ARGAZKIA: BAI EUSKARARI

Bai Euskarari saridunak, tartean Goizueta eta Leitzako ordezkariak direla.

konpromisoaz gain, lan jarduran euskararen erabilera areagotzen jarraitzeko helburua berresten dute urtez urte.

Beren ahalegina eredugarria da beste zonalde batzuetarako entzate eta egiten duten traktore lanak ez du preziorik».



**GIZARTEA** → DENDA ATARIETAN IZANEN DIRA UZTAILAREN 15ETIK AITZINERA

# 'Tarte bat' 25 minutuko aparkalekuak eskainiko dituzte Elizondon

Zamalanetako tokiak arratsaldez aparkaleku bihurtuko dira

## TTIPI-TTAPA

Baztango Udala, Bertan Baztan, Elizondoko herria eta trafikoko batzordearen arteko elkarlanari esker Elizondon aparkatzeko egitasmo berri bat martxan jarriko da.

25 minutuko aparkalekuak hain zuzen. Aparkaleku hauetan gehienez ere 25 minutuko egonaldiak egiten ahaliko dira, merkataritiki inguruko parkin mugimendua izan dezaten eta horrela Baztandarrei erosketak

egiteko erraztasunak eman. Aparkaleku hauek berdez margotuta daude, erdian 25 zenbakia ageri delarik eta gehienetan ordutegiak eta xehetasunak ohar-tarazteko seinale batez lagunduta egonen dira.

## APARKALEKU MISTOAK

Modu berean, gaur egungo zamalanetako parking gehienetan aldatuta ttipi bat egiten da eta orain mistoak izanen dira. Hemendik aitzin goizak zamalanetarako bakarrik izanen dira eta arratsaldetan 25 minutuko "tarte bat" parkin bihurtuko dira eta edozeinek aparkatzen ahaliko du 25 minutuak errespetatuz. Lurrean horiz eta berdez margotuta egonen dira eta

seinale batez lagunduta egonen dira ordutegiak adieraziz.

Herriko bileretan norabide aldaketak egingen dira: Virgilioko malda bakarrik behe-itiko norabidean ibiliko da eta lehenagoko Martintxo tailerrean gorako norabidean. Bi leku horietan aparkalekuak egin dira.

Ordutegia 9:00etatik 13:00ak arte eta 16:00etatik 20:00etara izanen da astelehentik ortziralerara. Ordutegitik kanpo normal aparkatzen ahaliko da betiko arauak errespetatuz.

Parkin erabiltzeko orduan marren tartean aparkatu behar da eta 25 minutuak errespetatzen ez dituenari isuna jarriko zaio.

Erosketak trankil egin



UTZITAKO ARGAZKIA

Denbora baterako aparkalekuak seinalizatuak egonen dira.

nahi dituenarendako Baztandarren Biltzarren egoitza, eliza edo osasun etxeko parkinak erabiltzea gomendatu dute eta ondoren "tarte bat" aparkalekuak erabiltzea erosketak kargatzea beharrezko baldin bada.

Aparkaleku berrietara egokitzeko epea uztailearen 8tik 12ra izanen da eta 15etik goiti behin betikoz paratuko da martxan.

Dena den, udalaren eta bertze erakunde apustua da erosketak oinez edo bizikletaz egitea, «herri osasuntsu eta seguru baten bidean ezinbertzeko pausoa».

## TARTE BAT 25 MIN.

- Correos bulegoan
- Dia parean
- Labaien ondoan
- Ikastolan
- Martintxo tailer zaharraren maldan
- Nafarpress ondoan
- Virgilioko maldan
- Benantxi parean
- Izeta erloju-denda parean
- Goizalde ostatu ondoan
- Axun fruta-denda parean
- Udaletxearen gibebeko aldeko parkinean
- Jaimerena ile-apaindegian
- Plazaren gaineko aldean

## APARKALEKU MISTOAK

- Dia ondoan
- Natura etxean
- Virgilio maldan
- Adela parean
- Mapfre parean
- Malkorra parean
- BBVA ondoan

**MERKE ALDIA**  
**%50 ARTE**

3 POMMES BENZI CONVERSE BELSEY DENIM & SUPPLY  
DESIGAL DOCKERS EASTPACK ESPRIT G-STAR LCODE  
INKS JACKSONS LACOSTE LACOSTE LIVE LEVIS LITTLE  
MARCEL LOLLIPOPS LOTTO MANGO OUTFITTERS NATION  
ONLY ONLY PLAY ORCHESTRA OXDOWN PEPE JEANS RALPH  
LAUREN RIP CURL SAMSONITE SELECTED SUPERDRY  
LE TEMPS DES CERISES TOMMY HILFGER VERO MODA

**PEIO** ABUZTUAREN 31-A ARTE

www.veito-pro.com  
Tel: +34 952 210 800 (es) • 952 242 242 (eu)  
Bilbao • Donostia • Ibañeta • Leizor • Asteasu • Berriz

**Pierresenea**  
OSTATU · JATETXEA  
Jaki tipikoak · Etxeko giroa  
Iburrietz auzoa · Tfnoa: 948 592 043  
ORNOZ · MUGAIRI

**F. LANCHAS**  
Akutilladorea eta berrizatzaila  
Parket eta parket flotatzaila  
Jartzea  
Mota guztietako zolak  
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

**Gure Haragia**  
**Nuestra Carne**

**PPSOE, Euskal Telebista digitala Nafarroan orain!**  
Berria erosi taldea

**ttipi-ttapa**  
info@ttipi.net  
(0034) 948 63 54 58

# BAZTAN

GIZARTEA → BABESTUTAKO EREMUA DELAKO

## Erdizen harrobia egitea legearen kontrakoa dela dio Erdiz Bizirik taldeak

Baztango Garapenerako Elkartearen eta Magnaren arteko lotura agerian gelditu dela uste du

### TTIPI-TTAPA

Magnaren Erdizeko harrobi egitasmoari buruz azkeneko egunetan izan diren mugimenduen inguruan, Erdiz Bizirik taldeak uste du «Baztango Garapenerako Elkartearen eta Magnaren arteko lotura, hasieratik biak ukatzen eta gezurtatzen saiatu izan direna, agerian gelditu dela eta borondate oneko jendea nahasteko eta erabiltzeko egin duten jokaldia guztiz salagarria dela iruditzen zaigu».

Erdiz Bizirik taldeak oroitarazi du Erdizeko bazkaleku komunala Aldude Mendi izeneko Zainketa Bereziko Ere-

muan dagoela, Europako Natura 2000 sarearen baitan, beraz «eremu horietan ez da gisako harrobirik egiten ahal, eremu horien babes izpirituaren aurka doalako». Erdiz Baztango bazkaleku komunalik handiena dela ere gogoratu dute, iaz, adibidez, 89 nekazarik Erdizeko bazkak beren azienda buruak bazkatzeko erabili zituzten. «Erdizek gaur egun funtzio produktibo garbia du eta Baztango ekonomian zuzenean eta zeharka paper garrantzitsua betetzen du. Bazkalekuaren desegiteak sektorearen kontra eta Baztango ekonomiarenean kontra gogor joko luke. Baztango Garapenerako Elkartek eta Magnak Baztango sektore estrategikoak urratu nahi dituzte guztiz menpekoa den eta hoge urterako bertzerik izanen ez den bertze produkzio bat jartzeko» gaineratu du taldeak.



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

### San Martin eskolako ikasle ohiek urteko bilkura egin dute

Garai batean bere bi ikastetxeengatik ezagun izan zen Oronoz-Mugairi. Mexikora gan eta dirutza eginda bueltatu zen Martin Urrutia Ezkurra herritarrek eginarazi zituen. Gaur egun, bi ikastetxeetan etxebizitzak egin dituzte, baina ikasle ohiek ez dituzte garai haiek ahaztu eta urteko batzarra egin zuten San Martin eskolako ikasle ohiek. Ekainaren 22an meza izan zuten, hildako ikasle eta irakasleen omenez. Jose Luis Casla ikasle ohiak eman zuen meza, Jesus Rekalde marista organoan lagun zuela eta Mari Carmen Torroba ahotsean. Ondotik, batzar orokorra egin zuten eta tartean, elkartearen kontuak aztertu zituzten. Zumarragako Francisco Vierbücher ikasle ohiak prestatutako argazki bilduma liburuan eta diapositibak ere ikusteko aukera izan zuten. Gero, bildutakoek ohioko argazkia atera zuten elkarrekin eta Urgain jatetxean bazkaldu zuten. Bazkaldon omenaldia eskaini zitzaizen bere garaian ikastetxeko sukalde laguntzaile edo pintxe izan zirenei. Zehazki Oronozko Jose Ignacio Etxabarri, Legasako Martin Irisarri, Iuritako Fernando Bertiz, Elizondoko Luis Miguel Lameirinhas eta Javier Etxegarai eta Cabanillasko Tasin Sangüesa, Ignacio Sangüesa eta Jesus Mateok jaso zuten ikastetxearen grabatu ederra, zuzendaritza batzordeko Pello Berho, Agustin Eraso, Victorio Morrás, Juan Luis Oskoz, Francisco Ferreras, Jesus Arregi eta Jose Antonio Seminarioren eskutik.

Esteribarko adibidea ez errepikatzen «hobe da duguna kontzea eta Baztango sektore eta baliabide estrategikoak iraunaraztea». Izan ere, Erdiz Bizirik taldeak dioenez, «Baztanek duen erakarpena eta lilura hain zuzen nekazaritzak sortutako giza eta natur paisaiarengatik

da. Horren desegiteak Baztango bertze sektore ekonomikoen kontra egingen luke».

Laburbilduz, Baztango Garapenerako Elkartearen eta Magnaren proposamena oraingo krisirat ekarri gaituen logika bera dela uste du Erdiz Bizirik taldeak, «Baztango sektore pro-

duktiboak xehatzea da, gaur egun egunerokogia irabazteko Erdiz erabiltzen duten herritarrek bazterrat botatzea, Baztanen erakarpenarekin eta zeharkako ehunka lanpostuekin akitzea, balio handiko natur ingurua erraustea... eta hori gutzia hoge urtez».



HILABETE HONETAKO  
ESKANTZA

80€

250 Bisita txartel

Koloretan bi aldeetatik  
300g (185cm x 55,6cm)  
Diseinua + inprenta + garraioa  
BEZa barne  
Epea: 10 lan egun

BISITA TXARTELAK  
TURISMO ETXEA - LANTEGIAK  
JATETXEA - DENDA - TAXIAK



Koskontako bidea, 7 - 1 | 31770 LESAKA  
948 635 458 | www.ttipi.net | info@ttipi.net



OSPAKIZUNAK → UZTAILAREN 21EAN

# Dena prest dago Baztandarren Biltzarra ospatzeko

50. edizioa  
*Baztanen eskuara barra-barra*  
goiburupean  
eginen da

## TTIPI-TTAPA

*Baztanen eskuara barra-barra* lelo berriekin, aurten 50. aldiz baztandarren besta haundia ospatuko da uztailaren 21ean. Aurten ere egun osoko besta izanen da eta hori horrela izateko egitarau osatua prestatu du Baztandarren Biltzarra elkarteak. Aldi honetako hitzordua, gainera, berezia izanen da, aurten 50 urte baitira besta hau egiten hasi zela. Hala urte osoan hainbat ekitaldi egiten ari dira herriz herri, eta kanta ere eginga da urteurrenaren kariatara.

Uztailaren 21eko egun handiari dagokionez, 10:00etatik aitzine- ra artisauen erakusketak egonen da ikusgai Pedro Axular karrikan.



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Azkeneko mende erdian bezalaxe, uztailaren 21ean orga apaindu ikusgarriak ikusiko dira Elizondoko karriketan Baztandarren Biltzarra egunean.

11:00etan herri bakoitzak prestatutako orga apainduen desfilea hasiko da. 14:00etan Mutildantzak izanen dira Elizondoko plazan eta ondotik herri bazkaria izanen da Merkatuko zelaian.

Bazkal ondotik ere izanen da zertaz gozatu. 16:00etatik aitzine- ra kantaldia eta tonbolaren zozketa eginen di-

ra eta ez dira faltako mutildantzak, Baztango gaita, muxikoak eta larraindatza ere. 18:00etan hasita Trikidantz taldeak dantzaldia eskainiko du Laxoako plazan eta ondotik Laiotz taldeak hartuko dio leku-koa.

## 50 URTE

1963an lagun talde bat izan zen Baztango

herriak bildu eta besta bat antolatzeko pausua eman zuena. Hura izan zen Baztandarren Biltzarren hasiera. Geroztik euri aunitz egin du, mende erdia pasatu da eta gaur egun Euskal Herri osoan aski ezaguna bihurtu da besta hau. Uztailaren 21ean ere jendetza elkartuko da Elizondoko karriketan barna.

## FLASH

### Herritarron epaia Elizondon

Ekainaren 8an abiatu zen Tafallatik Herrira mugimenduak sortutako "Herritarron epaia" ekimen ibiltaria, 197/2006 dotrina salatu asmoz eta euskal Herrian bakeari aukera bat eman behar zaiola eskatzeko. Epaia herritarren ekarpenak jasoko ditu irailaren 14ra bitarte. Doktrina aplikatua duten presoek hainbat herritatik pasaz. Uztailaren 27an Elizondora iritsiko da ekimen ibiltaria. Bertan, bertso, marrazki, musika, atxikimendu pintxo eta tragoen inguruan Iñaki E-ro eta doktrina aplikatua duten gainontzeko presoek egoera salatuko da. Hortaz, Baztango Herrirak dei egiten die herritar guztiei, uztailaren 27an arratsaldeko 7etan Eraso plazara agertu, eta bestetan ere, preso eta iheslariaren egoera gogoan beren ekarpena egitera.

### Egur lote eskaerak

Balleko Etxeak 2013ko egur lote eskaerak egiteko epea ireki du uztailaren 2tik abuztuaren 31ra. Egur lotea Baztanen errolatuak dauden biztanleei soilik emanen zaie, 12 euroren truke. Eskaera udaletxeko bulegoetan eginen da eta familia bakoitzak gehienez lote bat eskatzen ahalko du.

### Santiago Bidea

Elizondoko Santiago eta Irurritako Salbatorre elizak bisitatatzeko aukera dago abuztuaren 31 bitarte, 10:30etik 13:00etara eta 17:30etik 20:00etara.

# BAZTAN

KULTURA → PINTURA ETA ESKULTURAK IKUSGAI

## Artearen Ibilbideak hamar erakusketa zabalduko ditu udan

Elizondo eta Elbeteko 24 erakusleihotan ere ikusgai izanen da artea

### TTIPI-TTAPA

Artearen Ibilbideak hainbat artisten margo eta eskulturak ekarriko ditu Baztango aretoetara uda honetan. Horretaz gain, Elizondo eta Elbeteko 24 erakusleihotan ere ikusgai izanen dira artelanak.

Aipatzekoa da Ana Mari Marinek, 1970 urteaz geroztik bere obra Baztanen erakutsi ondoren, udazken honetan Iruñean erakutsiko duela. Baina hori alde batera utzita ere, izanen da zer ikusi Baztango aretoetan.

Honela, uztailaren 27tik abuztuaren 25era Jose Mari Apezetxea eta Roke Lasaren pintura erakusketa ikusgai izanen da Erratzuko Zubietean.

Uztailaren 23tik irailaren 1era, Tomas Sobrinoren "El placer de mirar (begiratzearen plazerra)" pintura erakusketa ikusgai izanen da Elizondoko Arizkuneko lehen solairuan.

Abuztuaren 1etik 20ra Jorge Cardarelliren "El príncipe que contemplaba su alma" pintura eta instalazioa ikus-

gai izanen da Arizkunenean.

Elizondoko Auza erakusketa aretoan ere pintura erakusketa zabalik izanen da udan.

Arizkongo Sasternean Xabier Soubeleten pintura erakusketa ikusgai izanen da uztailaren 18tik abuztuaren 30era. Diana Iniestak, "Isipulan" pintura erakusketa egingen du Erratzun abuztuaren 2tik 31ra.

Teresa Lafraguaren margoak ikusgai izanen dira Arizkongo Bozarte auzoko Santxotena parke museoan uztailaren 13tik abuztuaren 31ra.

Lesagibelen eskulturak abuztuaren 23tik irailaren 6ra jarriko dituzte Arizkunenean.

Baztango Jorge Oteiza Etnografia Museoak eta Javier Ciga bildumak ordutegi ezberdina izanen dute uda partean. Honela, uztailaren 3tik 14ra bitarte asteazketatik igandera, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara irekiko ditu bere atea. Uztailaren 15etik irailaren 15era berriz, astelehenetik larunbatera 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara eta igandetan 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

Bozateko Santxotena Parke Museoak berriz uztailaren 13tik abuz-



ARGAZKIAK: FOTO ZALDUA

### Ekaineko azken asteburua ederra izan zen Almandozen

Ekaineko azken asteburua berezia izan zen Almandozen. Alde batetik, sendotza egin zuten Naiara, Garbiñe, Ion, Mikel, Patxi, Ander, Xabi, Ioseba eta Pellok, gotzaia bertan zela eta bertze aldetik, omenaldia eskaini zitzaion herrian 50 urte apez bete dituen Ramon Apezetxeari. Ekitaldiak goizetik hasi ziren, apezaren etxe ondoan duela 46 urte berak sortutako Aurorak kantatu baitzituzten. Sendotzak egin ziren mezaeren bukaeran bertso berexiak kantatu zizkioten. Aurreskua dantzatu zioten Ruben eta Mariak eta gero txapel dotorea jarri zioten buruan. Herri bazkarian 100 bat lagun bildu ziren, tartean Ramon Apezetxearen anai-arrebak, ilobak... Horien artean, Aimar eta Asier Olaizola, emazte eta seme-alabekin joanak. Egun borobila izan zen.

tuaren 31ra irekiko da, asteartetik larunbatera 11:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 19:30era eta igandetan 11:00etatik 14:00etara.

### 24 ERAKUSLEIHO

Dendetako erakusleihotan ere artea ikusteko aukera izanen da udan. Elizondon, Fantxike, Iris loredenda, Ziauriz harategia, Virgilio zapatadenda, Kattalingo-ri-Zangue, Quevedo ferreteria, Piko piko, Mallenea, Yaben aseguruak, Perez mobleak, Belzunegi, Maricruz, Txokoto Ostatua, Mari Car-

men arropadenda, Arrechea Milar, Malkorra, Foto Zaldua, Noa lurrindegia, Axular, Jaimere- na ileapaindegia, Izeta

erlojudenda eta Argibel Optika eta Elbeteko posada dira ekimen honetan parte hartzen duten establezimenduak.

### ELIZONDO, IRURITA ETA ELBETEN

Atez atekoari buruzko herri kontsulta egingen da

### TTIPI-TTAPA

Balleko Etxeko azken batzarrean erabakienez, Elizondo, Elbete eta Iruritako herritarrek zabor bilketa selektiboa egiteko nahiago duten sistemari buruzko kontsulta egingen dute. Atez atekoa edo bosgarren edukiontziaeren artean aukeratzeko modua izanen dute kontsulta horretan. UPNk aurkeztutako mozioak Baztango Ezkerren babesa jaso zuen eta Bildu eta NABAIK kontra bozkatu zuten.



## ZUGARRAMURDI

KULTURA → GAZTELUGATXE PAREAN

# San Juan bezperan Bakion emanaldia eskaini du antzerki taldeak

Aspaldiko partez Iturengo joaldunekin batera aritu ziren, gaupasetan lezeetan aritzen ziren gisan

### Margari eta Koro

Aurten ez da "Sorginaren eguna"rik antolatatu, baina antzerki taldekoak ez dira geldirik egon: herritik franko urrun gan ziren, Bakiora, eta han San Juan bezperako gauean emanaldi bat eskeini zuten, Gaztelugatxeko parean, itsasoaren gaineko aldeko paraje eder batean. Aspaldiko partez, Iturengo joaldunekin batera aritu ziren, lehenengo gaupasetan Zu-

garramurdiko lezeetan aritzen ziren gisan.

### Herritarra Bost baietz lehiaketan

ETB-1ean ematen den "Bost baietz" lehiaketan herritar batek parte hartu zuen: Antzerki taldekoak Gaztelugatxeren pasaietan ibilki zirenean, hantxe programa grabatzen ari zirela ikusi zuten. Lehenbizian parte hartzen ari zenari laguntzen hasi zen Alfredo, galderen erantzun batzuek emanez, eta hondarrean berak ere parte hartzen finitu zuen, Julian lantzi lesakarrak aurkeztutako saioan.

Seguraski Ttipi-Ttako ale hau agertu orduko programa hori emana izanen da, uztaileen hasieran emateko baitezuten.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO  
Emanaldi berezia eskaini zuen antzerki taldeak Bakion San Juan bezperako gauean. Aurten ez da Sorginaren Egunarik antolatatu, baina halere, ez daude geldirik egotekoak.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

### M<sup>a</sup> Eugenia Urrutia eta Juanjo Elgorriagak Urrezko Ezteiak

Ekainaren 6an Urrezko Ezteiak bete zituzten Maria Eugenia Urrutia eta Juanjo Elgorriagak. 50 urteen buruan familia haundia osatu dute: 6 seme-alaba eta 12 bilobekin. Ospakizuna berriz, ekainaren 22an egin zuten.

**APARAN, S.A.**  
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...



Tel: 948 456 080  
Fax: 948 450 334  
**DONEZTEBE**

**JATETXEA-ERBETEGIA**  
**MONTXO**  
OSTATUA · TABAKO-DENDA

Egunero irekia  
09:00etatik  
02:30era

Dantxarineatik  
2 km.tara



PLATER KOMBINATUAK · OGITARTEKOAK  
MENUAK ENKARGUZ · PINTXOAK  
ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA · URDAZUBI | 948 599 039  
montxoblanco@gmail.com

# SARA

**OSPAKIZUNAK** → UZTAILAREN 14 ETA 15EAN

## Kukuxu besta antolatu du lehen aldiko Orfo Pub elkarteak

Selauru huste haundi bat da, 300 erakusketari izanen baitira plazan

**Joana GUERENDIAIN**

Orfo Pub elkarteak uztailaren 14 eta 15 ean, igande eta astelehenez, lehen aldiko Saran kukuxu besta bat antolatu du. Kukuxu besta, azken finean selauru

huste handi bat da; 300 erakusketari izanen dira plazan eta polikiroldegian instalatuak. Bakotxak bere zoriona atxematen ahalko du: zaharkia, bilduma, liburu, «vintage» erakusmahaiak izanen dira bertze ainitzen artean. Sarzea urrik izanen da.

### Kantaldia

Uztailaren 18 an, osteguna, gaueko 9:30ean, Atsulai abesbatzak kantaldia ematen du Santa Katalinako kaperan. Atsulai gizon eta emazte nahastuen dituen Ainhoako abesbatza da.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

### 120 txirrindulari Sara VTT proban

Ekainaren 23an Sarako turismo bulegoak VTT ibilaldia antolatu zuen. Biziki kontent dira 120 animatzaile motibatu baitira euriarekin ere eta dena ongi pasatu baita.

nen du Santa Katalinako kaperan. Atsulai gizon eta emazte nahastuen dituen Ainhoako abesbatza da.

### Pottoka feria

Aurten Pottoka feria uztailaren 20an eginen

da. Usaian bezala goizean behor eta behoka txapelketa eginen da plazan, denbora berean bertze pottokakikusten ahalko dira. Ondotik eguerditan bazkaria eginen da aterpe azpian.

### Margo erakusketa Lur Berrin

Udako ohiturei eutsiz, uztailaren 20tik 30era Larrungo koloreak elkarteak bere margo erakusketa antolatu du Lur Berri gelan.

# KULTURA

**LABURMETRAI LEHIAKETA**

## Urdazubi eta Leitza Zinearen Lurraldean sartu dira

Gidoiak abuztuaren 15a baino lehen aurkeztu behar dira

**TTIPI-TTAPA**

Nafarroako herritan eginen diren hamar laburmetrai ikusgai izanen dira Nafarroa Zinearen Lurraldea lehiaketaren lehenbiziko edizioan. Nafarroako turismoa bultzatzeko anto-

latu den lehiaketa honetako bi filma Leitza eta Urdazubin grabatuko dituzte.

Ekainaren 27an egin zuten lehiaketaren aurkezpena Nafarroako Museoko ekitaldi aretoan eta bertan izan ziren Andosilla, Uharte, Urdazubi, Iruña, Biana, Leitza eta Argedasko udal ordezkariak ere. Urdazubitik, Santiago Villares alkatea eta Leitza-tik Juan Mari Barriola zinegotzia izan ziren udal



UTZITAKO ARGAZKIA

Lehiaketaren aurkezpenan izan ziren Leitza eta Urdazubiko udal ordezkariak ere.

ordezkariak. Lehiaketaren lehen fasean, partehartzaileek lehen gidoi proposamenak aurkeztu beharko dituzte abuztuaren 15a baino lehen. Epaimahaiak, aurkeztutakoetatik erodaje fasera pasatuko diren hamar gidoi auke-

rakotzatuak, montatuak eta bukatuak, urriaren 15a baino lehen aurkeztu behar dira eta azaroan ikusgai izanen dira herritako zine aretoetan.

Bigarren fasean erabakia hartuko du epaimahaiak. Lehenbiziko

saria 2.500 eurokoa izanen da, bigarren saria 1.000 eurokoa, argazki onenarentzako 500 euroko hirugarren saria ere izanen da eta publikoaren saria, bertze 500 eurokoa. Informazio gehiago: [www.navarratierradecine.es](http://www.navarratierradecine.es)



OSPAKIZUNAK → AUZOZ AUZO, BESTAZ BESTA

## Herriko besta ederren ondotik laster Amotzekoak ospatuko dira

Bi egunez Urguriko saihesbiderat desbideratu dira autoak eta karrika nagusian oinezkoak lasai ibili dira

**Franck DOLOSOR**

Besten garaia da Senperen. Aintzirako hitz orduaren ondotik, karrika nagusiko bestak ederki iragan dira aitzineko egunetan gero eta jende gehiago bilduz giro ezin hobean. Anitzen gogoan egonen dira oraino ortziraleko zikiroa, larunbateko txirridulen nor gehiagoka herriko etxearen plazan, ahate jokia karrika nagusian edo Hinka eus-

kal musika garaikidea eskaintzen duen taldearen lehen agerraldia gure herrian. Astelehena herritarren eguna izaten da eta aurten marrazki bizidunen lelopean ospatu da. Karia hortarat gazte frango mozorro-tu da telebista eta zine munduko pertsonaien itxurak hartuz eta gisa hortan gure artean izan ditugu Mario Bros, Tintin, Disneyren dalmatak edo Edurne Zuri. Hiru Soinu amoztar laukotearen kantaldian mundua bildu zen berriki Agorila disketearen eskutik atera duten lehen grabaketa zuzenean entzun nahi baitzuten. Aurten herritarrak izan dira nagusi karrika nagusian eta ez ibilgailuak. Urguriko saihesbiderat desbideratu dira autoak eta gisa huntan gure karrika nagusia



ARGAZKIAK: FRANCK DOLOSOR

Enbata taldeak, eta bereziki Julen kantariak, gaitzeko giroa piztu zuten herritarren egunean. Urte guziz 30 kontzertu pasa eskaintzen dituzte eta aintzek ez dute berehala ahantziko Senperen egin duten emanaldia.

osoki hetsia izan da bi egunez ttiki, gazte, heldu eta adinekoen plazerrarentzat.

Senpereko Jondoni Petrikari bestak bururatuturik, orain amoztarrek hartuko dute lekukoa uztaila erditsuan. Uztailaren 14ean, igandearekin ekitaldi andana ospatuko da, hauen artean 19:00ak aldean geldu behar ez diren bi kantaldi: Arrantzaleak gizon korala eta Amaia Rio-uspeyrous kantariare-

na. Besta on amoztarrei!

### Udako merkatua

Esku lanak preziazten dituztenek hitz ordu berria dute uda osoan. Astearte goiz guziz Senpere eta inguruetakoko hamar bat artisauk parte hartzen dute udako merkatuan Postaren aitzineko plazan. Arte egile batzuk Gipuzkoa, Biarnoa eta berdin Landetatik etorriko dira aste guziz.

### Udako ibilaldiak astelehen guziz

Oinez multzoan ibiltzea maite dutenek parada berria dute uda huntan. Astelehen guziz hitz ordua finkatua da turismo bulegoan 14:00etan ibilaldi bat egiteko elgarrekin herrian barna.

Ateraldiaren hondarean geldialdi bat egiten da Maxalenea etxaldean bertako jabeek egiten duten ardi gasna dastatzeko.



ARGAZKIAK: FRANCK DOLOSOR

### Kabala ederrak ikusi dira abere lehiaketan

Senperen laborantza nagusi izan da berriki arte eta horregatik seguraski arrakasta polita erdiesten dute beti primek, abere lehiaketek. Kabala ederrak ikusteko parada izan da hor, hauen artean sarituak izan diren Pantxo Bidart hazpandarraren behorrak.



**Martzutzak**  
ZURE OSPAKIZUNETARAKO  
BEHAR DUZUN GUZTIA.  
♥ Soinekoak  
♥ Ilerrako apaingarriak  
♥ Poltsak  
♥ Bisuteria

Bidasoa, 12 • BERA  
948 631 425

## EZKONTZAK

**Elena Ansalas Bengoetxea** eta **Mikel Almandoz Telletxea**, Zugarramurdi eta Lesakakoa, ekainaren 29an.

**Iñaki Vera Mutuberria** eta **Nuria Bereau Altxu**, Iturengoak, ekainaren 29an.

**Iñaki Bereau Sein** eta **Nagore Txoperena Migelena**, Igantzikoak, ekainaren 28an.

**Fernando Gurich Mina** eta **Saioa Meo-ki Etxebeste**, Iruña eta Doneztebekoa, ekainaren 15ean.

**Jerome Barrenetxe** eta **Mahacine Mammadou**, Sarakoa, ekainaren 22an.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*

**kukuka**  
uztailaren 1etik aitzinera

**MERKEALDIA**

Zarpigurutze, 1 • DONEZTEBE • 948 450 252

## SORTZEAK

**Ibai Genua Agirre**, Leitzakoa, ekainaren 1ean.

**Oinatz Telletxea Zabaleta**, Leitzakoa, ekainaren 14an.

**Oihan Aranguren Mutuberria**, Lesakakoa, ekainaren 17an.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*

**Belen**  
Loreak eta Florak

**AUKERA ZABALA LORETAN**

Intzakardi, 8 • DONEZTEBE  
T. 948 451 758

## HERIOTZAK

**Mari Carmen Gimera Colau**, Doneztebekoa, ekainaren 21ean, 83 urte.

**Antonia Telletxea Bertiz**, Oronoz-Mugairikoa, ekainaren 23an, 93 urte.

**Gertrudis Ballarena Goñi**, Elizondokoa, ekainaren 24an.

**Maria Muskilda Romero Gil**, Donamarian, ekainaren 24an, 82 urte.

**Maria Jesus Zelaieta Iantzi**, Berakoa, ekainaren 24an, 79 urte.

**Pepita Santos Garcia**, Lesakakoa, ekainaren 29an, 79 urte.

**Juan Irigoien Duhalde**, Elizondokoa, ekainaren 29an, 96 urte.

**Emile Guijarro**, Sarakoa, ekainaren 22an, 86 urte.

**Placido Zubieta**, Sarakoa, ekainaren 22an, 89 urte.



GRUPO TANATORIO TALDEA  
**IRACHE**  
MALDAERREKA S.L.

24 ORDUKO TELEFONOA  
948581959 | 948637404

LEKUNBERRI | BERA (SAN JOSE) | LESAKA | ELIZONDO (BAZTAN) | LEITZA | BETELU  
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)

- TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -  
- LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -



PILOTA → EKAINAREN 30EAN LABRITEN

## Azpitxapeldun izan da Doneztebe Nafarroako Herriartekoan

Bina partida irabazi zituzten Doneztebek eta Iruñak, baina tantu gehiago egin zuten hiriburukoek

### TTIPI-TTAPA

Hirugarren urtez segidan Nafarroako Herriarteko pilota txapelketa nagusiko finalerako txartela eskuratu zuen Doneztebek. Ekainaren

30ean, igande goizean jokatu zuen Iruñaren kontra, baina aitzineko bietan ez bezala, orainoan galtzea suertatu zitzaion.

Ez ziren ongi hasi gauzak. Alebinetan, Doneztebeko Julen Santesteban eta Gaizka Agirrek 5-18 galdu zuten Iruñeko Oskoz eta Cuairanen kontra.

Kontuak berdindugoa joan ziren bigarren partidan, infantil mailakoan. Doneztebeko Iker Salaberrriak eta Julen Saldiasak 18 eta 14 ira-



bazi zieten Iruñeko Garcia eta Cordon-i, puntu garrantzitsua eskuratuz.

Jubeniletan ere, garraipen garbia lortu zuten Doneztebeko Joanes Bakaikoa eta Ruben Medinak, 22 eta 6 irabazi baitzieten Iruñeko Jamar eta Anduezarri.

Gauzak honela, seniorretako azken partidan 16 tantu egitea aski zuten Bendoiro eta Gorritik txapela hirugarren urtez segidan Doneztebera ekartzeko. Diaz eta Etxamendiren



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

Finalista guziak goian. Doneztebeko ordezkariak behean.

kontrako partida ongi hasi zuten gainera, 0-5 irabaziz, baina seinako berdinketaren ondotik, gehiago izan ziren Iruñekoak. Azkenean 22-

10 irabazi zuten eta beraz, bina partida irabazi arren, azpitxapeldun izan ziren, Iruñeak 60 tantu egin zituelako eta Doneztebek 55.

PILOTA → 22-7 IRABAZI ZION IRUJORI

## Buruz buruko txapel haundia laugarren aldiz irabazi du Aimar Olaizolak

Jaun eta jabe izan zen goizuetarra Bilbon ekainaren 23ko finalean

### TTIPI-TTAPA

Partida bikaina egin da, buruz buruko txapelketa nagusia laugarren aldiz irabazi zuen ekainaren 23an Aimar Olaizola Goizuetako pi-

lotariak. Hasiera berdinduaren ondotik, Olaizola II.ak 22-7 irabazi zion Irujori, iaz bezalaxe.

Parekatuta joan ziren lehenbiziko tantoak, baina 4-3koaren ondotik tarte ireki zuen Olaizolak markagailuan. Gero eta handiagoa egin zen tarte. Min egin zuen Goizuetakoak sakearekin, eta ez zen finibili Iberokoa. Tantoa bukatzeko aukerak izan zituenean Irujok hutsak egin zituen errematean,



ARGAZKIA: DIARIO NOTICIAS

Aimar Olaizolaren bizkarra nahi baino gehiago ikusi behar izan zuen Irujok.

eta ezin izan zion Olaizolaren jokoari eutsi.

Tantoak pilatuz joan zen Olaizola II.a, 12-3ko abantaila eskuratzearino. Azkenean, zazpi tantoan utzi zuen Irujo, iazko finaleko markagailua errepikatuz.

Bosgarren finala zuten elkarren aurka buruz buru, eta bina garraipen zituzten. Olaizolak aurre hartu dio orain Irujori. Lau txapel zituzten Ruben Belokik, Martinez de Irujok berak eta Atano III.ak; hai-

en marka berdindu du Olaizola II.ak.

Gainera, lau terdiarren barrenean dituen sei txapelekin eta binako txapelketako beste birekin, hamabi txapel baditu dagoeneko Goizuetako aurrelariak.

ATLETISMOA → DURANGON EKAINAREN 22-23AN

## Nafarroako 200 metroko errekorra hobetu du Ane Petrirena sunbildarrak

Holandan jokatu den Europako gazteen jaialdi olimpikoan izanen da Espainiako selekzioarekin

### TTIPI-TTAPA

Lagunak taldean ari den Ane Petrirena atleta sunbildarra bigarren

izan da Espainiako jubenil mailako atletismo txapelketako 200 metroko lasterketan. Ekainaren 22 eta 23ean Durangon (Bizkaia) jokatu zen txapelketa eta 200 metroko proba horretan azpitxapeladun izan zen Ingrid Andres kataluniarren gibeletik. Hala ere, aipatzekoa da 24"74ko denbora egin zuela, Nafarroako errekor berria ezarritik. Aurrekoa (25"23), Arantxa



UTZITAKO ARGAZKIAK


Ane Petrirena bigarren sartu zen 200 metroko proban. Halere, 22 urte zuten Nafarroako errekorra hobetu zuen.

Reinaresen esku zegoen 1991 urteaz geroztik.

### EUROPAKO GAZTEEN JAIALDI OLINPIKORA

Egindako denboraldi bikainean oinarrituta (Espainiako txapelketan martxoan Antequeran pista estaliko garaile eta Durangon Aire Librean bigarren), Espainiako

selekzioan Nazioarteko Olinpiar Batzordeak (COI) antolatzen duen FOJera (Europako gazteen jaialdi olimpiko a) joateko aukeratu du Ane Petrirena. Herbeheretako Utrech hirian jokatu da uztailaren 14tik 19ra eta bertan 49 estatutako atletek hartuko dute parte.



HERRI KIROLA → EKAINAREN 30EAN JOKATU ZEN BIGARREN SAIOA UHARTEN

## Nafarroako Herri Kirol Torneoko hainbat txapel eskualdeko kirolarientzat

Xabier Ariztegi etxalartarra nagusitu da harri jasotzen

### TTIPI-TTAPA

Nafarroako Herri Kirol Federazioak antolatutako Herri Kirol Torneoaren bigarren eta azken jardunaldia jokatu zen ekainaren 30ean Uharten.

Kadete mailako koxkor biltze txapelketan, Berriozarko Oier Etxeberria nagusitu zen Uharten (3:23.16). Sei

segundo eskas gehiago behar izan zituen Andoni Lazkanotegik, baina lehenbiziko saioko denborari esker, beratarra izan da txapeladun.

Helduen koxkor biltze txapelketan berriz, lehenbiziko saioan garaile suertatu zen Fernando Etxegarai beratarrek ez zuen parte hartu Uharten. Berriozarko Eder Golarazena irabazi zuen Uharten (6:40.89) eta beretzat izan zen txapela. Ondotik sailkatu ziren Elizondoko Iñaki Telletxea, Anizko Unai Iantzi eta

Etxalarko Andoni Lasaga.

Ingude altxatzen, Berako taldeko Aritz Iruzkizak 57 altxaldi egin zituen eta beretzat izan zen txapela. Gibelean utzi zituen Auzako Ander Iribarren eta Berriozarko Imanol Martin eta Iker Lizarraga.

Harri jasotzen, Josetxo Urrutia leitzarrak ez zuen parte hartzerik izan Uharten. Lehenbiziko saioan, leitzarrarekin berdindu egin zuen Xabier Ariztegi *Santxin* etxalartarrak eta Uharten bera izan zen nagusi,



ARTXIBOKO ARGAZKIA

3.375 kilo altxatu zituen Ariztegi Uharten.

si, 3.375 kilo altxatuta. Xabier Igoa bigarren izan zen. Beraz, txapela etxalartarrarentzat.

Emakumezkoen arpana txapelketan, Berako Amaia Garcia eta Leire Astiazaran zizurkildarra nagusitu ziren Uharten, Eltsoko Ainhoa Iraizoz eta Ana Iraizozen aitzinetik. Lehenengo saioan Nerea Sorondo beratarra aritu zen Amaia Garciarekin, bai-

na bigarrenean ezin izan zuen parte hartu. Hala ere, txapela hiruentzat da.

Zakulari lasterketan, Berriozarrek eraman zuen txapela eta txinga eramaten Iberoko Adrian Berruezo izan zen onena. Josetxo Urrutia leitzarrak ez zuen parte hartu, beraz, ez zen eskualdeko ordezkari izan bi proba hauetan.



**TXIRRINDULARITZA** → 23 URTEZ BEHEITIKO ERREPIDEKO PROBAN

# Beñat Txoperenak zilarrezko domina eskuratu du Espainiako txapelketan

Mungia-ko lasterketan denboraldiko lehen garaipena lortu du

## TTIPI-TTAPA

Beñat Txoperenak zilarrezko domina eskuratu zuen ekainaren 23an Leongo Bembren jokatu zen 23 urtez beheitiko Espainiako errepideko txirrindularitza txapelketan. Igantziarra, Kantabriako Mario Gonzalezekin eskapatua ailegatu zen helmugara, baina hau gailendu zitzaion azkenean.

134 kilometroko lasterketa egiteko 119 txirrindulari bildu ziren irteera puntuan. Hasierako ihesaldien ondotik,



UTZITAKO ARGAZKIA

Beñat Txoperena gustora Espainiako txapelketako podiumean.

hamasei laguneko taldea osatu zen lasterketa buruan, tartean Beñat Txoperena bera zela. Tropela giblean utzita, beraien artean erabaki zen txapelduna.

Pixkanaka, 16ko talde-txotik txirrindulariak gibelera gelditzen joan ziren. 104. kilometroan bost txirrindulari bakarrik gelditu ziren aitzinean eta taldetxo horretatik

Gonzalezek eta Txoperenak alde egin zuten helmugarako 20 kilometro falta zirela. Helmugan, kantabriarra nagusitu zitzaion igantziarrari. Beñat Txoperenak

kantabriarraren nagusitasuna onartu zuen eta aipatu zuenez, «guri komeni ez zitzaigun lasterketa egoera moldatzeko lan egitea suertatu zaigu eta erori ere egin naiz, baina emaitzarekin aski kontent gelditu naiz».

Espainiako errepideko txapelketan azpitxapeldun izan aitzinetik, Euskadiko erlojuaren kontrako txapelketan hirugarren izan zen eta Nafarroako Itzuliko podiumera ere igo zen. Ekainaren 30ean, berriz, Mungia Sagasti Memorialearen irabazi zuen, denboraldiko lehen garaipena lortuz. Mendiko sailkapena ere igantziarrarentzat izan zen eta taldekako sailkapena ere Eki Sport bere taldeak irabazi zuen.

**TXIRRINDULARITZA** → BETERANOEN NAFARROAKO TXAPELKETAK JOKOAN

## Baztangoizako infernutik hiru txapel lortu dituzte Transbidasoako kideek

Ekainaren 23an jokatu zen Arizkun

## TTIPI-TTAPA

Nafarroako beteranoen txirrindularitza txapelketak erabaki ziren ekainaren 23an Arizkun, Baztangoizako Infernua izenarekin bataiatutako proban. Transbidasoako Euromaster-Sinertecnik taldeko Iñaki Villoria iruritarra 3. izan zen, bere iheskilde izandako Teo Casabal irabazlearen eta Antonio

Martín "Pispajo" bigarren sailkatuaren gibelatik helmugaratuta. Taldekideek ere lan txukuna egin zuten, Ion Zeberio elizondarra 4., Luziano Mitxelena lesakarra 5. eta Joxe Angel Mitxelena lesakarra 11. sailkatuz; Ibon Urtiagak eta Txutxin Fernandezek matxuren ondorioz laisterketa utzi behar izan zuten.

Arizkungo herriak master mailako Nafarroako txirrindularitza txapelketa jaso zuen, horretarako prest zuten

82 kilometro ibilbide berritzailea, Baztangoizako errepide, porlan bide eta arbideetan barrena; CC Baztandarra-ko antolatzaileek beraien "Baztangoizako Infernua" izenez ezagutarazi zutena.

Laisterketari dagokionez eguraldiaren ondorioz partaidetza eskaxa izan zen, 30 txirrindulari inguruan; hala ere maila handiko txirrindulariak gerturatu ziren, ingurukoetaz aparte Gaztelako edota Espainiako txapeldunak



UTZITAKO ARGAZKIA

Villoria, Goñi, Zeberio eta Mitxelena txapeldunak.

ere bertaratu baitziren arizkundarrek prestatutako ibilbidea ezagutu nahian.

Nafarroako txapelketari dagokionez jokoan jarritako lau txapelketatik hiru jantzi zituzten Transbidaso taldeko

txirrindulariek, Ion Zeberio (senior), Iñaki Villoria (master40) eta Luziano Mitxelenak (master60); master30 mailan Iraitz Goñi arbizuarrek eskuratu zuen eta master50 mailan ez zen partaiderik azaldu.

## uztailak 11 - 25

Informazioa bidaltzeko: [info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net) edo 948 63 54 58**Erakusketak**

BAZTAN | 2013.07-2013.08

**'Artearen ibilbidea' udako erakusketen berri emanez**

Artearen ibilbidea izenburupean, uda honetan ere Baztango herrietan ikusgai izanen diren erakusketak bildu ditu Baztango Kultura Zerbitzuak.

**Aurkezpenak**

BORTZIRIAK | 2013.07.11-16

**Ekonomia Astearen barne hitzaldiak Beran eta Lesakan**

Ekonomia solidario eta alternatiborako proposamenen aurkezpenak eginen dira Beran uztailaren 11n eta Lesakan uztailaren 16an, Bidazi elkarteak antolatuta.

**Azokak**

SARA | 2013.07.20

**Pottoka Eguna eginen da Saran uztailaren 20an**

09:00etan hasita, pottoka lehiaketa eginen da Pottokaren Egunean. Animazioak ere izanen dira, baita zikiro jatea ere. 1996az geroztik egiten da besta hau Saran.

**eta aurkezpena**

Uztailaren 16an *Con tu dinero* dokumentala eta Fiare banka etikoa-ren aurkezpena Udala-ren erabilera anitzeko aretoan.

**Lehiaketak**

IGANTZI

**Bestetako azal lehiaketa**

Uztailaren 18ra arte aurkez daitezke bestetako programaren azal lehiaketako lanak.

**Zinema**

BERA

**'Izan Pirata' Gaztetxean**

Uztailaren 12an Donostiako Piraten eskutik *Izan Pirata* dokumentalaren aurkezpena, 19:00etan. Ondotik luntxa eta solasaldia.

ELIZONDO

**Udako zinema**

Uztailaren 15ean *Blakie eta kanuto* filma Merkatuko plazan, 22:00etan.

ELBETE

**Udako zinema**

Uztailaren 22an *Xora* filma pilotalekuan, 22:00etan.

GARTZAIN

**Udako zinema**

Uztailaren 29an *Barriola San Adriango azeria* filma pilotalekuan, 22:00etan.

ZIGA

**Udako zinema**

Abuztuaren 5ean *Izotz Aroa 3 dinosaurioen egunsentia*, 21:30ean.

**Kontzertuak**

SARA

**Ainhoako abesbatza**

Uztailaren 18an Atsulai abesbatzaren kantaldia Santa Katalinako kaperan (21:30).

**Erakusketak**

ELIZONDO

**Tomas Sobrinoren margo erakusketa**

Uztailaren 23tik irailaren 1era *El placer de mirar* margo erakusketa Arizkunenean.

**Jorge Cardarelliren pintura eta instalazioa**

Abuztuaren 1etik 20ra *El principe que contemplaba su alma* erakusketa Arizkunenean.

**Lesagibel eskulturak**

Abuztuaren 23tik irailaren 6ra eskultura erakusketa Arizkunenean.

ARIZKUN

**Xabier Soubeleten margo erakusketa**

Uztailaren 18tik abuztuaren 30era margo erakusketa Sasternean.

**Teresa Lafraguaren margo erakusketa**

Uztailaren 13tik abuztuaren 31ra margo erakusketa Santxotena Parke Museon.

ERRATZU

**Jose M<sup>o</sup> Apezetxea eta Roke Lasaren margo erakusketa**

Uztailaren 27tik abuztuaren 25era margo erakusketa ikusgai Zubietean.

**Diana Iniestaren margo erakusketa**

Abuztuaren 2tik 31ra *Ispiluan* erakusketa.

SARA

**Margo erakusketa**

Uztailaren 20tik 30era Larrungo koloreak elkartean erakusketa Lur Berrin.

**Ikastaroak**

ELIZONDO

ELIZONDO

**Baztandarren Biltzarra Elizondoko karriketan**

Baztandarren besta haundia uztailaren 21ean eginen da Elizondon, ondoko egitarauarekin: 10:00etan artisauak, 11:00etan orgen desfilea, 14:00etan Mutildantzak plazan, 14:30ean bazkaria Merkatuko zelaian, 16:00etatik aitzinera kantaldia, tonbolaren zozketa, Mutildantzak, gaita, muxikoak eta larraintza. 18:00etan Trikidantz eta ondotik Laiotz.

**Helduentzako margo ikastaroa**

Abuztuaren 1etik 14ra *Baztango paisaiak* kanpoko margo ikastaroa helduentzako. Izen-ematea zabalik Arizkunenea Kultur Etxean, 130 euro ordainduta. 10 laguntzako tokia.

BERA

**Helduentzako euskal dantza ikastaroa**

Uztailaren 16 urtetik goitikoentzat euskal dantzen ikastaroa.

ETXALAR

**Gantxilo tailerra**

Ortziralero 18:30etik 21:00etara, dohainik.

**Hitzaldiak**

BERA

**Ekonomia Astearen baitan aurkezpena**

Uztailaren 11n Coop-57 (banka etikoa) eta Trukeadosen (denbora trukea) aurkezpena Beralandetan (19:00).

LESAKA

**Ekonomia Astearen baitan dokumentala**

## PROPOSAMENA





## Bestak

ITUREN

**Herriko bestak**

**Uztailaren 19tik 22ra.**

ARANO

**Santioak**

**Uztailaren 21ean eta 25etik 28ra.**

ELGORRIAGA

**Santioak**

**Uztailaren 24tik 27ra.**

ELIZONDO

**Santioak**

**Uztailaren 24tik 28ra.**

GOIZUETA

**Karmen besta**

**Uztailaren 15ean.**

SENERE

**Amotzeko bestak**

**Uztailaren 14an.**

ARANTZA

**Ballekasko bestak**

**Uztailaren 27an.**

## Ospakizunak

ELIZONDO

**Baztandarren Biltzarra ekitaldiz gainezka**

**Uztailaren 21ean**  
Baztandarren  
Biltzarra.

SARA

**Kukuxu besta**

**Uztailaren 14 eta 15ean** Kukuxu besta.

## Azokak

SARA

**Ortzeunero azoka**

**Uztailaren 4tik irailaren 26ra** ortzeunero azoka plazan.

**Pottoka Eguna**

**Uztailaren 20an** Pottoka feria eginen da.

SENERE

**Asteartero azoka**

**Udan** astearte guziz merkaturia Postaren aitzineko plazan.

## ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

### Liburua




Absurdoko kontuak edo zoroen herriko kronikak

**PATXI ZABALETA**

Pamiela, 2013

**A**bsurdoko kontuak edo zoroen herriko kronikak bilduma da, eta aitzakia horretan bizimoduaz, denboraz, askatasunaz eta pertsonaren grinez eta kezkez egiten den hausnarketa; ikuspegi filosofiko batetik abiatuta, ipuin mota berezi bat taxutzeko ahalegina egin du Patxi Zabaleta leitzarrak; pentsaerari buruzko hausnarketa bat. Absurdoko kontuak ez dira kontu absurdoak. Ele hauen xedea ez da zentzugabekeria edo kontraesanean murgiltzea, baizik gizakiaren grinak herriaren ikuspegi *nor-anizkotik* aztertzea eta deskribatzea, norbanakoaren ikuspegitik beharrez; talde ikuspegitik, alegia. Maitasuna, sexua, aginteak, bizirau-pena, sinesmena, pobrezia, gorrotoa, zentzu ona eta abar, norbanakotik harantzago badauden fenomenoak baitira. Idazle bezala, literaturari dagokionez, hiru olerki liburu argitaratu ditu, bost nobela, antzerki egitura-ekin beste bat eta hainbat ipuin liburu, biografia eta saiakera ere argitaratuak ditu.

### Musika



Mandoilek

**MANDOILEK**

Elkar, 2013

**T**alde berria eta gaztea baldin bada ere, musika munduan eskarmentu haundikoak dira Mandoilek taldea osatzen duten bortz lagunak, eta aurretik kaleratu duten lehenbiziko lanak betiko erritmo dantzagarrietan oinarritutako nahaste erakargarria dakarkigu. 2011ko neguan batu ziren Igon Olaguenaga eta Asier Linares eta kantak pilatuz joan, eta kide berriak batu zitzaizkien taldera: David Ferreño baxu jotzailea, Andoni Vera gitarra jotzailea, eta Unai Mendibil abeslaria. Ongi pasatzeko asmoz hasi ziren trikitiari kumbia, korrido eta runba erritmoak batzen eta aurretik taldearen izen bereko lehenbiziko diskoa kaleratu dute. Dantzagarriak dira kantarik gehienak, erritmo biziak dira nagusi, baina bada erritmo lasaiegoko kanta pare bat ere. *Be Quiet* izeneko reggae kanta da horietako bat, eta *Joan eta etorri* maitasun kanta bertzea. Kolaboratzaile sorta izan dute diskoa grabatzeko.

### Internet




Berriaren estilo liburu digitalizatua

**WWW.BERRIA.INFO/ESTIOLIBURUA/**

**D**uela sei urte paperezko estilo liburu argitaratu zuten Berria egunkariak eta duela gutti, berriz, Interneteko saltoa egin du, proposamen praktikoak eta koherenteak eginez estilo liburu digitala paratu baitu martxan. Erabiltzaileak erraz aurkituko du zernahi Berriaren estilo liburu digitalean, emaitzak ongi ordenatuak ematen baitira. Gainera, nahi duenak estilo liburuaren inguruko kexa edo iradokizunak egiteko aukera izanen du, baita edozein galdera egiteko modua ere. Estilo liburuaren 10 atal nagusiak hauek dira: 1. Deontologia (Berriko langileek bete beharreko oinarri deontologiko nagusiak), 2. Informazio generoak eta elementuak, 3. Idazkuntza (komunikazio argi eta erakargarria lortzeko baliabideak), 4. Internet. (sareko idazkeraren berezitasunak), 5. Ortotipografia (letra larri eta xeheak nola erabili, letra etzana, zenbakien idazkera...), 6. Onomastika (izen bereziak nola idatziz), 7. Munduko herrialdeak, 8. Euskal Herriko herri izendegia, 9. Hiztegia eta 10. Bibliografia.

## Nire aukera



**Jabier SEIN**

Iturengo txirindulari gaztea

## «Munduko Kopan parte hartzera ailegatu nahiko nuke»

**K**adeteen Euskadiko eta Nafarroako Txapelketak irabazi ditu aurretik Jabier Sein txirindulariak eta Espainiakoaan laugarren izan da. Bizikletan ibiltzea du afizio nagusia, baina iturendarra izaki, joareak jotzea ere gustuko du: «joareekin giro ederrera paratzen dugu», dio. Denbora librean duenean lagunekin egoten dela ere gaineratu digu. Ikaslea ere bada. DBHI akitu du Doneztebeko institutuan eta heldu den urtean Iruñean segituko du elektrizitatea ikasten. Leku berriak ezagutzea ere gustatzen zaio eta bidaien artean Parisera eginikoa du gogoan: «ttikitari familiarekin oporretan joan nintzen, hagitik polita da». Suitzara ere joanen litzateke: «han ere familia badu eta mendi aunitz daude oinez eta bizikletan ibiltzeko». Igande gehienetan lasterketak izanda, larunbatetan etxean gelditzen da, baina «libre duanean, besta egitea gustuko dut», erran digu. Etorkizunera begira, txirindulari gisa «Munduko Kopan parte hartzea» du amets, eta hortik aparte, «zahartzen noan heinean, osasuntsu segitzea». Halaxe aitortu digu.

**ETXEBIZITZAK**

salgai

**ORONOZ-MUGAIRI.**

Etxebizitza salgai, mobleztatua dago. Berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 16 milioi pezeta/100.000 euro. ☎948 585036.

**ANZABAL**  
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

**IPARRALDE eta BIDASOA alderdian**

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurra behar ditugu.

**URDZUBI**

- Etxe berri bat salgai, mobleztatua. 2000 m<sup>2</sup>ko lursailarekin.

**DONEZTEBE**

- **Aukera:** 102 m<sup>2</sup>ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde mobleztatua eta 17 m<sup>2</sup>ko trastelekua.

Tel. 948 580 804  
Faxa. 948 581459  
anzabal@anzabal.com

**UITZI.** Bi duplex salgai. Batek 114,93 m<sup>2</sup> ditu eta besteak 94,66 m<sup>2</sup>. Prezio interesgarria. ☎699 461213.

**LEITZA.** Borda salgai, 13.500 m<sup>2</sup>ko lursailarekin. Ura eta bidearekin. ☎628 123026.

**ETXEBIZITZAK**

errentan emateko

**LESAKA.** Bittiria karrikan pisua errentan emateko, 3 logela, egongela, sukalde, komuna, eta bi balkoi. Mobleztatua eta berogailuarekin. ☎639 855284 edo 636 116021.

**IRUÑEA.** 2 unibertitateen ondoan eta ospitale hurbil pisua errentan emateko. 4 logela,

**MERKATU TTIKIA**

**948 63 54 58**

info@ttipi.net edo www.ttipi.net

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA  
**ARGAZKIAREKIN** JARRI NAHI IZANEZ GERO **10€**  
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta  
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz  
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

egongela, sukalde eta 2 bainugela dena kanpora begira. Mobleztatua. ☎626 899349 / 609 411298.

**ELIZONDO.** Pisua errentan emateko. 300 euro hilabetean. Sukalde, 3 logela, trastelekua, jangela, egongela, bainugela. ☎686 761017.

**AMAIUR.** Duplex pisua errentan emateko. 3 logela, 2 komun eta bainugela. Mobleztatua eta erabat ekipatua. 2. pisuan dago. Igogailua. Garajea. ☎659 099309.

**BERA.** Agerra auzoan pisua mobleztatua errentan emateko. ☎948 630421.

**ERRATZU.** Pisua errentan emateko. 3 logela eta trastelekuarekin. Mobleztatua eta erabat ekipatua. Oso argia. ☎661 017276.

**Efizientzia Energetikoaren ziurtagiria kudeatzen dugu**

T. 948 630 552 • 609 708 797 | BERA

**IRUÑEA.** Zolina kalean, pisua errentan emateko. Unibertitate publikotik 2 minututara eta pribatutik hurbil, Sadar futbol zelaiaren ondoan. Kasleendako aproposa. 3 logela, egongela, sukalde eta 2 komun. ☎626 389226 (Ainhoa).

**ETXEBIZITZAK**

errentan hartzeko

**LESAKA-BIDASOA.** Pisu edo etxe ttiki bat lur pixka batekin errentan hartuko nuke. Hilabetean 350-400 euro ordaintzeko prest. ☎636 777478 (Deitu 16:00etatik aitzinera).

**ZUGARRAMURDI/UR-DAZUBI** inguruan etxebizitza errentan hartuko genuke. Bikote euskaldunagara. Gehienez 400 euro. ☎622 208560.

**LEITZA.** Leitzako bikotea pisu edo baserri bila errentan hartzeko. ☎661 829359.

**BERA.** Bikote batentzako pisua bila, 300 euro inguru ordaintzeko. ☎679 928331.

**GARAJEAK/LOKALAK**  
errentan eman

**LEITZA.** Landa jatetxea errentan emateko, 300 m<sup>2</sup>koa. Oso egoera onean. ☎616 122883.

**GARAJEAK/LOKALAK**

errentan hartu

**ELIZONDO.** 100 m<sup>2</sup>ko baxera komertziala errentan hartuko nuke. ☎57 576142.

**LURRAK/ORUBEAK**

salgai

**BERA.** 1.120 m<sup>2</sup>ko lur eremu urbanoa salgai, herri erdian. ☎948 630552.

**ZERBITZUAK**

zurgindegiak

**ARANTZA**  
Zurgindegiak.....

- Klase guzietako zurgin lanak
- Eskatu aurrekontuak konpromisoik gabe

Jose Miguel Izardiaz  
Tel: 948 634 068 - 647 810 144  
Gertubieta - ARANTZA

**LANA**

eskariak

**Interna** bezala aritzeko prest Baztan, Malerreka, Bertizarana, Leitzaldea edo Bortzirietan. ☎608 655199.

**ELIZONDO.** Garbiketa eta fregaderan lan egiteko emakumea prest dago. ☎632 202854.

**ELIZONDO.** Mutil gaztea hainbat lanetan aritzeko prest: garbiketarak, plantxa, mantenimendu lan ttikiak... ☎632 202854.

**Neska bat** urte osoan haurrak zaintzeko prest dago, esperientziaduna eta Haur Hezkuntzan tituluduna. ☎696 102617.

**BASERRIA**DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**  
(Ekainaren 21etik 28ra bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA** 

**Zerrikumea**  
(19 kilo): 44 € (=)

**Zerri gizena**  
1,420 € kiloa. (=)

**Zerramak:**  
0,810€ Kg/bizirik. (=)

**BEHIKIA** 

**Aretze gizenak:**  
**Idixkoak:** €/kg. Kanal

**Extra** 4,28  
**1.koa** 4,02  
**2.koa** 3,87

**Urruxak:** €/kg. Kanal  
**Extra** 4,34  
**1.koa** 4,06  
**2.koa** 3,92

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze ttikiak**  
(15 egun ingurukoak):

**Aretze mestizoak:**  
urruxak 135,00  
idixkoak 210,00

**Aretze nabarrak:**

urruxak 155,00  
idixkoak 165,00  
**Zaldikoak:** €/k  
Sortuberiak: 3,00/3,10  
Zaldi-behorrak: 1,84/2,04  
**Bildotsak:** €/k  
6-8 kilokoak: 7,10/7,20  
8-10 kilokoak: 5,70/6,40



**Neska euskalduna** haur edo aiton-amonak zaindu edo haiei laguntzeko prest dago, esperientzia pittin batekin. ☎637 054154.

**BERA.** Sukaldari laguntzaile bezala lan eginen nuke, esperientziaduna. ☎637 054154.

**ZUGARRAMURDI** inguruan ostalaritzan lan eginen nuke. Zerbitzari zein sukaldari laguntzaile gisa esperientziadun mutila. ☎622 208560.

Doneztebeko **neska** batek etxeak garbitzen lan eginen luke Doneztebe edota Elizondon. Deitu arratsalde. ☎649 901395.

Doneztebeko **neska** batek, administratiboko tituluarekin, lan eginen luke Doneztebe edo Elizondo inguruan. Deitu arratsalde. ☎649 901395.

Eskualdean **emakumea** interna ariko litzateke. ☎693 965208 (Gladis).

**LANA**

**eskaintzak**

**BERA.** Frantses pixka bat dakien neska edo mutila behar da Larungo benta batean udan lan egiteko. ☎948 631100/607 566022.

**Ile-apaindegi** batean lan egiteko lagun bat behar da. ☎948 599129. Deitu 10:00etatik 18:00etara.

**BERA.** Jatetxe batean esperientzia duen sukaldaria behar da bazkariak prestatzeko. ☎948 631658 / 650 981950.

**MOTORRAK**

**salgai**

**Yamaha Banshee** motorra salgai, 2000. urtekoa. ☎657 605905.



**DONEZTEBETIKO AVIA GASOLINDEGIA**

**DESKONTUAK**  
**CLUB AVIA** txartelarekin  
**%2 gasolio eta gasolinan**  
**%5 dendako produktuetan**

Zuk gozatu ...hark garbitu  
**Eraman Solac robot xurgagailu hau Club AVIArekin**  
Lortu zure zenbakia.  
**20€-ko erregai-honitze**  
edo erosketa bakoitzeko

**Nissan Almera Tino** 1.8 monobolomuna salgai. 5 atekoa. Gasolina. 2005 urtekoa. 67.000 km. ITV bi urterako pasatu berria. ☎628 572273.

**GOIZUETA.** Aisan mar-kako autoa salgai, egoe-ra onean. 1.500 euro. ☎690 050903.



**MOTORRAK**

**tailerrak**

**GANIX** Tailerra

3 948 63 06 89

**ANIMALIAK**

**oparitzeko**

**Katakumeak** oparitzeko. ☎661 006327.

**ANIMALIAK**

**salerosketak**

**LEITZA.** Setter arrazako oilagor zakurkumeak salgai. ☎660 856246 / 679 796284.

**DENETARIK**

**zerbitzuak**

Diana Iniestarekin **hau-**

**rrentzako ekintzak** abuztuan. 1. Txotxongi-loak, 2. kanpoan margotu, 3. ingeles ikastaro trinkoa eta 4. magia potagia. Informazio gehiago eta izena emateko: <http://pintayrepinta.blogspot.com> edo 948 453478.

**DENETARIK**

**bertzelakoak**

DBHko ikasle batek fisika eta kimika klaseak emanen dizkion **irakasle partikularra** nahi du. ☎652 725037.

Irailetik aitzinera Doneztebetik Donostiara 08:40-an joateko eta 15:00etan etortzeko **kotxea konpartituko** nuke. ☎629 734263.

**DENETARIK**

**salerosketak**

**ORONOZ.** Egurra xehe-tua salgai. Pagoa eta harritza. Etxera eramaten da. ☎676 242520.



**SUNBILLA.** Su egurra salgai, lotean edo xehe-tua. ☎659 867287 / ☎699 461394.



**DONAMARIAKO UDALA**

**Herriko Ostatuaren alokairua**

Udalak, erabaki du lehiaketa publikoaren bidez **GAZTELUKO Herriko Ostata** errentan ematea. Lehiaketa, bertzeak bertze, baldintza hauek arautuko du:

- Alokairuaren iraupena:** 2 urte, luzatzeko aukerarekin.
  - Hilabeteko errenta:** 200 euro/hilabetea gehi BEZA.
  - Lehiaketan,** bideragarritasun plana, eskarmetua, hobekuntzak eta diru eskaintza baloratuko dira.
  - Behin-behineko fidantza:** 300,00 euro.
  - Eskaintzak aurkezteko epea:** 2013ko uztailaren 24ko, eguerdiko 14:00ak arte. Eskaintzak Donamariako Udaleko Idazkaritzan aurkeztuko dira, horretarako onetsitako administrazio baldintzen agirian adierazten den gisara.
- Administrazio baldintza partikularren agiria interesdunen esku-  
ra dago Udal Idazkaritzan. Informazio gehiago, korreo bat bidal-  
iz helbide honetara [udala@donamaria.es](mailto:udala@donamaria.es) eta 948-450046 telefo-  
nora deituz (astelehena eta ortzirala 12-15etara, eta asteazkene-  
tan 8-15etara).

Donamarian, 2013ko ekainaren 26an  
Alkatea, Mikel Arregi Mindegia

**Agotza paka** ttikiak sal-  
gai. ☎948 450216.

**DENETARIK**

**galdu-aurkituak**

**ALKAIAGA** industrial-  
dean, Martiko lantegia-  
ren ondoan, giltza batzuk  
aurkitu dira. Garajeko ate-  
ko mandoarekin. ☎948  
635458.

**IGANTZI.** Spaniel arraza-  
ko bi zakur desagertu di-  
ra. Aurkitzen baldin ba-  
dituzue deitu mesedez.  
☎678 024636.

Alkaiagako frontoian haur  
baten **jertsea** aurkitu du-  
te, **giltza** batzuekin. ☎665  
712690.

uztaileko  
zk. saritua  
**4.984**

**Zonaldeko produktuekin osatutako saskia**

Saritua hilaren 30a baino lehen deitu behar du Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitatera

948 63 52 54



hemen  
agertu  
nahi duzu?

egin zure erosketa  
[www.ttipi.net](http://www.ttipi.net) en

**IRAGARKIA**

2 aldizkaritan eta interneten

**8**  
EURO


# urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,36€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa; 4) www.ttipi.net bitartez



Sunbillako **UXOA ARRUBARRENA** DESTRIATSEK urtea beteko du uztailearen 11n. Zorionak eta muxuak gure makarrillari Lorea, amatxo eta aita txoren partetik.



Lakuntzako **AITZOL SAN SEBASTIAN ARRAIZAK** 4 urte beteko ditu uztailearen 27an. Zorionak eta bersakada haundi bat familia guztiaren partetik.



Lakuntzako **MADDI SAN SEBASTIAN ARRAIZAK** 9 urte beteko ditu abuztuaren 13an. Zorionak eta bersakada haundi bat familia guztiaren partetik.



**AUZA IPARRAGIRRE ITURZAETAK** urteak beteko ditu uztailearen 31n. Aunitz urtez printzesitaaa!! Ongi ongi pastu egune! Muxu haundi bat etxekoek partetik.



Zorionak Lesakako **LUKA ROJO RODRIGUEZ!** Ekainaren 27an urte bete du gure etxeko tikiak. Mila muxu familia guztiaren partetik eta txokolateko muxu erraldoia zure anaia Ekhiaren partetik. Maite zaitugu!!!



Arantzako **IRATI AZPIROZ** ERRANDONEAK uztailearen 7an 8 urte beteko ditu. Zorionak panpoxa eta muxu haundi bat zure anaia Beñat, aita, ama eta familiako guztien partetik.



Sunbillako **ENERITZ ITURRALDE** EZKURRAK 4 urte beteko ditu uztailearen 10ean. Zorionak zure familia guztiaren partetik, bereziki Aurkeneren partetik. Muxu haundi bat moxorkillo!



Igantziako **ALAINEK** uztailearen 22an 4 urte beteko ditu. Zorionak Sunbilla eta Igantziako familiaren partetik eta bereziki anaia Jerairen partetik. Ongi pasa!



Zorionak **IORTIZ** gure etxeko gizon txoari uztailearen 12an 9 urte beteko dituelako. Segi horrela eta 9 muxu haundi familia guztiaren partetik, batez ere Jonai etxeko pipermiaren partetik.



**KEMEN ETXEBERRIA** GARRAUSEK 8 urte beteko ditu uztailearen 23an. Zorionak mattia. Muxu luze-luze bat bihotz-bihotzez gure potxoloarentzako Lesakako aitaxi eta amaxiren partetik.



Leitzako amona **Mª CARMEN OLANOK** eta Legasako bere biloba **ENARA MARIÑELARENAN** urteak beteko dituzte uztailearen 11 eta 21ean. Zorionak familia guztiaren partetik!!



Legasako **ENARA MARIÑELARENA** IRISARRIK urte bat beteko du uztailearen 21ean. Zorionak Leitzako eta Legasako familia guztiaren partetik.



Sunbillako **JULEN LAZKANO** ALZURIK uztailearen 16an 5 urte beteko ditu. Zorionak txapeldun!!! Muxu asko Sunbillako eta Leitzako familiaren partetik, bereziki bere arreba Oihaneren partetik.

**HILABETE HONETAKO ESKAINTZA**

143€

## 2500 FLYER A5

[14,8cm x 21cm]

Koloretan bi aldetik

135g

Diseinua + inprenta + garraioa

BEZa barne

Epea: 10 lan egun

Raskontako bidea, 7 - 1 | 31770 LESAKA

948 635 458 | www.ttipi.net | info@ttipi.net

Informazioa eta salmenta:

607 946 785

948 109 818

- PISUAK
- GANBARAK
- GARAJEAK
- LOKALAK

%100 finantzatua

SEKULAKO AUKERA

120.000€

tik hasita


Garajea, trastelekua eta BEZa barne



# freskату goxату INFORMATU



LIDERRAK GURE ESKUALDEAN  
eta baita azterketa egiterakoan CIESeK  
Nafarroa Garaiko mendialdean  
hartu duen 111 udalerrien  
eremuan ere



Ttipi-Ttaparekin  
zure iragarkiak  
eragin haundiagoa du



Ikuskeria mailaren arabera  
IKUSKI GARRA GARRA  
LEHEN IKUSKETAK %10,40  
LAURDEN HEZKAITZA %32,80  
BAYXI ERRODA %21,90  
IRIBERTZUTATEA %31,70

Adinearen arabera  
14-24 URTE %12,20  
25-34 URTE %14,90  
35-44 URTE %26,80  
45-54 URTE %22,20  
55-64 URTE %07,20  
+ 64 URTE %16,70

Situazioaren arabera  
GIZUNAK %48,40  
EMAKUMEAK %51,60

Oinarri datuak: CIES 2013ko 1. erreportajea



**ttipi txartela**

ttipi-ttapa

**PILI IRIARTEA IGARTZA**  
72675303-G  
04/2014  
123456

**ttipi txartelarekin  
beti irabazten da !**

DESKONTUAK, ZÖZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA MUSUTRUK

-%25eko DESGRABAZIOA  
ERRENTA AITORPENEAN

eskatu zurea 948 63 54 58  
telefonoan

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidela 7, 31770 LESAKA

Tel. 948 635 458 | Fax. 948 635 457

info@ttipi.net | www.ttipi.net

**deSKONTUAK**

**BERAUTO**



BERA | %5 errekanbioetan



**Kattalingorri  
arropa denda**



ELIZONDO | %10eko deskontua

**POTTOKI**



ELIZONDO  
%5 oparitzeko artikulu txikitetan



**FOTO MENA** ELIZONDO

ELIZONDO | %10 kopia digitaletan



DONEZTEBE  
%10, 30€tik gorako gastuan

**zozKetak**

593 ALEKO IRABAZLEAK

- 1- BOLTSO BAT | Onin art  
Kistine Berra | **LESAKA**
- 2- ARKUPE LOTEA  
Pili Juanenea | **LESAKA**
- 3- 2 SARRERA | Zugarramurdiko sorginen lezeak  
Arantza Agirre | **BERA**
- 4- 2 LIBURU | Elkar argitaletxea  
Baserman | M<sup>a</sup> Eugenia Sagardoi | **ETXALAR**  
Tximeletak | Juan Jose Gorosabel | **NARBARTE**
- 5- 2 SARRERA | Berako Igerilekua  
Xabier Bizente | **ETXALAR**
- 6- 2 SARRERA | Aquarium  
Enma Sanzberro | **ARRAIOZ**

**KAMISETA BAT**  
Onddo ta punto  
[www.onddotapunto.com](http://www.onddotapunto.com)



**GAUR EZ DISKA**  
Gor disketxea  
[www.gordiscos.com](http://www.gordiscos.com)



**PIRATAK JOLASA**  
Urtxintxa eskola  
[www.urtxintxaeskola.org](http://www.urtxintxaeskola.org)



**2 LIBURU**  
Ibaizabal disketxea  
[www.ibaizabal.com](http://www.ibaizabal.com)



**2 SARRERA**  
Berako igerilekua  
[www.urdisl.com](http://www.urdisl.com)



**2 SARRERA**  
Aquarium  
[www.aquariumss.com](http://www.aquariumss.com)

